

500

ARCHIVO

abando • amatiño • amundarain • aranalde •  
arostegi • atxaga • bozas-urrutia • elustondo •  
ibargoiti • intxausti • lete • lertxundi • mitxe-  
lena • txillardegi • ugalde • villasante

# 500 - 500 - 500 - 500 - 500

“orixe”ri gorasarre

## BATASUNA

Larehungarren alean ere onelako zerbait idatzi genduen: Elkartasunean euskaldunen indarra. Euskal Erriaren zazpi alderdi aipatzen genituen orduan. “Guziak ezin aukeratu eta zazpi auk bakarrik autatu ditugu. Ez da gure asmoa, ezinezkoa bai litzake, gai auek beren sakontasunean agortzea, saiaketa labur bat egitea bai-zik”, esaten genduen orduan.

ORIXE dugu oraingoan gaitzat. Ez noski, Jainkotzat eta denean eredutzat artu nahi dugulako. Orixe ere batasun-oinarrietan zor zaion lekua behar duelako, euskal idazlerik onenekin batasun-mahaietan eserrarazi nahi dugulako eta euskeraren zerbitzuan bizia eman zuen euskaldunetako bat delako baizik. Beste edozein idazle on autu genezakean. Bat aukera behar eta au artu dugu.

Ez dugu denean maixu eta gidaritzat jarri nahi izan. Orixezale direnei eta ez direnei eskatu dizkiegu lanak. Ez digute denek baiezkerik eman. Ez eta agindutako guztiek ere itza bete. ORIXEren alderdi batzuk bakarrik, berriak ahal badadi, aipatuko ditugu. Ez zaigu erraza izan. Ez da giro ORIXEri buruz itzegiten, aldeko edo kontrako itsu-itsuak eskatzen bait ditu gaur jendeak. Dirudienek denean onena edo denean txarrena dela esan behar bait da. Agian orregatixek ez dira asko ausartu lanak bidaltzen.

ORIXEK, euskaldunon arteko borroak, ezin konponduak, saldukeriak, burugogorkeriak eta gurutzak gogorazten dizkigu. Etsalkeiaz eta fiakaizkeriaz betetako egoera larrian bizi gara. ORIXE bera ere sakabanatzaile bihurrazti dugu. ORIXEzale amorratuak, itzez behintzat, batzuk. Etsai porrokatuak besteak. Euskera bera ere, euskaldunon mintzaira izanik eta guztiok senide-lokarriz lotzen gaituen izkera izanik, sakabanatzaile gertatu zaigu aldi berean.

Orregatik ez da aldizkari onen asmoa sakabanatzen gaituzten alferrikako eta kaltegarritzko ikami-kei su ematea. Ontan saiatu gara azken aldi ontan. Askok ez digute ulertu. Ez dugu beti asma-tu eztabaida jakingarri galga onean eusten. Baiña ortan ahale-gindu gara.

Desberdiñak gara zenbait gaituztan euskaldunok: sinestun eta sinestgabe, zuri, beltz eta gorri, ez-kertiar eta eskubitar, aurrerakoi eta atzerakoi, baserritar eta kale-tar, jakitun eta ezjakin, zahar eta gazte, mugaz emengo eta mugaz araindiko.

Baiña bagera zerbaitetan bat: Euskaldun gara eta euskaldun menperatu gainera: gaitzetsiak, erkituak, minduak, erasotuak... urrituak...

ORIXEK esango zukeen bezala “Bidasoa-guraizez”, erdibiturik gau-

de, baiña bat izan nahi genduke. Erriaren aldeko indarrak sakabatuturik, baiña elkartu nahiz. Euskalki askoz zerbait urrundurik, baiña euskera bat egin asmoz. Sakabanaturik baiña batasun-egarri berean irrikatuta eta penatuta.

Erria, Erriaren nortasuna, erriaren izkuntza, erriaren kultura, erriaren kondaira eta erriaren berdintasuna salbatzeko ametsez. Baiña guzti ortan bakoitza bere aldetik dabil.

Batzen gaituzten alderdi eta lokarriei utsi nahi genieke. Batzen gaituen sua indartu nahi genduke. Sakabanatzeak indarrak galarazten ditu. Elkartasunaren indar ori egin behar luke gure arteko aldizkari batek. Bakoitzaren eskubideak, iritziak eta jokabideak onartuak bakoitzak elkarrekin dugun kide-tasuna indartu.

Alderdi askotan eta ekintza askotarako elkartu beharra daukagu. BATASUNA sortu beharra. Ortarako izkuntza asko batzen gaitu. Izkuntza batuak askoz ere batua-go egingo gaitu. El dizaiogun euskeraren batasunari. Amor eman dizaiogun batasunari. BATASUNAK ona besterik ez dezake ekar.

ORIXEK ez du batasunik egin. Agian erantzunkizun ori bere gain artu nahi ez zuelako idatzi zuen euskalki guztietan. Baiña inork baiña areago bizi zuen batasun egarria.

“Izkuntza berri... or dago korapiloa! Ez da guzien euskera, guzien euskerarik ez baita. Izan ba litza, ua emanen nizun”. (“Euskaldunak” Poemaren itzaurrean).

“Liburuetako euskera bakarra obe genuke euskeraren biziarentzat”. (“Meza-Bezperak” itzaurrean).

Eta nondik nora jo ere eman zizkigun iritzi batzuk: “Euskera, eguzki alderago bizi dana artu nai nun oinarritzat, beste euskalkietatik laguntza artuz; baiña Belloc-en asiak dira lapurtarrez egiten, eta Gipuzko alderago jo dut”. (“Meza-Bezperak” itzaurrean).

“Napar-euskera Laphurdin eta Gipuzkoan ez da arrotz egiten. Au baino au euskera ohea danik, bearrago danik, ez naiz asko, baino gauza bat gogora zait: euskerarik elkartuena Ameriketara egiten dutela nago, ta erriak beure buruz ipintzen dun oinarri au ona dirudit ditekatasunerako edo ditekatasunerako. Napar-euskaldunekin bizi izan diran giputz amerikanoek napar-euskera artzen dute... Laphurtarrek an bizi izan diran naparrak, ordea, beurena utzita Laphurtarrena artzen dute... Ortaz, eguzk-aldera josten du erriak ere”. (“Euskaldunak” Poemaren itzaurrean).

“Mordolloegi ez egitego, batzuk:



garbiegi ez jarduteko, beste batzuk... Ez naiz, bada, nere uestez, ez berrizaleegi, ez mordoillozaleegi... Ortaz, mordoillozale orrek ez dezala muzin egin, zenbait itz zar-berritu arkitzean, berriak diralakoan. Lanak izango ditu liburu osoan itz berri berriak billatzen. Ez dedilla zapuztu berrizalea ere, zenbait itz mordoillo topo egitean”. (“Meza-Bezperak” itzaurrean).

Dudarik ez dago, gaurko ORIXEzale uesteko asko baino urbillago zegoen gaurko batasun-zaleen iritziez. BATASUNAREN egarria du batez ere sumatzen. Ez du denean asmatu. Aldez aurretik zekien ori.

“Egiñalak egiñik ere, euskaldun

kontentagaitz bat baiño geiago arkitu ditekela nere euskerarentzat... Aideaurretik ba-dakit, guzien gustorik ez dutala egingo. EZ NERONENIK ERE, JAKINA... Gure erria besteak baiño kontentagaitzago da. Ez da doai txarra, alde batetik... Ontatik asi naiz; nere ta inoren atsegiña baiño geieneren etekiña edo protxua lenago baita”. (“Meza-Bezperak” itzaurrean).

ORIXEK batasun egarria sumatzen du, baiña irakurleak ez ditu ahazten. Badaki idazleak irakurlearentzat idazten duela. Badaki batasuna kontuz egin beharrezko gauza dela. “Euskera gaixoak operazio asko dauka egin bearrak, eta guziak batean egin ezkeru, il

liteke. Batetik sendatu-ala bestea egiñez, ez luke erio-bildurrik”. (“Meza-Bezperak” itzaurrean).

Irakurleak gogoan ditugularik, batasun bidetik jo nahi genduke guk geuk ere. Gero eta areago. Euskera batuak gero eta batuago egingo gaituen ixaropenez. Sakabanatzen baiño elkartzen gehiago ahaleginduz. Iritzi guztiak onartuz. Talde jakin bati lotu gabe. Ika-mika zipotzak kanporatuz...

Bostehungarren aleak, ORIXEren omenez eta gorasarrez egiten dugun bostehungarren aleak BATASUNERA, alderdi guztietako BATASUNERA bultza egin dizigula denoi.



## BETI LAGUN

*Animaeque, umbraeque  
silentes.*

(Virgilio)

Non dago? non aut? ez ote da auxe  
neretza lêngo Tolosa?  
Ez ál dezaket entzun berriro  
mintzo goxo aren otsa?  
Bego negarra, lurrindu bedi  
begian malko mingotsa,  
aláre ez uke nik iregatik  
negar egitea, lotsa.

Ire erraiñua ikusten diat  
nere erraiñua ikusten diat  
nere begi ón txingarra;  
argi biurtu dela niokek  
ire ezpaiñen irri-parra.  
Dante'ren iztal isillak beude,  
betorkit neri ire garra,  
bete dezadan azken-aginduz  
eman idaken bearra.

Biotz-bertsoak egin nai eta  
Jainko billa nauk oldartu;  
ik esan idan bein ta berriro  
ontan nendilla leiatu.  
Lagun egidak argi orrekin,  
nere bigarren aingeru,  
igan ikusten diat garbien  
Jaungoikoaren erraiñu.

Jainkorik ezin, ez ta aingerurik  
gorputz-antzean iduri;  
siñestez iñoiz konturatzen nauk  
itzalpean nautela ni.  
Illun ortatik bizi ontara

i aut bitartean argi:  
erraiñu onen dirdaia lagun  
aurrean zeuzkeat beti.

Beretarbidan, iturri askan  
agertu didak begia,  
osto tartetik iragazirik  
eguzkiaren izpia.  
Nere aurretik, ibilli gabe,  
igaro uan mendia,  
ikusit genin basora antzean  
loretan den sagastia.

Lên lagun zintzo gorputz-bizitan,  
crain are, lagunago,  
tokiz aldatzen nekeri ez duk  
ez egal, eta ez zango.  
Begi-orde ók aurreko ormara  
eguzkiak jota baiño,  
zintzogo abil nere aurrean,  
abil ni bizi naizaiño.

Oroitu ta áztu, burruka diat,  
tartez bakar eguzkia,  
erraiñu onek irauten balu,  
auxe nere zoria.  
Goibeltzen bazait, gainbero bedi  
bego barren au goría,  
gorputz ustel au, gandu nâsi au  
daiteken arte eroria.

Biga atera duk, begiak lauso,  
ikullu-zoko beltzetik,  
begiak urez igurtzi eta  
lauso orrek aldegiten dik.  
Egun ótako negar-malkoak  
txuka ditudanean nik,  
ni il arte ez beza Jaungoikoak nai  
ire erraiñua galtzerik.

Nere bigarren albo-aingeru,

*... eta bizi naizaiño. Orixen zaren  
azkenengoa. Dakusgunez, ba-  
ditu bere biur-unak idazkeran eta;  
goi-mezulari, ortzi zear igorritako  
Pioner V'garren dalakoaren gorabe-  
rak ederto azaltzen daukuz. Auxe  
nai eban, antza, Olerti'k eraturako  
sariketara bialdu; baiña Tolosa'n  
be sari galanta jaso ebalako edo,  
lotsa zan. Onela idatzi eustan be-  
rau Olerti'rako bialduaz; «Olerti'ren  
batzaldirako enaz ausartzen ezebe  
baltzen: lotsa emoten deust alde  
batera. Loba asi da beure saioa  
egiten. Nik extra concrsium bialdu  
bearko dot».*

A. O.

Zimizten ziztuan  
ba doa Pioner  
mundu berri billa;  
artean emen ni,  
oiari josirik,  
neregan bilbilla.

Pioner'ek baiño  
asko bizkorrago

arrietik aigera;  
ontatik, Pioner  
zein beian dabillan  
kontuak atera.

Suiziri Pioner,  
i baiño geio nauk  
egon eta ibil;  
nere barrenean  
atergabe ari  
zaizkidak lau gurgpil.

Bi txiki, bi aundi,  
morroi ta nagusi,  
ia alkarren etsai;  
amaika burruka  
eman oi zigutek!  
alkar mendera nai.

Batez bat gaztetan!  
lau oien ekiña  
neurritz doanean,  
gaztea gizon duk,  
ez zârta bakarrik  
zugurtasunean.

Lau oien izenak:  
adimen, nahimen  
irudi ta gale;  
alkarri zirika,  
maitagarri diran  
gauza denen zale.

Baiña koketatik  
atera ðalediz,  
ai zer iskanbilla!  
Gaztealdi ua,  
neretzat beinik bein,  
itzul ez dedilla!

Gurgpil ortzadunók  
alkar artu eta  
koketan dirala,  
gorputz animetan  
ez degu sumatzen  
pakea makala!

Ekiñ eta jardun,  
ortz oriek noizbait  
legunduko dira;  
egunen batean  
gorputza ta anima  
bakanduko gira.

Baiña guk ekiñ au  
ez degu galduko  
erdi au galduta;  
beste erdi au bizi  
geldituko zaigu  
trabak askatuta.

Ez ola Pioner.  
Egunen batean  
ingo du eztanda,  
ta, animik ez baitu,  
xirtxikatuko da  
eguratsak janda.

Gorputza piztean,  
biók berdín gera  
lau doaien bidez  
argi eta zailu,  
sarkor eta min-sor,  
bakandu eziñez.

Goga bezain laister  
nonai gerta gaita  
izarrak zulatuz;  
aien igurtziaz,  
aien zulatzeaz  
miñik eziñ artuz.

Eztaiak, eztaiak!  
Bildots arenetan  
ez da atergunerik.

argi ta jakite,  
esker on ta dedu,  
indar eta kemen,  
sekula guzien  
sekuletan. Amen».

(Apo., XIX)

## MIRAMAR 1954

*Anima mea desideravit te  
in nocte (Is.).  
Nere barrenak gauzez irri-  
katzen zaitu.*

Betieran sartzen ote naiz asia  
tarteka bederen? Ez muga, ez aldi,  
ez tarte laisterrik; betaren barnean  
beti dan Arekin bete nago geldi.  
BAT. Ala zakurra eizez dabillala,  
isats-eraginka, ikara belarri;  
baiñan oillagorra suma dula,

[kuzkur,  
batera biltzen tu, lotuz gorputzari.  
Buru ta biotza alde banatara  
doazkit egunez, bi liran iduri;  
gauaren mendean bat biurtzen dira  
ezin bakanduz: ordún naiz bat-bat  
[ni.

Gauzeko pakean egin ez duenak  
otoitza hortzeke, zer dan ote daki?  
Gauak? Ixillak? Zerk ote nauka  
[kuku?

Indar oro batuz zer ote naiz ari?  
Egonean jardun, jardunen egon,  
eragiñik gabe norbaitek naragi.  
BETA, Jainkoaren beti'ren antzera  
noiz asi, noiz buka, ezer ez dit  
[neri.

Tarte onek ez du laisterrik; egonak  
áztuari dit noiz otoitza nun asi.  
Ari naiz, ba nago. Betaren pakean  
ez-axolik nago otoitza noiz utzi.

Xaguxar bat egan bekoki gaiñean...  
lurrean nagola dioket igerrí.  
Murgiltzen naiz berriz beta

[apektsuan,  
jardunean egon, egonean ari.  
Katu elur-margo, marrakaz isatsa  
legunduz, atea zaiodan zabalí,  
eizetik irten da; atzarriz berriro,  
lurrean nagola dioket igarri.  
Arraiak uraren axalean zenbait  
mamu atzemanka eiten baitu jauzi  
ura galdu gabe? Alaxe berriro  
arnasa galtzeke murgillik naiz  
[geldi.

BETE. Utsarterik, aldarerik gabe  
ni bete; neronez ez xortu, ez ántzi.  
Baiñan utsa naiz ni; Jainkoak nau  
[bete.

Ark ez baitu bazterrik, nik ez dut  
[bazterrik;  
ez baita mugitzen, enaiz ni mugi-  
[tzen;

oro naiz Arekin, oro dut nerekin.  
Miramar eipea! gauzez bitan goxo.  
Agur!, baiñan emen barne zaitut  
[beti.

Noranaí noala nerekin zaramat,  
ez baita neretzat utsik, ez tarterik.  
Gizaingeru diran Muyschondt'arrak  
[oro

emen barne ontan nigaz deramatzit.  
BETI. Sar banendi betian zatika...  
oro bat dirade oso eta zati.

Anima betian bizi zait; gorputzak  
ba du, zorigaitzez, aldarreen berri.  
Zeru goxo onek lurreko minkaitza  
ez galtzen! Erria lur ontan atzerri!  
Bizi nadin, Jauna, naizaiño, Zurekin,  
Zurekin biurtuz BAT BETE ta BETI.

## ZOZKETAREN ONDORENA



# BASERRITARRENTZAT ZOZKETA



publivasc

Donosti'n, 1972gº agorra'ren 15'an eta José Madrideoz jauna agiri-  
idaz learen aurrean egiña

### zaraiak

- 1.º 56.643 zozketa-txartela
- 2.º 95.963 zozketa-txartela
- 3.º 44.253 zozketa-txartela
- 4.º 81.354 zozketa-txartela
- 5.º 98.122 zozketa-txartela
- 6.º 81.548 zozketa-txartela



Donosti'ko  
Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

## TRANSPORTES

# azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-  
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Sañtander,  
Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:


Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA


Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381





IRIARTE BASERRIA, «ORIXE»-REN JAIOTE-TXEA, OREXAN



ERREKALDE BASERRIA, «ORIXE»-REN EZIETXEA, UITZIN



«ORIXE»-REN OBIA, DONOSTIAN.

# ORIXEREN "Euskalerri osoa dut kanta-gai"

Nikolas Ormaetxea, euskal letretan «Orix» izengoitiz ezagunago dena, 1888go abenduaren 6an jaio zen Oresa deritzan Gipuzkoako errixkan, «Iriarte» baserrian.

Joan Bautista Ormaetxea eta Manuela Inazia Pellejeroren semea dugu. «Ama gaixoak, aurraldi batez, titi baiñon aur geiago» izan zituelako, ots, iru batera, iñudez azia izan zen Uitziko «Errekalde» baserrian.

Uitzin bizitu zen 17 urte arte. Amaika urterekin utzi zuen eskola eta amazpi zituela Xabierreko Jesuitetan sartu zen, 1905garren urtean. Xabier, Loiola, Burgos, Oña eta Comillas izan ziren humanidadeak, klasikoak, filosofia eta teologia ikasteko lekuak. Irakasle, berriz, Carrion de los Condes, Tudela eta Xabierren izan zen. Jesuiten Lagunditik bota egin zuten, 1923 garrenean, San Luis Gonzaga eta San Francisco Regis-en antzera.

1923tik 1931 arte Bilbaon bizitu zen, Euskaltzaindiaren buru zen R. M. Azkuek deituta, zortzi urte luzetan akademi-lanetan beroni laguntzen, eta «Kirikiño» il zenean honen lekua bete zuen «Euzkadi» egunkariaren euskal orrialdearen zuzendaritzan. Urte hauetan «Santa Kruz Apaizaren» bizitza (1929), «Tormesko itsu-mutilla» bizkaieraz (1929) eta Mistralen «Mireio» (1930) euskeratu zituen.

1934ean, berezko uzurtasuna eta latsa galduaz, «Barne-muinetan» izeneko sakel-liburu trinko eta mamitsua argitara eman zuen.

1931tik 1936 arte bere jaioterrian bizitu zen, buru belarri «Euskaldunak» poema ontzen eta borobiltzen; 1936erako egiña zeukan, baiña denentzat ezagunak diran ondorengo gorabeerak zirala-ta, 1950 arte ez zen argitaratu ahal izan.

1936an preso artu eta Iruñeko San Cristobal gazteluan giltzapean sartu zuten. 1938an Frantziara pasa eta Donibanen, Lourdesen, Air, Sur-L'Adour-en Betherramam-en eta Baigorriin barna ibilli zen. 1949an, «Urte guziko Meza-Bezperak» meza-liburua egin zuen.

Frantziatik Argentina joan zen eta emendik, Chile, Peru eta Bolivian barrena, El Salvador-era eldu zen, J. Zaitetik deituta, sortu berria zuen «Euzko-Gogoa» aldizkarian lagun zezaion. Ameriketara zela idatzi zituen «Quiton arrebarekin», «Jainkoaren billa», San Agustinen «Aitorkizunak» eta Daviden «Salmotegia».

1954garrengo azaroan bere lurren itzuli zen, Lazkoako beneditarretara. 1956an, Lazkoatik Tolosara aldatu zen urte horren beroren azken aldean Oresara joan zen. 1958-an, Oresatik Aramara, bere illoba Joxe Mariren etxera, eta au Añorgara aldatu zenean berarekin etorri zen «Zabalegi» baserriaren eskolara.

1957garrengo azaroaren 22an, Leitzén eratutako akademia-jeian, Euskaltzaindian egin zuen sarrera, 1961ean irabazten ditu «Lizardi» saria Tolosan eta «Oleri» Saria Leirean.

1961garrengo abuztuaren 9an il zen Añorgan, «Zabalegi» etxaldean; bere ezurak Donostiako Polloe illerrian gelditzen dira.

Gure mende onek, besterik ezer bada-ta, erria jarri du modan. Asi politikatik eta artean barna, mundu guziaz erria lagun nahi du. Aren esanetara eta beharretara dabillega esango du politikako. Aren eder-moldeak derabiltzala esango du ederlariak. Iraultzaileak ere erriaren jatorrasuna du bere iraultzaren neurri, dela gizarte berrira irixteko bide, dela aren eredu. Ori dela-ta, nori ez dio min ematen gaur erriarengandik bakandua dagoela entzuteak? Eta norbaiten izena itsusteko zer asma ditek eberik errikoia ez dela esatea baiño? Bai, Erria modan dago. «Erri-tasuna», Orixek dion bezela, gure mendearen sentierak oso aintzat daukan zerbait dugu. Ori errela da, nahi badugu ta ez badugu.

Utz dezagun gaurko joera orren azterketa eta ortatik sortu diren fruituena; eta esan dezagun bakar-bakarrik, intuizio on bat dela eta ortaz ongi baliatzeak on egin diola ta egingo eder-lanari. Gaizki baliatzearen ondoren ez dezagun aipa, ori mundu guziaz hadaki-ta.

Eta orrenbestez, ekar dezagun aurrera eta sar erdira artikuluen onen gaia: Orixek eta erria. Bai al dute zer ikusirik bi oiek? Zertan? Nola? Zenbateraino daude lotuak?

Asmoz behintzat gure Orixek errikoia dela aitortu beharra dago. Ikusteko, ez dago «Euskaldunak»-en itzaurrea irakurri besterik. Andik artuak daude artikuluen onen izena emateko jarri ditudan itzak ere: «Euskalerri osoa dut kanta-gai». Euskalerria ez ordea berak nahiko lukeen edo asma lezakeen edo-ta uste lukeen bezelakoa, baizik «erri bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuian, sukaldean, bizian, erio-tzean, nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez». Ortaz berez datorrena da «istori zearo» egin nahi izan duela. Ta istori, ez bestek emandako berriekin egiña, berak ikusi eta ikasitakoarekin baizik: «bizimodu zar onen lekuko nerau izan bainaiz». Erri historikoa ematea izan du Orixek bere asmo, ta ortarako «gauza bera mintza bedi». Aurreraxeago dio berriz «Bein esan: Euskalerria nire agoz mintzatu izatea nai nuke».

Ba al ditek asmo errikoia gorik gaia artez aldetik? Ori artu gai eta orrela artu gaia. Orre egiazko errikoitasuna.

Baiña Orixek ez da konformatzen erria gai artuarekin eta orrela artuarekin. Gai orrekin egin lezakeen lana erriarentzat egiten du baitipat. Itzaurre ortan bertan esaten du: «Ez-ikasiaz balin ba zera, utzi ezazu aurren-berriketa au, irakurle, ta sar zaite bete betean bertsuetan; zuk egiña bezela baitira, ta zuretako egiñak batez ere». «Ez-ikasiaz» ori erri-erria dela, batez ere, edozeinek daki. Ikasiari berriz, beste onako au esaten dio: «Ez ditut egin bertsu ok, ain zuzen, zurretako; bai ordea zuk ere irakurriko dituzulakoan». Beraz, erria

gai artu eta erriarentzat egin bere erriazko poema; baiña segi dezagun aurrera, ez baita or bukatzen Orixen errikoitasuna.

Erria du gai, erria destinatario eta erriaren bertsu-kerak du bere-arentzat neurri. Ta ori, ez beste biderik ez zedukalako, besteak utzi ta ori aukeratzen duelako baizik. «Bertsua bai, asma nezaken ene belarrieri ta jakintsuen bateneri obeki letorkiona; ez ziteken ordea erriarena, ta ez erriakoa». Orrela, atsegiñago zitzaiokeen ura alde batera utzia, ala esango digu aurreraxeago berak egin dunarengatik: «Erri-beretsua egin dut ortaz, erriak kantuz ematen diguna». Ta erriaren tankerarekin asmatu dualakoan, bere ustea agertuko digu urrena: «Erri-kerak asmatu dudala nago». Azkenik, bere asmo errikoia nabarmenagotuz, kezka bat, bildur bat agertuko digu eta bere jomuga biribil aitortuko: «Ba liteke neure burua gogo nuen bezela ez osotara gorde izatea, erria jatorrago ager zedin; baiña European iñon poema errikerik bada, au dedin nai nuke».

Orri esaten zaio errikoitasuna. Ori da erria aintzat eukitzea. Ba al ditek norbait ori baiño esker aundiagorik erriari eman dezaioke-nik? Eta meritu bada erriker ez-ikasiaz batentzat oinbesteko eskerra ematea erri-kulturari, bi alako aundiagoa dela uste nuke Orixek bezela eskolatutako batek ematea. Egia da bai, benetako jakintsuak besteok arkitzen ez ditugun lakue-tan arkitzen dituela egiazko jakin-duriaren iturriak; baiña jakintsu izenekoak bakan arki ohi erriaren jakitearentzat esker oneko. Eta puntu au bukatzeko, zillegi bekit beste itz batzuk aitatzea, Orixenak auk ere, gure erri zuhurraren omenez eta Orixen errikoitasunaren alde: «Zulo bi orreitara jausi ez gadizan, gure bertsolariak ditugu eredu... Gure egunotan saria lortu dauan Aita Mitxelena'k ortara jotzen dau, ta pozgarri yata... Jau-nak egiñiko «poesi» orreik egia ta zentzuna dira. Au du modarik ederrena, ta gure bertsolarien betiko moda». Orre or gure Mikolasen iritzi biribilla.

Orrenbestez, ez dut uste asmo errikoia iñork uka dezaioke-nik gure Mikolas-i; baiña asmo biribil ori aitortu ondoren, galdera aundi bat sortzen zaigu edozeini: Asmoa asmo, orren ondorena, orren fruitua. Orixeren lana, errikoia dela esan al dezakegu? Egia al da asmatu duela berak esaten duen «erri-kerak»-ekin? Au da Orixen errikoitasunaz egin behar den galdera nagusia eta estua. Asmoak zerbait esaten badu ere eta ez gutxi, onek erantzunak erabaki behar baitu, azkenik, aren lanaren egiazko balioa aztertzen ari geran puntu ontan.

Norbaitzuk badiote galdera orri erantzuna emana ta Ormaetxeari berari adierazia. Ala ageri da Poemaren erderazko itzulpenaren itzau-

rean. Diotenez, A. Mokoroak eta Elvira Zipitriak, batak bere ama zaharra ta besteak Eratsun-go jaun adintsu bat dituzte «Euskaldunak» poemaren illuntasunen argizaille, eta bi «interprete» oiek erri-erriko bi pertsona dira. Eta Orixek bi euskaltzale jakintsu oiek ematen dizkioten berriak jaso ondoren, onela dio: «El éxito de mi poema popular está, pues, asegurado en la más difícil: en su sentido eminentemente popular». Beraz, gogo zuena iritzi ustetan joana dugu mundu ontatik bestera; baiña bidez esan dezadan, gaiaren arira ez badator ere, gure «iruxkiak» etzekala iritzi ona bere poemaz. Beste ez dakit badakien, baiña nik bai, lotsa ematen ziola bere poemak. Iñoz ez zidan utzi zati bat bere aurrean irakurtzen. Ala ere, errikoitasun kontuan, ikusi dugunez, berak nahi zuena lortu zuela uste zuen.

Ta bukatzeko neurea esan dezagun. Nik ere ala uste dut. Gure Orixek aundiak, beste alderdi on edo abantail askoren artean, au du bat berezia: Errikoitasuna, bai bertso-lanean ta bai prosan. Arengan euskerak artzen duen «doñu aparteko», Mitxelena dion bezela, asteko erri-kerari zor dio. Eta iñoz, askotan esango nuke nik, arrotz xamar gertatu bazaigu euskaldunoi, orretxegatik izan da: erriaren itzetan eta moldetan eman digulako berea beste iñork ez bezela.

Beraz, zorionean erriaren bideetara datozen egungo kulturalariei, literaturari behintzat, nik Orixek jarriko nieke erdutat eta aren lema lematzat: «Euskalerri osoa dut kanta-gai».

Joxe Mari Aranalde.

zeruko  
**ARGIA**

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Aizerrietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu

Saimetan (ale bakortza) 7 pezeta






«ORIXE»



GOGORZANE BASERRRIA, OREXAN. EMEN IDATZI ZUEN «EUSKALDUNAK» POEMA.



AXURTARO

## ATARIKOA

Adiskide on batzuek eskatu didate, ez dakit ongi zergatik, Orixeren gorazarretan irten den liburu mardul honen atarian mintza nadin. Honenbeste euskal idazle garairen aldamenean, hobe litzake, noski, ni azkenaldean azaltzea, inon azaltzekotan. Besterik erabaki dute, ordea, eta ez diet ukorik egin nahi. Ezetz esatea, nolazpait ere, Orixerekiko zorra ez aitortu nahi izatea bezalatsu bailitzake: euskaldun guztiok duguna eta, batez ere, nik neronek dudana.

Goresmenik behar balu, aski litzake esatea, eta ez genduke egia soila baizik esango, Euskal herriari eta euskarari eskaini dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik gehienak eta onenak, etengabeko ahaleginen gaina eta bikaina. Hori nahikoa ez balitz, gainera, esan daiteke bere obra dugula behar bada asmoz eta neurritz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, eus-

kal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen larriena.

Azterketan hasiz gero, esan behar da aurren aurrenik ez dela beti izan Orixegana, orain besterik badirudi ere, euskal letren aitagoi onetsia eta ezin ukituzko eredu. Aitzitik, hasieran eta geroago ere bai, bere gisa eta bere kabuz ibili zen luzaroan, giroari entzungor eginik. Bere bidetik abiatu nahi zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan daitekeen neurrian, ez inoren esanera egon. Hizkuntzari dagokion aldetik, berriz, ez zen berrizale —orduko zenbaitek nahi zuketean adina ez, behinik behin—, zaharzale baizik: ahoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaile leial, zaintzaile leial izate horrek garai hartako errepidetik baztertuko bazuen ere.

Plazaren erdian geroago agertu zitzaigun bete betean, «Euskaltzaleak» sortu zeneko hartan, sortze hori giro berrien aitzindari eta ondore izan baitzen euskal literaturaren alorrean. Bere baitatik ontzen zituenak aski ez zirela, laster ikusi genduen zenbatetarainokoa izan zen bere eragina eta gidaritza Lizardi bihotzekoaren harrigarritzko loraldi labur hartan. Elkarri loturik geneuzkan adiskide bion izenak eta, Lizardi behar baino lehenago galdu genduenean, Orixegana landaturik gelditu ziren gure usteak, itxaropenak eta ametsak.

Besteak beste, honek eman behar zigun, aurki jakin genduen, euskaldun umezurtzok ez genduen poema nagusia. Lanean ari zen, aurretatuxea zuen lana, are bukatua ere bai. Orduan, ordea —eta zertan oroitari guztiok gogoan daukaguna?—, gauaren ilunak uxatu zuen aldi bateko poesiarren argia.

Eta, halaz ere, gainerako ezbeharrak aski ez genituelarik, ez ginen gutxi beste nahigabe eta kezka larri baten mendean geundenak. Galdua ote dugu —aritu ginen luzaroan galdezka, batak beste-ari eta nork geure buruari— poema jaioberria? Gerrateen ondoan, azkenik, hartu genduen erantzuna eta erantzunarekin atsedena.

Osorik zegoen poema, osorik eta bizirik. Zatiren bat edo beste ikusi genduen eta egunen batean, zenbait euskaltzale presturi eskerrak, irten zen argitara, azal ederrez jantzia, lehen eta oraingo Euskal herriaren ispilu garbia.

Urte haietan heldu zen gorongo mailara Orixeren izena eta omena. Bizirik genduen gure artean gau-egunetako

ametsetan bila genbiltzan hizkuntz eredu, irakaslea eta urutiko gailurretarik bidea erakusten zigun gidaria. Poemaz landa, gainera, ez zegoen geldirik Orixegana. Bere euskal lanak, inoiz ez bezala, samaldan zetozkigun, multzoka, bata bestearen gain, hitz lauz eta hitz neurtuz. Eta baikoitza, banan banan, lehen goen ospea gehitzen eta zabaltzen ari zitzaigun.

Ez nintzake, haatik, egia-aren aldeko zuzen agertuko guztiok dakigun zerbait ixilduko baldin banu. Diodan, bada, labur beharrez, zerbait berri agertu dela gure artean gerra ondoko urteotan: bestelako pentsabidea, bestelako bizimoduaren eskutik, giro aldaera larria, herriko eta atzerriko haize berrien eraginaz.

Ez naiz ni hemen mintzatu ez giro aldaera horren alde ez kontra. Gertatua da eta ezinbestekoa, gertatua denez gero. Esan beharko dut, ordea, horretaz ari baikara, aldakuntza horrek —usteak, sinesteak eta ospeak astindu dituen balioen trukea izanik— ez diola Orixegana ere, ustez edozein eztabaidaren gainetik geneukan Orixegana berari, begirametik gorde. Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta gidaritza ukatu dio oraintsu batek baino gehiagok.

Hizkerarekikoa da gutxi-ena, ez baita hori barren sakonean dabilen zurrumbilaren gaina eta axala baizik. Hogei- hogeitabost- hogeitamar urte honetan gorabehera gaitzak ikusi dituzte gauzek eta, gauzekin batean, gure gauzekiko iritziek.

Orixegana, gainera, eta zertxobait ezagutzen zuenak ikus zezakeen hori alde aurretik, ez zuen amorerik eman. Bigundu eta samurtu beharrean, gogortzen hasi zitzaigun, gero eta gogorrago, nahiz eta gogorrago, nahiz eta horretarako inoiz bigundu zituenak berak onetsi behar bazituen ere. Nahiago zuen hark zaharzale agertu berrizaleen aldi; lehengo bateko berrizaleak bezain berrizale, ordea, zaharzaleak eta herrizaleak gailenduxe zaizkigun garaian.

Bestetan esan dut (EGAN, 1961, 157 eta ondokoak) eta berriz ere esatea ez da alferrik izango, bazutela elkarren antzik Unamunok eta *to y aquello* izenda baitzitzakeen eskubide osoz bere lanik asko. Erro batetik jaiok ziren eta, aldiaren eta giroaren goiari amor eman beharrean, gogor egingo zioten, leher eztanda gaizto egingo bazuten ere, batak eta besteak.

Hain zuzen ere, berresan dezadan bidenabar, elkarren bixkiak dirudite beste zerbaitetan ere. Izan ere, Jainkoaren bila abiatu ziren biak eta ez zuten atsedetik hartu heriotzeko orduan baizik. Bide batetik eta beretik ez zirela ibili esango didate noski, ez zela sekula Orixegana bide nagusitik baztertu ez errebelatu bilaketa luze horretan. Ez naiz nor, ez dago esan beharrik, hauzi hori erabakitzeke. Niri, nolana ere, bilatzea iruditzen zait lehen puntua, bilatzeko modua baino areago, eta Pascal-ek behintzat baietz esango lidake: «Ez hintzake ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduk». Ez naiz batere segur, bestalde, guk bezain begi onez ikusiak izango ote ziren Orixegana bilaketak —eta Unamunorenak zer esanik ez— gai horiek orain baino zorrozkiago hartzen zituzten garairen batean bizi izan balitz. Denbora bateko hainbeste eta hainbeste «argitu» hartzen ditut lekuko, eta Eneko Loiolakoa bera ere bai, mistikarako isuria heresi kutsuaren pareko etsi daitekeelako ezaugarritzat.

Gure ondorengoek, orain pixkaren bat ahazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean Orixegana, harrimenez eta espantuz. Gurasorik gabe mirariz jaiok balitz bezala, hor baitago gure aurrean ez oraingo, ez egungo eguneko, inoizko aldi urrun bateko seme dirudiela. Galileo aurrekoa dugula esan izan dut, jakite berriaren ukatzailea. Jakite horretatik sortu den industriari ere ez dio leku handirik opa bere poema nagusian.

Gu, ordea, eta are gehiago gazteagoak, jakite horretan haziak gara, oraingo hirietan bizi garenak, fabrikaz inguratuak. Gehienik biztu gaituen poesia ere ez da antzinakoa, ezta ere horren irudira ondu zen XVI-XVIIgarren mendeetakoa: Orixegana higuin zituen erromantikoek ese gaituzte eta are hark higuinago zituzkeen ondokoek.

Ez naiz, ordea, gaizki esaka ari. Gure aldikoa izan balitz, gure gisako gizona eta idazlea izango gendukeen, hobe nahiz kaxkarragoa, baina antzekoa eta kidea. Euskal herriaren aldi igaro ilun hartatik itzuri zelarik, ordea, bestelakoa agertu da gure artean, aspaldikoa eta noiznahikoa, eta noiznahikotasun horri eskerrak eskaini digu inoiz euskaldun batek euskaraz eman duen betiko Euskal herriaren irudirik betena. Betea, diot, ez baitu ilunabarren laino beltzik, Txo-

min Agirrerena goibeltzen eta tristatzen duenaren antzekorik.

Ez zituen oraingo eta oraintsuko jendeak ongi ezagutzen: Bergson-en kutsua eta eragina aurkitzen zuen, esate baterako, Txilardegigan. Eta zer? Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal prosa eta neurtitzak, hizkuntza ere zaharberriatuz. Antzinako joera klasikoei jarraituz, behar bada, baina alfer egonak genituen joera horiek bera etorri arte. Berak erakutsi digu —egitez, hitzez baino gehiago— gai dela gure hizkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskara bihotzaren sentierarik izkutuena adierazteko. Axalez bakarrik baitzen lehorra, hotza eta xekena, ez barrenez. Bestela uste izatea barkakizun zaio herbesteko bati —*El intruso* egin zuen Blasco Ibañez-i, esate baterako—, ez euskaldun bati. Ez ote dugu, bada, nabaitzen geure baitan herbearen hauts hotzak estaltzen duen su kiskalgarri hori berori?

Orain, hemen utzi gintuen Orixegana urrutixegotik ikusten dugunean, orain da garaia bere lanak hobeto aztertzeke eta zehatzago ezagutzeke. Azpian genduzkan itzala luzatzen ari da eta mehetzen: orain hartu behar genituzke haren luze-laburraren neurri zehatzak. Horretarako, argitara ditzagun argitara gabeak eta ikusmira ditzagun astiroago argitaratuak. Hori nahi luke batipat liburu honen eta laguntza ederra eskainiko dio, honenbeste Orixegana bikaini eskerrak, lan horretan hasi nahi duenari.

Neure aldetik zerbait aitortzea zilegi bazait, ausartuko nintzake esatera Orixegana gramatikalaria dela gutxien asezten nauena. Gramatika, izan ere, jakite enpirikoa da eta berak beste bidetatik eraman nahi zuen, Erdi Aroko eta gero ia oraintsuko antzera, ez baikenituen ezagun Sartaldean, esaterako, Panini baten moldeak. Baina akats hori, akatsa baldin bada, hutsa da besteen aldean.


Gizon bezala, eta hauxe da noski lehenbizikoa, ezin hobea da Orixegana utzi digun eredu. Egiatzko gizon, bere buruarekin borroka eta Jainkoaren bila, egiatzko euskaldun eta euskaltzale, Euskal herriaren seme jator, ez hitzez eta oihuz, egunoroko lanaren lanez baizik. Goian bego eta bildu zigun uzta onerako izan bekigu, bizi ziztaigunean bezalaxe.

MITXELENA

(«Orixegana», omenaldi-1965)



# Orixeren poesiaz eta honen hizkuntzaz



Euskal literaturaren arloan Orixeren izena aipatzea gauza asaldagarri bihurtu da. Hontaz gero, eta gauzak denbora xuritzalearen bitartez baretzen eta argitzen ez diren bitartean, Orixek eta bere obrak ikurrin izaten jarraituko dute. Ikurrin guztiek, zerbaiten sinbolo diranez gero, literaturan, errealitatea haizatzuz, mesede baino kalte gehiago egin lezateke. Hala ere, batzutan ideia eta joera berezietako jendeak sinboloen pean lerrotuak agertu ohi dira.

Horrela, Orixek zenbait jokabide eta pentsamolde literario eta hizkuntzarekikoren erudutzat hartuta izan da. Orain baino lehenago noizpait gaitzetsi izan dut Lizardi eta Orixek aitzakitzat hartuta batzuegandik sortutako alderdikeria aldrebesa. Nere ustez, bi poeta idazle horiek gerla aurreko eginkizun eta pentsaeraren adierazpen nagusitzat hartzen dituztenek, gauza batean oker jotzen dute. Hain zuzen, garai hartako poesiararen altxoan haien adierazpena benetan nagusia izan zen; baina ez ideietan, ez eta ere hizkuntzarekiko ikusmoldeetan, haiek ez ziren (beren izkribu sortzaileetan behintzat) zenbaitek agertu nahi dizkigun bezalakoak.

Lizardi ez zen liriko "inoxente" lore-jale horietako bat; hontaz beste behin zerbait esan nuen. Ez eta ere Orixek batzuek nahi luteken bezalako poeta "herriko" (sasi-herriko) konplikaziorik gabea. Adibidez, eta beste gauzen artean, nik ez dakit batzuek Orixek zer ikusmolde dela medio euskera sabindarraren erudutzat har lezateken. Gainera, arazo horri beti euskeraren batasunarena nahasten zaio. Euskera sabindarra ez zen batasunaren aurkakoa; bateratu aldekoa zen, baina kriterio aldrebesekin (nere ustez aldrebesak diran kriterioez baliatuz osatua).

Batasunaren alde eta aurka dihardutenen kakurik latzena hortan baitatza: ez da, azken finean, batasunaren problema, nolako batasunarena baizik. Eta sabindarrek uste dute, hala dirudi behintzat, Sabinoren euskera onartzen ez dutenek, gizon haren beste ezer onartzen ez dutelako dela. Horregatik, ideologia baten zalantza ikusten dute euskeraren batasun problema baten baitan; gauzak oraindik gehiago konplikatzeko, pentsaera politikaren arazoiei erlijioarenak nahasten dizkiete.

Baina garaia etorria da gauzak bereixten hasteko; berdin, gerla-aurreko idazleen aipamena, haien eginkizuna behar den kontestuan ezarritik egiteko. Euskeraren batasuna, euskeraren eta hizkuntza horren jabe eta baliatzaile den herriaren iraupena, badakigu, azken finean, problema politikoa latza baizik ez direla. Hala ere, gai bati, orain hizkuntzari adibidez, aterabide zuhur eta sendoak itxuratu nahi zaizkionean, jakin behar da setakeria eta alderdikeria politikoa eta beste eratakoak bazterreraz uzten. Euskeraren azterketa historiko, literario eta soziologikoez izan behar baitute gai hontan aterabide eta planteamendu berrien sustentarri eta argibide, eta ez noreberekoitasun zikotz horiek.

Gai hauek Orixek eta bere obrarekin zer ikuste haundia dute. Orixek, alde batetik, gerla aurreko gizona da. Gerla baino lehenago bere poesien zatirik haundiena idatzitakoa. Beraz, gerla lehertu baino lehen ezagutzera emana zen euskaltzaleen artean; hauek biziki estimatzen zuten. Gainera, Orixek bere garaiko gizona zen; euskal bizkondeaz arduratutako abertzale batetik, kristau sutsu eta fededun bestetik. Eskubidea zedukan nahi zuena izateko.

Baina hor dago kaxoa; gizon bat bere garaiko adierazpen izan liteke, alde on eta txarrekin. Gai aldetik, forma aldetik, bere eginkizunaren balorazio iustu bat eman genezake; iustua, gure indarren eta jakitearen neurrian. Norbaiten lanari buruz zenbait iritzi agertzea onuragarri izan liteke; bai eta iritzi horiek kritikako direnean ere. Kritikak, argitzaile eta erakusle denean, gauzak asko

garbitzen baititu. Okerrena, ordea, gizon batetik eta bere lanaz ikurrin egitea da, Orixek eta Lizardiarekin sarritan egin ohi den bezala. Orduan ez baitago jaun haien ez izen, ez lanik ikuitzerik. Hau da: saindu bihurtu ditugu. Goleko hodei gorengoan baino gorago jarririk daduzkagu, eta orduan ez dago deus jakiterik, deus esaterik, deus erizterik.

Jokabide horrek, ordea, erreazio latz, bortitz eta justizia gabekoak ekartzen ditu. Zeren eta batzuek poeta horiek hainbeste go-raipatzen badituzte, besteek aitzaki hartzen dute haiei egurra emateko. Aldez aurreko iritzi absolutu bati, beste tankerakoa kontrajartzen zaio.

Orixekin, azken urte hauetan, horrelako zerbait gertatu da. Orixek, batzuetan, Orixek nahi dutena egin dute. Honelako edo bestelako agertu digute; bere aipamena, asko eta askotan, egia-aren aurka doazen gauzak esanaz egin da. Jokabide hori azken bolar hontan oso nabarmen ikusi dugu. Orixek, euskera latuaren etsai. Orixek, "benetako" euskal herriaren adierazpen; benetako euskal herri hori, tankera bakar eta mugi ezinezkoetan erroturik balego bezala. Eta horrela, beste gauza asko.

Horrekin batera, arrazoi eta iritzi zuhurrak aparte utzita, Orixeren aurkako malezia eta susmo txarrekin ere adierazpen zabala edukitu dute. Saindu zaharrak lurrera, berriak aldrebetara. Betiko zera hori: jenerazioen arteko borrruka, etabar. Abertzale zaharrek Orixek hainbeste aipatu ahal dute? Ongi zegok; kanpora orain! Joan dedila naize freskoa hartuz bere olimpoan siesta botatzera... Orduan hor dago besteak; arrabots eta deihar izugarriak bazter guztietatik. Kendu nahi dute, bere izena eta izatea deuseztatu nahi dituzte! Gerla moroari, anaia maiteok!

Bitartean, Orixeren obra gutxi irakurtzen da. Irakurri, oro har, oso gutxi irakurtzen baita. Hortik dator, neurri haundi batean, hainbeste aurreiritzi eta zuzengabeberia.

Orixeren poesian, irakurle soila-entzatzat, bi zati nagusi daude. Alde batetik, "Barne-muinetan" liburuko poesia barneko lirikoak, eta haien tankerakoak; bestetik, "Euskaldunak", euskal herriaren aintzinako biziera nekazari-az egintako poema epiko luzea.

Lehenengoetan, poeta kristau sinisidun baten gogoeta eta kezka, sinbolo zail eta landuen bitartez adierazita agertzen dira. Horrela, "Hundegi", "Utsaren antza", "Jainko biur nadin" poemetan. "Baru-Mendian" izentzat daraman poema, San Juan de la Cruz poeta mistikoaren estiloa eta imajinak nabari dira. Fedek, bere espresioan, ez daduka artesisirik; zalantzarik gabeko bertsoak dira Orixerenak. Jainkoaren billatze hortan, absolutoaz eta haren irudi materialetaz bat egin nahia garbi dago. Hizkuntza, zehatz eta berezia da; irudiketa erlijioso batean erabili litekeen egokiena. Euskera kultura, gainera, ongi ikasia, ongi berezia, izugarri landua.

Orixeren poesia erlijioso hori ez da biguna; ez da San Juan de la Cruz batena bezain sensuala bere izkutuko indar eragingarrietan, zuzenago baizik. Ongi pentsatzen jarrita, ez zait iruditzen haren influentziak Orixeren poesia erlijiosoari onik egiten dionik. Orixek badu gauzen aurrean, imajinen bitartez, ideiak eta burutapen filosofikoak adierazteko ahalmen bortitz bat, "Orainaldia" poeman ikusten den bezala. Oso interesgarria eta fiña poema hori.

Hungarria, bai ta ere, Xabier Lizardi zenari eskeinitako "Beti lagun" poema. Eta hortan, omenaldi bezala agian, Lizardi beraren estiloaren zantzuak nabaitzen dira; eta imajinak:

Nere aurretik, ibilli gabe igaro nan mendia, ikusi genin basora antzean loretan den sagastia.

Estilo hori bera nabari da, bai eta ere, "Argita margo" poeman:

Aldats gorakoan, oztoporik ez ta, [so goi urdiñari; aldats berakoan, oztopa bildu- [rrez; erne larratzari Eman lasaipide birikeri, eman [ari buruari.

—oOo—

Bi poetok konparatuz, Lizardi eta Orixeren artean bada diferentzia bat. Nik Lizardi gizon eta poeta urduri eta bilatzaileago aurkitzen dut. Ez Orixek bezain kultoa, agian, baina bai... kezkatuago. Orixek segurrago da; tinko dago, dirudienez, bere ideia eta moldeetan.

Orixeren poemen artean bada bat artikulatu honen hasieran aipatutako gauzekin zer ikusterik dardukana. "Berroandoko meza" deitzen da. Harrigarria, benetan, batzuetan. Lapurtar tankeran idatzia dirudi, bere "h" letra eta gutti. Ez gera orain istillu hontan sartuko; hori, azken finean, anekdota bat da. Bakar-bakarrik hauxe aipatu nahi nuke: Orixek euskalkiak ezagutu eta errespetatu egiten zituen; eta batzuetan erabili. Zergatik? Gauza horietaz aurreiritzirik ez zedukalako; dirudienez behintzat. Haiek, gerla-aurreko gizon kriteriodun haiek, gehienetan ez ziren garbizale, ez eta batasunaren aurkako. Nere iritzi (haien hizkuntza testig) disziplina politikari amore emanaz, eta garai hartako kriterio-bideak errespetatuz, beren iritzi partikularrak berretentara makurtu egin zituzten. Gaur hizkuntza beste modu batera taxutzen badugu ere, gizon haien enploxia ez da txarra! Ez zuten, ez, herrikoitasuna aitzakitzat hartu. Pentsatuko zuten, noski, herrikoitasunak ere, horrelako galetan, dakitenen kriterioak beharrezko dituela.

Orixeren "Euskaldunak" poema luzera paseaz, Nikolas Ormaetxea berak hitzaurrean garbi asko esaten digu bere nahia euskaldun guztiek konpreni lezateken euskera batean izkiritzea izan dela. Esaten du, bai ta ere (edonork irakur lezake), ameriketan bizitutako euskaldunak nafarrera mota batera jartzen direla azkenean, euskalki guztien artean ameriketara atzerriratukoantzat adierazgarriena delako.

Eta horren ondotik, gaia errematatzeke, honela dio: "Laphurtarrekin an bizi izan diran naparrak ordea, beurena utzita Laphurtarrena artzen dute... Ortza, eguzkaldara jotzen du erriak ere. Urrenik, Naparroa-n ari banaiz tokiz, ango gauzak iraultzen baitituz, ango keru apurra barkatuko al zait".

Garai hartarako, batasun joera baten zantzurik ezin garbiago adieraz liteke.

"Euskaldunak" poema, aintzina-ko Euskal Herri artzain eta nekazaria gaitzat hartuta egini dago. Orixeri ideia hura bururatu zitzaion, eta bere herriari eskein zezaiokian gauzarik hobereana bezala konplitu zuen. Biziera bati eta inguru batzuei zer nolako kera eta maitasuna zien garbi adieraten du lan horrek. "Artzuriketa", "Iru-leak", "Inauteri" eta beste horrelako zatiak irakurtzean, emozio berezi batek estutzen digu zintzurra. Herri zahar baten zantzuak, galduz doazen ohiturak! Zenbat gauza eta bizimodu atsegin betirako deuseztatzen...

Ni Uitzin belar-garaian, Sanjuanak aldean, noizpait egona naiz. Benetan, Orixeren irudiak dion bezelakoxe da:

Nafarroa zarrean Larraun-en Uitzin, belar goxo tartean eper-kabi iduri. Belardien inguruz kabi orren esi baso maitea dago, ikazkin-lantegi.

Bai; baina gure herria gero eta gutxiago da horrelako. Orixeren asmoa kunpli-eziña zen: herri bat bere bizitzako lan eta ohituretan agertu. Orixek erakutsi eta kantatu zigan Euskal Herria, gure nahi ala ez, benetakoaren zati bat bakarrik baita. Orixeren poema haundi hortatik, industrializazioaren zantzu guztiak falta dira. Hiri aundiak ere, azken aldera Donostia

ezik, falta dira; eta Donostia, protagonista haien bizitzan anekdota atsegingarri bat besterik ez da. Orixek herriaren baitan jartzen dituen ideia, uste eta jokaera moralak ere, Orixek berarenak gehiago dirala uste dut batzuetan zeharo herriarenak baino. Orixek herri hura sublimatu egiten zuen, bere irizpide eta usteetatik ikusten zuen... Bai. Denok egiten dugun bezala.

Hala ere, Orixek poema eder bat osatu zuen. Hitzak, esaerak, kantak, ohiturak, bildu eta erakutsi egin zikigun; gure, gure moldeetatik, lan horri jarraitu egin behar diogu. Beste ikusmoldeak, beste ideiak, beste ohiturak, argitu, izentatu eta jorratu egin behar ditugu. Ez dugu, gauza askotan, Orixek bezala pentsatzen, gure errealitatea besterik da. Adibidez, ez gaude konforme azken aldera Txillardegiren nobelari egin zikion kritikekin. Beste problema batzuen aurrean aurkitzen gera; Orixeren lanak, haren bizitzak, baldintza batzuk izan zituen. Gureak beste baldintza diferentek dituzte.

Eta, horregatik, haren lana errespetatuz, egin zituen gauza onak aipatu eta dastatuz, aurrera jo behar dugu. Geroak ez dezala esan "herri bat izan zen", baizik eta hats berria eman dizalogun iraundera, izan dedin. Aurrerabide berezi eta ausartak zailtasun guztien erdian moldatzeko kemena eduki dezan.


Batez ere, uste dut Orixeren lanak irakurri egin behar direla. Neri bere prosa ia poesi-hizkuntza baino gehiago gustatzen zait. Hitz lauz izugarri ongi izkribatzen zuten. Nik euskeraren jakitea neurri aundi batean berari zor diot, mutil-kozkor nintzelarik gurasoen erregalatutako "Urte guziko meza-bezperak" liburutik ikasi baintuen dakikidan euskal joskeraren sekretu gehienak.

Orixeren lana irakurri egin behar da. Beste gauzen artean, gure hizkuntza ikasteko tresna ezin eta aiseginagoa delako. Bestetik, alde edo aurka egoteko ere, gerla-aurreko idazle hobereenen ideiak ezagutu egin behar direlako. Eta, azkenik, denok Orixek zuhurki irakurriko bagendu, aurreiritzi eta uste oker asko zuzentzeko bidean jar gintezkeelako.

XABIER LETE



UITZI



OREXA




LA CASA DEL CAFE

Juan Irujo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801 Donostia





## BERRIAK

● Urriaren 1goan, hasiera emanen diote Zarautzen V JAKINTZA ASTEARI. Honako aste hau Zarautzko Club Deportivo delakoak eratu ohi du, Emilio Olazabal jaunaren zuzendaritzaren pean. Igande goizean, Julian Ugarte bertako seme pintore ospetsuak bere pintura lanen erakusketa aurkeztuko du Torre-Luzean. Aldi berean, Alvarez Enparantza arte kritikalaria mintzatuko da.

Biharamunean, astelehen arratsaldean, Alain Guy Toulouseko Unibertsitateko Irakasle jaunak, «Etor-kizuneko Unibertsitateaz» hitzeginen du.

Hilaren 3an., asteartean, beraz, «Mens Sana in Corpore Sano» izenaren pean, deportari buruzko elkarrizketa bat moldatuko da gaiari dagokion zenbait espezialistaren artean.

Asteazkenean, Jose Maria Eslava Iruñeko «Príncipe de Viana» antolamenduko irakasle jaunak, «Euskal Herriaren Kondairaz» mintzatuko da.

Ostegunean, aldiz, mahai biribila, «Gipuzkoako kultura, sozial eta ekonomia egoeraz».

Ostiralean, Donostiako Musika Ikastetxeko ikasleen saioa, Escudero jaunaren zuzendaritzaren pean. Hitzaldi guztiak erdaraz izanen omen dira, eta osteguneko mahai biribila, aldiz, euskaraz. Gutitxo, gure ustetan, Zarautz bezalako herri batentzat. Ez genduke nahi pentsatu ere, hau dela zarautzarrek jakintzaz duten zentzua.

Gaiak, bestalde, hedatuegiak agian, nahiz eta, aurrez, tituluek ezer guti adiarazi. Horrez gainera, gai hauek erantzuten ote diote, gaur egun eta udazken honetan bereziki, Zarautzen pil pil dagoen giroari eta problematikari?

● Urriaren 3an. hasteko dira Beasainen euskaraz ez dakitenentzat ikastaroak. Honako ikastaro hauek Beasaingo Alfabetatze Taldeak eratuak dira, Euskaltzaindiaren arduraren pean.

Urriaren azkenetan hasiko dira, aldiz, alfabetatze ikastaroak euskaraz mintzatzen direnentzat.

● Legazpiako Euskal Astearen barrena aurkeztua izan da Martin Ugarte «Saletxe» legazpiarraren liburua berria.

Liburu honi «On egiñaren obaria» deritza egileak berak, eta hitzaurrea —Legazpiako azalpena bezalaxe— Aita Onaindiari zor dio.

● Irailaren lehen astelehenetik, egunero da euskarazko meza Iruñen. Honako meza hau Jesuiten Elizan izan ohi da, Bergamin kalean, arratsaldeko 7etan.

● Jakin dugunez, Maria Usua izenez bataiatu berria da neskatilato bat Iruñen, bai eta legearen aldetik onartua ere.

Oraindik ez da asko Eibarren nahi izan ziotela haur jaio berri bati izen hori jarri, Usua/Usue/Uxue, alegia; baina erregistrotako arduradunak ez zuen horrelako izenik onartu, bera nafartarra delarik gainera, inork baino hobeto bait daki Nafarroako Ama Birjina Ujue dela, eta ez besterik.

Nonbait, Iruñeko Erregistrotako arduraduna ez da nafartarra, edota, bada ere, ez Eibarkoa bezain jakituna.

● Duela pare bat aste bidali zigun Iñaki Zubizarretak Donostiako Herri Irratian eratu ohi duen GAURKO EUSKAL KANTARI dagokion Abuztuko zerrenda. Ez dugu betarik izan lehenago aipatzeke. Bihoakizu ba, beranduegi izanen ez delakoan:

1.—MARTIN LUTHER-I KANTATA, «Ameslariak». 2.—ATAERRA-

TZEKO JAUNA, Benito Lertxundi. 3.—LORE GORRIEN BALADA, Xabier Lete. 4.—ITAKULIN, Pantxo eta Peio. 5.—EUSKERA OI EUSKERA, «Paxo». 6.—OHITURA ZAHARRAK PIZTU, «Urretxindorrrak». 7.—LORETIXOA, Benito Lertxundi. 8.—NUN DA NEKAZARIA, Jabier Madina. 9.—AMONATXO, «Erlak». 10.—BIOK EZAGUTZEAN, «Unai».

Behar bada, euskal kantaren giroan izan da joan deneko abuztuan berezitasun aipagarri bezain penagarri bat, ez dela batere disko berririk atera, alegia.

Bestalde, aurreko hilean atera zuen «Paxok» bere lehen diskoa. Single bat dugu, Iratzederren EUSKERA OI EUSKERA eta LURRAREN PIAN herri kanta. Azken hau ezin daiteke, nonbait, kanta berri bezala har, nik dakidenez gutienik Sallaberryk aipatzen bait du bere hants Populaires du Pays Basque Baiona, 1870) deritzan bilduman.

Hala ere, «Oleskariak» zortzikotean eta bere izen bereko kanta taldean halako arrakasta izan zuen Francisco Olazabal «Paxo», ongi etorria izan dadila gaurko euskal kantara ere, inor gutik bait daki berak bezain goxo eta hunkigarri kantatzen.

## AIPAMENAK

● Iraila joan zaigu eta uda ere bai, noski, inoiz etorria bada behinik behin. Eta udarekin batera amaitsuak dira nolabaiteko lasaialdiak, atsedean egunak, igande eguzkitsuak eta oporraldiak, batik batik. Gehientzat behintzat, zeren, komertzioan lanean ari garenok oraintxe hasiak gara oporralditan pentsatzen. Hauxe hau aldrebes ibili behar hau!

Oporralditan, edota, hobeto esan, udan, sakabanatzea gertatu ohi da. Gutxi edo asko eguneroko ohitura eta bizimodua aldatzea. Mendira zein hondartzara, ostatur nahiz kanpinez, zerbait ikasi edo pipa jotze aldera, amaikatxo ibili zaigu hor zehar ohizko hildotik ihesik. Irailak, eta are agehiago azkenik Urriak, garamazkite berriz lehengorra, lanera, ardura pittin batetara, betiko hildora.

Itxura denez, gure lanaren motaren gatik oporraldirik hartu ahal izan ez dugula ondotox bide dakien irakurlearen batek, postal bat bidali digu Köln deritzan herri batetik: *Lanean jarduten zaretzen gizajo horiei, agur bero bat Alemaniatik. Gizon argiak, deuschlandar hauek! Bainan, badago, bai, argirik Eibar aldean ere.*

Horra ba, azken bolada honetan tontorik baino ez zegoela uste genduen. Zitekeen argi bakarra «ex-komulgatua» eta gainontzeko lelo para edo, berbataiatua. Ea ba noiz presentatzen dizkigun irakurle horrek Eibarko gizon argi horik.

● Jendea umore oneko itzuli bide zaigu lanera. Mahai gainean dugu beste irakurle baten gutuna. Ez dakigu txantxetan, benetan ala adarra jotze aldera datorren. Hitz leunegiak ez ote galdera soil bat egiteko? Agian, erantzunaren jabe dela dirudi, eta, zorongo zorongo, beste asmoren batez datorkigula edo.

Amatiño Jauna: Zure atal bizi eta irakurgarri hortan irakurria naizenez, dana edo gehiena dakizu euskal toponimiaz. Maisu azaldu zera beinipein.

Oso harritu naiz «Kanta Lehieketa Olaztiarrak» jardun dezunean. Behin eta berriz aztertu det Euskalerriko mapa eta ez det bilatu «Olaztia» herria. Ziur asko zuk jakingo dezu nun dagoen herri hori, zuk aipatu dezuta.

Ene irakurle zorrotz hori: Ez dauat lehen ahapaldiari erantzunen. Ez diakiat nondik nora hatorren, eta bada ezpadan ere... Dena den, batzuek fantasmak ikus-

ten ditiate non-nahi, eta beste zenbaitekk maisuak. Hi azken haurtarikoa haut, itxura denez.

«Olaztia» edo «Olazti» (?), Nafarroan dagoen herri bat duk, Burunda eskualdean, Altsasu ondoan eta Urbasaren maldapean. Irakur ezak, nahi baduk behintzat, zer dioen honetaz Jon Etxaidek Uri eta toki-izen batzuen euskal-izendegia, orain arte bildutakoan osagarri izeneko artikuluan (EGAN, 4-6. 1961 - 223 or.):

OLAZAGUTIA, Azkue'k jazkera ofizial onekin dakar, baiñan bertakoek OLAZTI diote. Ageri zaharretan OLAZGOITIA. A pika OLATZAGOITIA ogutziko zen.

Bestalde, jakin ezak ere, «Lehieketa olaztiarra» delakoa ez dudala nik asmatu, «Cansión Olaztiarra» izena antolatzaileek berek jarria dela, baizik.

● Eta umorerik galdu gabe, oraintsuan esan digu polita Anjel Zelaietak «Euskaldungoa» deritzan bere atalean (ANAITASUNA, 240 alean). Irakurleak ikus beza, merezi ere benetan merezi bait du:

ZERUKO ARGIA astekariaren 492 alean inondalako goraiapenak egiten zituan «Amatiño»k ETOE kolezioaren alde. Bere eskribuaren barrentxoan ETOE kolezioa beste euskal editorialekin konparatu nahi dauala nabari da... beste guztiaren exenplutzat ipintzen dauskula dirudi... ETOE saileko liburu bi bahituak izan direlako. Baina hau, kasualitatea eta kasualitatea nahasturik, demagogia erraz bat egitea da.

Nik neuk, aldiz, honako hitz hau esaten nituen harako alean:

Honako honekin bi dira Etor Editorialari bahitu zaizkion libururak. Lehena, Gurutze Ansolarena «Euskal Herriko Ekonomiaz», eta bigarrena Gorka Trintxerperena hau («Zorion baten zainak»). Hori, Etor Editoriala «ez-dakit-noren eskutan dagoela, eta ez Gurutz eta ez Patxi ez direla idazle «konprometitua». Balira...

Irakurleak erabaki beza aipatutako hitz hau inor harrizteko hainko «inondalako goraiapenak» ote diren. Zelaieta jaunari gehiegikeria iruditatu zaio. Berak nahi lukeen editorialaren alde balitz gutitxo iriztiko zitzaion segurutik. Betiko leloa, neurri bi, bata guretat eta bestea neretzat, ORIXE handiak esaten zuenez.

Baina ez da hemen hauzia amaitzen, bai zera! Zelaietak jarraitzen du esaten, eta arrazoi du (listopasatu guztiak bezalaxe «ez genekina» irakasten datorkigu), familia batetako seme bat gartzelaratzen dutenean, ez duela honek esan gura familia guztia seme hura bezain «konprometitua» denik. Edota, euskal aldizkari bati 25.000,—ptako. multa jartzten diotenean, ez duela horrek esan nahi gainontzeko euskal aldizkariak berdintsu ari direnik.

Horrenbeste jakin, eta ahaztu egin zaio, nonbait, Zelaieta jaunari, arau berberorretaz, aldizkari bati publikatu duen artikulua bategatik multa jartzen diotenean, horrek ez duela esan nahi artikulua horren egilea idazten duen bakoitzean konprometitzen denik, ez eta gainontzeko idazleek zer ikusi dutenik, eta are gutiago aldizkariak berak, zeren —Zelaietak dienez—, hau kasualitatea eta kasualitatea nahasturik demagogia erraz bat egitea bait da.

Dena den, nik ez dut uste Zelaieta gauzak esan esatearren esaten dituen gizona denik, eta agian, nik ez dakidanarren, Zelaietak berak esan diezaiguke —ez bait da alferrik karreradun gizona—, zergatik zenbait gauzari gustoko ez denean demagogia eta kasualitatea berriz, engaiamendu eta errealtate.

Azkenik, Txikito, nik ez diat ETOE eredutzat jarri, ez eta gonbaraketarik buruzagitzat hartu. Hi, nonbait, hurbilago ibilia haiz, eta, antza denez, azken konplejotxoak astinduko ezinik edo. Baina, hori hire arazoa duk, ez nereak.

Dena den, txarrean ere, Errioxa aldean esaten omen dutenez,

hobe da bai halakoak irakurtzea itsu izatea baino. Lekarik bai ote aurtten Mallabian?

## LIBURUAK

● Azkenik azaldu zaigu Dominique Peillen Parisko idazle zuberotarrak argitaratzea zituen noleatariko bat. Honako lehen honi (lehen zeren, bigarrenen bat ETOE argitaratzeotan da) «Tizal Gorría» deritza, 1966 urtean «Domingo Agirre» Nobela Saria irabazia da, eta Zarautzko Itxaropenak argitara emana.

Nobela ederra, gihartsua, halako mezu bat duena. Hariari hartuz gero interes liluragarri batetan irakurlea murgilarazten duena. Dominiquek lehen ere azaldu zigun bere maisutasuna Gauzez ibiltzen dena (Kuliska Sorta, 63 zenb.) delako nobela hartan, eta oraingo honetan, berriz, mamiz zein eraz deitzen diote, eta komeni denean, eta moldez arras gairiditu duela harako hura uste dugu benetan.

Goi maila honek —hizkuntzarekiko batik batik— ematen dio, nonbait, beste harez ez zuen zailtasuna irakurle zehar. Elkarrizketa edo dialogo ezak astunazten du, bestalde, irakurraldi zenbait, irakurleak bere ahaleginetan atsedean guti aurkitzen duelarik, zenbaitean, gaiari eta mamiari baino, hizkuntzari berari arreta gehiago eman beharrez.

Zailtasun honen funtsa edota arrazoi hiztegi dago soil soilik. Dominique Peillenen hiztegi eder eta joria arrotz gertatzen zaio irakurleari, hainbeste hitz ezezagun nondik atera daitezkeen asma ere ezin duelarik, orrialde oso-osoak ilun samar gertatuz, hiztegi (Lhanderen hiztegia gutienik) batez baliatuko ez bada, behinik behin.

Nerekiko, batasunetan ari garelarik, nobela hau irakurri ondoren uka ezinezkoa deritzat, batasunaren eragozpen eta zailtasunik handiena ez dagoela ortografian, deklinabidean, ez eta aditzean ere, joserka eta hitzetan baizik, edota, behar bada, hitzetan soil-soilik.

Esate baterako, Kultura eta bertze Egiptari bakarrik zor deraukogu edo Aitak ez zerautan deusik erraiten irakurtzen badugu, ez dut uste irakurlea den inor euskaldunek uler ez dezakeenik. Baina, aitzitik, Anaiak egari eta esprabi zituenak oroitzen zaizkit irakurritz gero, zenbat irakurlek jakin ote dezake esatera honen zentzua, nahiz eta aditza nahiko argia izan? Euskaldunak gairidituko ahal du inoiz hizkuntza problema, idazlea zein irakurlea sorkunde lanetan abiada daitezken?

ITZAL GORRIA. Dominique Peillen. Kuliska Sorta. Zarautz, 1972.


## AMATIÑO



UITZI



INAUTERI



HERRI DANTZA OREXAN



## Kapitalismoa Krisian

# Azterketarako zenbait puntu

Gaur egun sistema kapitalista, ekonomia arazoetan batipat, kinka batetan arkitzen dela, aztertzaile gehienek aitortzen dute. Krisi arazoak, sistema kapitalistak gainhengo gauzak ziren eta ez gaur egungoak.

Baina horra, bapatean jendea bekozkoarekin, ekonomiaren abiadura zeharo makala dela-eta. Horra, krisia berriro ere sistemaren sustraiak ihartu nahirik. Oraingo honek, izan ere, sakona dirudi. Ezin gaitzke, ez, azalean gelditu. Muinari eldu behar diegu. Sistema kapitalista historian zehar nola edatu eta zabaldu den ikusi behar dugu. Kapitalaren metaketan bertan, zer aldaketa eman diren ikusi behar dugu.

### 1.—MAKINAK PRODUZITU

1929 urtean kapitalismoak ikaragarriko krisia nabaitu zuen. Krisia horrek gauza bat adierazi zuen argi eta garbi: kapitalismoaren aldi bat bukatu zela eta beste bat astera zijoela, alegia. Zeri ematen zion ba bukaera? Ordu arte, kapitala berritzearen zabalaketa, mota berezi bateko industrian finkatzen zen. 1929-40 arte kapitalismoak makinak produzitzea edo egiteari ekin zion. Kapitalaren metaketa, duak zituela zirudien. Ekonomiako klasetan ez zen puntu horretaz azken urte hantuan ezer asko mintzatu. Historiako klasetan bakarrik aztertzen zen krisi arazoa. Azkundera, desarroilloa eta abar ziren modako itzak. Krisi arazoak ledo kapitalismoari zegokion eraz egiten. Langileriak gastatzen zuena makina horien produzioaz egiten zen. Aldi hartan, langileriak bizitzeko behar zituen gauzak, berri, ez ziren kapitalismoaren moduz nekazaritzatik eta artesaniatik zertorkion, ots, kapitalismoa sartu ez zen mailetatik.

Beraz, aldi horretan, langileriak dirua kapitalista alorrean irabazten du baina oraindik kapitalismoa ezarri ez den alorrean gastatzen. Horrela bi alorren artean, bat kapitalista eta bestea ez, arretan bat sortzen da. Horregatik kapitalistek ahaleginduko dira zenbait nekazari produktoren salneurria jeisten. Adibidez, gariaren salneurria jetxi ezker langileriarri jorjala zertan jasorik ez zegoen. Gariaren salneurria jeisten ahalegintzen ziren, ain zuzen, ez langileari laguntzeko, jorjala bajuei eleratzeko baizik. Alaz ere, esan dudana ideia nagusiari elduaz, langileak ez zuten produzio kapitalistak egiten zuena gastatzen. Bere kontsumoa, produzio kapitalista ez zen sistemari eltzeke edo iraun erazteko zen. Beste modu batetara, kapitalistek diru metatzeko ez zuten langileriarren kontsumo beharrik. Produzioko makinak egitea aski zitzairen. Makinak enruz saltzen ziren. Beste kapitalista erosle asko zen.

Baina honek bere neurriak badi-tu. Azoka ez da ase ezinezko gauza bat. Aldi batetan erosleak il ugari izan ditezke baina gutxi ere bai ordea. Horixe gertatu zen 1929 urtean. Makina gehiegi produzitzen zen. Kontsumoak ez zion produzioari jarraitzen. Bien artean desegokitasun bat zegoen. Eta ain-zuzen, hauxe da kapitalismoaren kontradizio sakonenetakoa. Konkurrentzia bitarteko delarik kontsumoak eskatzen duen baino gehiago produzitzen da. Desegokitasun hori sakontzen danean krisia berehala datorke.

### 2.—KONTSUMOA INDUSTRIALIZATU

1929. urteko krisiari erantzutearren Roosevelt lehendakariak eratu zuen New Deal deritzan politika

eta fazismoa berak egin nahi izan zuena ez ziren erabaki batzuk besterik. Bigarren guduak arnasa pisakat artzen utzi zion sistemari baino beste ezer ez. Kontradizioak be-  
rean jarraitzen zuten.

Bigarren guduaz gero kapitalismoak sistema bezala iraun zezan beste biderik ez zuten produzioaren oinarriak zabaldu baizik. Esprika dezadan, pisakat bederen, delako baiezen hori. Ezinbestekoa zuen alegia, beste produzio mota berriak billatzea. Lehen produziorako makinak egiten zituen bezala, orain beste gauzak egin beharrean arkitzen zen. Produzioaren oinarriak zabaldu behar ditu. Teknika berriei esker egingo du egin ere. Produkto berriak billatuko dira.

Bat bederaren kontsumorako gauzak izango dira produkto horiek. Lehen, goian esan dudana bezala, langileria bere kontsumorako kapitalismoa ezarri gabe zegoen alor edo sailetatik asetzen zen. Orain, kapitalismoa alor horietan sartuko da. Kapitalismoa beste sail berriak arkituko ditu. Bat bederaren kontsumoa kapitalismoaren atzaparretan eroriko da: kotxea, radioa, jateko gauzak t.a.

Bestalde kapitalismoa ez da beste sailetan bakarrik zabalduko, behar berriak ere sortuko ditu. Gauza berri askoren beharra nabai eraziko dio jendeari. Irabazbidetarako bide guzietan baliatuko da.

Gauzak horrela direlarik, kapitalismoan aldakuntza aundia eman da. Lehen produzioa determinatzen zuena makinak egitea zen. Orain berriz, ekonomiari eragiten diona, kontsumo ondasunak egitea da. Azken urte hauetako kapitalismoaren azkundera ondasun horiei itsatsirik bizi da.

Kapitalismoa beraz, beste maila batetara iritxi dela esan daiteke: kontsumoko ondasunak industria-egitea edo kapitalismo industria-leria, alegia. Gizarteko egitura eta ekintza gehienetan errotu dela esan ditekete. Gizonaren ekintza asko irabaziarenean legepean erori dela esan ditekete. Baina, oraindik, kapitalismoak badu leku beste zenbait sailetan. Noiz arte iraungo ote du? Kapitalismoak beti arkituko ote ditu alor berriak? Egite eta desegite horretan ez al dago bere iraunkortasuna? Bere irauteak, krisiak jasan al ditzake? Galdera asko egin ditekete. Oraingoz, hauek aski dira. Datorren astean, hauei eta beste batzuri erantzuten ahaleginduko gara.

Elustondo.

## Italian ere sindikatoak indartsu

Langileriarren historia oso gutxi ezagutzen da, eta Frantzia, Alemania eta Ingalaterraz kanpo, are gutxiago. Gaur Italian barna abiatuko gera, izan ere telebisioak, une oro, hango pakarik ezaren berri ematen digu, eta sindikatoek zer ikusirik badutela ere aitortu beharrean gera.

Frantzia, Ingalaterra, Alemania baino beranduago industrietan zai-gu, eta langileria ere proportzio berdinean elkartzen. Igarotako mendearen azken aldera ematen dira lehen pausoak, eta 1906 garrenean langileen elkarteak, C.G.L. sortarazten dute sozialista alderdia bitarteko delarik.

Gerla garaian, sozialistek ezeko ematen dute, eta ondorenean krisisa sumatzen da Italian zehar. Gerorago ordea, bigarren gerla bitarte faszismoa nagusitzen da. Eta dakizutenez, teoriarik eta praktikan gertatu denez, faszismoak korporatibismo bideetik langileriarren indarrak desegin ditu. Produzio higiduran ugazaben eta langileen interesak elkarrekin lotuak daude: «Ez kapitalismorik, ez komunismorik» ohiukatuko dira. Baina Estatuak langileria zapaltzen du eta kapitalismoaren murrizketan jartzen.

Bigarren gerlaren azken aldera, 1944 garrenean sindikatoak elkar-tzen dituzte, langileriarren bantzeak ez bait du nehorrentzat ezere ondoren onik sortarazten. Horregatik C.G.I.L. Bertan sozialista eta komunista dituztu gehientsuenak, eta kristau sindikalistek ez dute begi onez ikusten elkarte berriaren abiadura.

Horregatik, 1948 garrenean, Togliattiren aurkako erasoaren ondorenean huelga orokorraren, jeneralaran, alde deia egin ondoren, kristauak ez dute parte hartuko. Lehengo elkartetik alde egingik, F.I.L., Lanaren Italiar Federazioa sortarazten dute kristau eta errepublikanoek. Geroztik, C.I.S.L. ere sortuko da, eta langileriak bi bide ezberdinak hautatuko ditu.

Urte zailak 1960 garrendik aurrerakoak. Lanik eza sumatzen bait da bai etxegintzan, eta baita tekstil eta burnikien lantegietan ere. Oraindik gogoandik gogoan dadukagu, duela lau urte F.I.A.T.ko ehun mila langilek huelga luzean sortutako burruka.

Labur beharrez hiru momentu berezi genitzake:

—Gerla ondorenean «Confederación General Italiana di Lavoro» deritzana.

—Ondorenean, zatiketa, sindikato

bakoitzak bere bideetik jarraituko du.

—Azken lau urte hauetan langile indarrak elkartzeari ekin diote. Ekintzak zuzenean eta elkarturik antolatuz. Baina badago lanik asko elkartasun hau sortzeko.

Zaila da, sindikato bakoitzaren araudia irakurriaz nolabaiteko kutsua hartzea. Sistemarekin ez daude konforme, baina politiko partidoekin oso elkartuak agertzen dira. Salvador eta Almendrosen iritziz (panorama del Sindicalismo Europeo 132 garrenean), konfederazioa kapitalismoaren aurkako sindikatotzat joenezake. Kristau errepublikanoen giroan sortutakoa, berriz, reformazale antzeko. Eta azkenik U.I.L., bien tartekoa, reformista gehienbat.

Jendetza aldetik, Confederazione Generale Italiana di Lavoro ia lau miloe bazkide ditu. Confederazione Italiana Sindicati Lavoratori sindikatoek berriz, bi miloeterdi pasiak eta konponketa zaleak miloe terdi. Ezkertiar indarrak indartzen dihoaz, baina gobernuen ez dute nagusitasun nabarmenik lortu.

Antolaketa arloan. Bi kriterio edo molde erabiltzen dituzte: bata industria mueta berdinekoak sindikato barruan elkartuz, eta bestea herri mailan, jendea elkartuz. Koordinazio aldetik du honek garrantzia.


Sindikalintza, ordea, lantegi mailan burukatzen da gehienbat. Sindikato bakoitzak bere sekzioa antolatzen du lantegi barruan. Uga-zabek ontzat ematera behartuak daude. Lantegi koskorretan berriz, berrogei langiletik beragoko lantegitan ordezkari bat da sindikal zeregina betetzen duena.

Lantegi mailan burruka beharrezkoa da, eta lantegiz kanpo ere bai. Egunetik egunera, sindikatoen alkartasuna gehiago sumatzen da.


Teorian sindikatoak erabateko askatasuna gordetzen dute, baina politiko partidoetan bere eragina ezartzen dute. C.G.I.L. itzal handia du sozialista eta komunista partidotan. C.I.S.L. Kristau Demokraziaren barruan eta U.I.L. errepublikano eta sozial-demokraten artean.

Ez dakit gauzak argitu beharrean gehiago nahastu ez ote ditudan egin. Baina hauxe ikusten da garbi: askatasuna, bakoitzak bere sindikatoan lan egiteko askatasuna, demokrazia giroan, halamoduzkoa bada ere, lan egiteko posibilidadea. Gutxi ahal da?

Mikel Ugalde



«KONTSUMOAK EZ ZION PRODUZIOARI JARRAITZEN...»



BAR

# AURRERA

ITXIA EGONGO DA URRIAREN 2TIK-26RA ARTE. GURE JENDE ONAK JAKIN DEZAN ADIERAZTEN DUGU

Urbieta kaleko 12'an

Urrut.: 412578-411528

— DONOSTIAN —

## “Urria” MAUKA OBEA!!!

30 egun Logelarakoak, tresilloak, eser-etzan-lekuak molde-egiturak etengabe eraberritzen

Eraman eta ezarri debalde Probintzi barruan

DONOSTIAN

Moraza 3 eta 14nean


IRUNEN

San Marzial 12 nean


## Amuebladora Comercial HISPANIA

Probintzi osoaren zerbitzuan





TOLOSA



BAZTAN



PASAI

tolosa

DONOSTIA

Udako azken opor egunak bukatzen ari garelarik, berri ere gure etxeari heldu beharrean aurkitzen gara. Herritar gehienak gurekin ditugularik on izango da dei bat egi-tea guztioi.

Laster, 18an hain zuzen, ikastola irekia izango da, eta denek dakizuen bezala, lekua, Sacramentinoek eskeini dizkiguten geletan. Lehenetik esanik zegoen bezala behoko txaletoko haurrak, parbularioak alegia, goian bilduko dira «basikoekin».

Hau horrela esanda gauza erraza izango dela dirudi; baina bada zer eginik eta ez guti. Ahal duzuen guztiok, eskeini behar duzuen laguntza, ikastola aurrera ateratzeko. Komisioetan sar, eta ekin; hala ere ez da gehiegi izanen.

Komisio hauek zuzentzen dituzten pertsonak J. I. Elozegui eta Luiz Zeberio dira ikastolako Juntaren aldeatik eta Nekane Urteaga eta Asentxio Hondarribal, Lizardi aldeatik. Beraz berekin egotea komeniko zaizue; lanaren banaketa berehala eginen da eta guztion artean errazago izango da noski.

Batez ere herriko industria eta komertzioari deitzen diogu, beren diru laguntza eskain dezatzin. Laster laguntza horren bila joango dira eta, otoi ez aterik hitxi, baik eman esku-zabalik zuen babes baliotsua. Badakigu non emana izaten duzuela, baina ikastola gurea da behintzat; Guziona, inongo giza-mailarik gabekoa noski, eta danok ukan behar dugu aukera, haurrak bertara eramateko. Hau horrela gerta dadin, ikastola merketu beharrean gaude, bestela ikastola klasista izanen da ezpairik gabe.

Hau batez ere inongo laguntza ofizialik ez duelako da horrela. Baina euskara salbatu nahi badugu, guk geurok lagundu beharko diogu, zeren ez da inor kanpotik etorriko, gurekin errukituta laguntza berezibat ematera.

Beraz batzuek sakela arinduz, besteek beren lana emanaz, eta zergaitik ez, beste batzuek biok betetzen dituztela, ez dago egin ezirik noski.

Idea batzuk martxan daude eta zuk bizkarra arrimatzea falta zaiku.

ASKALEKU

baztan

MUTIL-DANTZA

Aurten baztandar mutil-dantzari-ek beren eskualdeko mugetik aterata Baztango dantza leku aunitzetan erakutsi dute. Arizkuago dantzariak artean bi elizondar Maurizio txistularia buru dutela ari izanak zaizkigu lehenik Iruñen San Fermin bihararunean «Pabellon Anaitasuna» deitzen den extean eta Nafarroako bertze dantzari-talde anitzetan artean. Baztandarrek bi dantza erakutsi zituzten, Muxikoak eta Sagar-Dantza. Gure dantzak eta bertzeak ere gustagarriak izandu ziren.

Gero Uztailaren 14an Españako Telebisioak izan zitzaizkigun Arizkunen eta bai beren «aparaxuekia» mutil-dantzak hartu ere. Baztandar dantzariak Muxikoak eta Tellerinek erakutsi zituzten eta orain Telebisioaren bitartez denek ikusten ahaliko dute Baztango Mutil-Dantza.

Abuztuaren 13an Donibane Lohitzunen berriz ere ari izanak dira, «Jai-Alai» frontoiaren sekulako dantzaldia eginik han agertu zizutelarik: Agurra, Muxikoak, Tellerinek, Xerri-Begi, Biligarroarena, Sagar-Dantza eta zortzikoak. Arizkundarrek sasoi ederrean xarmanki dantzatu zuten. Besta hortan ere aritu ziren Donostiako Goizaldiakoak, Zuberoako Altxaiko dantzariak eta Donibane Kantiari-taldea.

Ez dira hortan akitzen gure baztandarren dantzaldiak. Gipuzkoako Ordiziako herrian Irailaren 2tik 10era euskal-kulturaren astea eginen da eta aste hortako 3an igandearrekin, ordiziatarrek euskal-dantzarien biltzar haundi bat ospatu zuten, hanalan dantzari-talde bere-

hartan bildurik Gure baztandarrek ere hantxe aritu ziren bertzeekin batean. Goizean dantzari guztiak Ordiziako karraketan barna itzuli bat eginik talde bakotxa beren soñulariekin eta beren dantzak erakutsiaz. Arratsaldean fuboleko zelaietan berriz aritu ziren. Plaza bete bete jendez eta denek euskal zaletasun haundi bat agertzen zutelarik. Baztango dantzariak arrakasta haundia ukan zuten, Muxikoak, Telleria eta Zortzikoak dantzatu eta beren trebetasuna ere ongi aski erakutsi zutelarik. Gero Ordiziako Karrika, plaza eta ostatueta ere Maurizio txistulariaren soñuarekin baztandarrek ordiziatar neska-mutil gazteekin batean elkartasun ederrena han izandu ginenak egun goxo baten oroitapena ekarri dugu guren etxetara ordiziatarrek egun eder bat iraganik.

Baztandarren eginkizunak oraindik ere gorago doaz. Donostiako Turismo Etxeak antolatutako «Fiestas Euskaras» deitzen diren euskal festa hoietan ere ari izanak dira. Irailaren 2an Trinitateko plazan lau gizon baztandar aritu ziren «Kanta Zahar» bestan. Baztandarrek, Gipuzkoarrak eta Zuberoarrak aritu ziren Euskal-Herriko kanta zaharrek erakutsi zituztela. Baztandarrek kantatu zituztenak huna hemen: «Mendi gainean bi pago», «Andere mustatz», «Aitef eta Amak». «Galaitxo-Txiki», «Lili bat», «Otxalde eta Etxahun» eta gehiago ere. Gure Maurizio txistulariak soñualdi xarmanka eginik «Ezta Soñua» eta bere bertsoak ere agertu zituzten. Zuberoarrek txirula soñu eta beren lurraldeko kanta zoragarriak erakutsi zituzten Denen ohoretan txalo eta esku-zarta ederrak egin ziren.

Irailaren 9an berriz ere baztandarrek eta oraingoan mutil-dantzariak Maurizio txistularia denekin aintzindari eta beti bezala Felix atabalaria laguntzale ginuelarik. Egun hortan Luzaidetarrek ere Donostiara etorri beharrik ziren, hoiak ere beren sor-lekuaren dantzak erakustera, baina denbora txarra zalgakotz ez ziren etorri eta hortaz baztandarrek bakarrik aritu ziren. Gure dantzariak agertu zutena hara hemen:

Agurra, Muxikoak, Telleria, Xerri-Begi, Sagar-Dantza, Biligarroarena, eta Zortzikoak. Gehiago ere dantzatzeko zuten zuzen erasandean, euriak beste guzia ondatu baitzuen. Jende aunitz Trinitateko Plazan eta bai txaloak ere gure dantzarien ohoretan.

Aurten Baztango mutil-Dantza leku aunitzetan erakutsi dugu eta gure dantzak daukan nortasuna eta errespetoa pendeen aintzinean agertu da. Segi hola hola.

M. IZETA

legazpia

EUSKAL JAKINTZA ASTEA

Irailako Gurutze Santuaren jai ospatuaz, Udal-Batzaren babesean antolatuta zuan, Irailaren 11tik 17ra Legazpin (Euskal Jakintza) lenengo astea, Kimu-Oargik.

Aste garrantzitsua, euskal jakintzari dagokionez. Izlari ospetsuen mintzaldi sakonak, asiera emateko. **Illak 11, astelena**  
Barandiarantar Jose Migel jauna: enda-izti, ta euskal jakintza gaiak aztertuaz. Itzaldi mamitsuen bitartez, zeazki euskal erriak antzifatik dakarren jakintza osaturaren zaletasuna adieraziaz.

Eliz nagusiko gela andia entzulez gainez zalarik, gogotsu txalotua izan zan (gizaki txikia izan arren) jakituriz aundi, ta ospetsua degun Jose Migel. **Illak 12, astearte**  
Erriko seme Larrañaga tar Iñaki jauna: gizarte ta dirutza aldetik, gaur egun, euskal erriaren egoera, ta ondorenaren etorkizuna sakon aztertuaz. Tamalez, langintza, ta ikaskintza aldetik degun atzerapen nabarmena, argiro agertu zingun, eta euskal erriari barrandiko era-berritu bat ez badiogu ematen, etorkizun illuna aurkeztu zingun. Bakoitzak al duen eran kementsu saiatu bearra degula adieraziaz. Itzaldi garrantzitsu ta sakona, erritar Iñakik eskeini ziguna. Jendetza aundia entzule zualarik, goresmen txalo ugariz ordeindua izan zan izlari trebe auxe. **Illak 13, asteazkena**  
Arratseko 9 eta erdieran (Ane-

xa) baleta, aldi bereko ertilan ikusgarriak eskeñiaz. «Eslea» antzokian ikusle ugari bildu zalarik, txalo sutsuak jaso zituzten beren dantza iaioen gaitik.

**Illak 14, osteguna**  
Agorreko Gurutze Deunaren eguna: Egun sentian goiz-erriak. Arratsen erriko enparantzan errimeri alai ospatzeko asmoak zirana, eguraldi maltzurak, bere zitaikeriz moztu zingun asmo atsegingarri au. **Illak 15, ostirala**  
Karmeldar Aita Onaandia jaunaren itzaldi atsegiña. Gai berezi bat bazuen Aita onetxek Legazpiko erriarentzat. Erritar, Ugartetar Martin, idazle trebeak idatzi duan (ON EGINAREN OBARIA) izeneko liburuaren agerketa, ain zuzen. Itz-aurrea, Onaandia berak egoki asko egiña bai du. Izlariak goresmenez aipatu zituan idazle onek dituan irabazkin txalogarriak.

Axatu ederrik eman ziotzan, idatzi duan liburu xotil onen arian. Ea nola ditekean, alde batetik basterriaren ardura, bestetik lantokiko orduak beteaz gain, antzifako gert-irudi tolesgabea eskeintzen digun 205 orri-aldeko liburu atsegiña idatzi.

Goresmengarri dira bai Martinef dituan idazlanerako gogo bizi ta egokitasuna. Ez daukagu liburu au eskuan artu basterik, zeñen euskera garbi, ta irakur-errexean idazten duan konturatzeko. Zabaleta baserrira ezkondu, ta bizi izan zan (Arriantxo) deitzen zioten Arsuaga tar Jose Domingo (sasi-sendagille) aipatuaren bizitako gertakizunen berri, apain idatzita eskeintzen digun liburu degu au. Ez da idazlearen burutazioz egiña. Egizatko gertitudien urratsak dakazkiana baizik. Bukaearen bazuan idazleak, baskada, ta txalo goxorik gela beanean zegoen entzuleen aldetik, denak ao batez goresmen-zorion be-roak, apaltasunaren eredu degun Martini eskeñiaz.

**Illak 16, larunbata**  
Arratsaldean aurtxoentzako jai-alde bereziak. Gauen pelota jokalari garrantzitsuak.

**Illak 17, igandea**  
Egurdian: Erri-eresbatzaren euskal kutsuzko jo-alde bereziak. Laja trikiti-laria soñu ta panderoz. Erriko txistulari, ta Itxaropena, ta Umetxoak, dantza taldeen saio txalogarriak. Lasarte ta Lizaso bertsoariaren saioa, ezin egin izan zuten enparantzan, azken orduan eragozpenak sortu ziralak, noski. Izadi aleen biltoki apañean abestu zuten. Arratsaldez, Legazpiko soka-tira txapelketa; Lau-Bide, taldea txapeldun zalarik. Endañeta indartsuaren arri-jasotze saioak. Ori saioia du Endañetak...

Ondoren dantza taldeen ekin-aldiak berriro. Bukatzeko, erriko txistulari, ta Laja trikitilarien soñuan, errimeri-giro atsegiña, illunabarra arte. Larunbata eta igandean, eliz-atarian, euskal liburu, ta disken azoka garrantzitsua ospatu zan. Liburuen aldetik, salmenta aundiak izan dira, bereziki erritarrek idatzi diguna zalarik.

AN-ZAN

pasai antzio

Lehen ere asteroko hontan, eman genduen berria. Berri inportantea, gure ustez. Gure Pasai Antzioko ZINE CLUB taldeak, bere filmak edo pelikulak euskeraz aztertuko zituela alegia.

Orain, berriz, hauxe jakin dugu: euskeraz azalduko diren filma hauk, URRItik aurrera hasiko omen direla. Eta gauzak behar bezela egiteko, Zineko taldekoak jo-ta-ke ari zaizkigu filma hauk antolaten.

Hil hontatik beraz, pasaitar eta inguruko herriko filma zaleok, geure hizkuntzan eztabaidatzeko aukera ederra izango dugu.

—oO—  
Uztailan, «Euskalerriko Argazki Sariketa» antolatu zen gure herri.

186 argazki bidali zituzten 73 parte-hartzaileek; argazki hoietatik 85, Aurrezki Kutxa Munizipaleko aretoan edo salan agertuaz. Erakustaldia hau ikustera etorrira jendea eruz izan zen. Hauk ere parte hartu zuten, zein ote zen argazkirik onena bakoitzak autarki (voto) baten bidez bere iritzia bidaliaz. «LANGILEAK» izena zeramanak, 1386 boto ukantzen, eta irabazi zuen. Egilea: Beasaingo Martin Garcia Jauna.

Hona hemen epai mahaikoek erabakitakoa:

1go) Santurzeko Jose Luis Basterra jauna. «Bizitz-era» izenarekin.

2gn) Gasteizko Trepiana Julian Jauna. «Zeruruntz» izenarekin.

3gn) Beasaingo Jose M.<sup>a</sup> Poza Jauna. «Bat f'ardi» izenarekin.

Pasaitarrentzat sari berezi bat zegoelarik ere, hauk izan ziren irabazle:

1go) Ramon Martinez Jauna.

2gn) Marian Martinez Andereña. «Zeregina antolatzen».

Lerro hauen bidez har bezate antolatzaileek gure zorionik beroena eta jakina, parte hartzaile guztiak ere berdin.

—oO—

Aurtengo Donostiako estropadetan, Pasai Sanjuandarrak espero zen baino askoz hobeto ibili izan dira. Izan ere, gogoan izan dezagun, arraunlari oso gazteek osatzen dutela sanjuandar tripulazioa; agian, parte hartu dutenen artean, gazteena.

Bejondeizuela!! eta ea datorren urtean Kontako ikurrinaren etortzen zeraaten!! Antziotaren aldetik, «Gora San Juan» gartsu bat bidaltzen dizuegu.

JAIZKIBEL

itziar deba

Baita Lastur ere. Irurak bat dira. Iru auen arteko toki alai baten dagoen basetxe bateko alaba dan neska gazte polit bat egon da gaur nerekin beste askotan egon oi dan bezela. Oso artua del... Izan ere ain da atsegiña! Erderaz ondo daki, baiña euskera du maite, ta maite dualako, jakia! beti euskeraz egiten du, erderaz egin bearra ez badu beintzat.

Lasturren San Nikolas jaiak izan berri dituzte, eta aspertu ezinda jardun da ango euskal-giroa neri kontatzen. Gazteak izan omen dira jaiok antolatzen eta dioenez bai egoki eratu ere!

Danetik omen zan: dantzari, abeslari, aizkora-joku, karga-jasotzaile, «bozeo, bertsolari soñua nai aña, ta esan bearririk ez: zezenak... Nola ez Lasturren zezenak? Ospetsuak ospetsuak artean izan da! Miuraren zezenak oso aituak dira, ori bai; baiña aiek ez dira Lasturkoak bezin marrajoak, Anek izketan ez, beste tranpa guziaz dituztela. Au esaten dute.

Baiña Lasturen ez bakarrik zezenak, baita tottruak ere izan omen ziran bat baño geiago ere. Auen artean «Sosabarro» baxetxe-ko semea, Augatik «Sosabarro» izenaz ezagutzen omen zan Madrilen ere arafio eldu omen zan banderillero, baita nobillero ere. Esatera nuana ikusi zuanari entzuna da, orain urte asko. Kontu zaarra da ba!

Nobillada deitzen dioten idixko zezenketa baten, Gure Sosabarro omen iltzallietako bat. Eldu zitzaion erailtzeko ordua ta an dala gure Lasturarra ezpata artuta, geldika... geldika... idixkoagana. Pase bat... beste bat... ole!... ole! batzutan txalo besteetan txistu... zezena ankazabal burutente, ezin edo nai ez ezpatari toki eman nai ezta.

Lasturko zezenak marrajoak baiña au ez tontoa: ezpatarik kokotean artu nai ez: «tira...! Ator...! Ator, Ator...! Sosabarrok zezenari. Baiña zezenak ez entzun.

Zezenak iltzekoan bastererentz joaten dira, ta zezena baztertu zan toki ondoan gizon bergarar bat omen zegoen adi-adi Sosabarrorri. Onek pase «ta pase» baiña beti leenean anak zabal-zabal zituela burua goian. Luzatzen zijola ikusita deitzen dio bergararrak «Sartu eio! muturretik...! Sartu eio! muturretik...!» Eta Sosabarrok: deiti zionagana burua jiratuta: Orixe egin bearko ziuat...! Onek ez dik nai ill...!

Euskaldun bien izketa entzunda, bergararren ondoan zegoen andaluz baten beren lagunari esan omen zion: «Como quiere eze tio que er noviyo se kuadre, zi le ezta hablando en inglés?»

Ez dakit ordea Sosabarrok zezena il zuan ala ez.

Tene Mujika






## mutriku

### BATAIOAK

Irailaren 17an, Andre Mari Jakokundearen Eliz-Nagusian, elizkizun aundienarekin ospatu zan bataio eguna. Izan ere oraingo bataio era berri onek alako aunditasun berezi bat ematen dio eleiz-bataio egunari. Aurtxoan guraso, aita-ama besoetako, senide eta ainbeste erritar elizkizunera bilduaz, guztiak bataio-otoitzari jarraituaz, denak batean abestuaz... Goragarririk dira benetan liturgi berriko baterako bataioak. Ona emen bataioaren bitartez kristau egin zirenen aurtxoan izenak. Maria Karmen Arruti Arriola: Aitor Martija Maneiro: Ainhize Arrizabalaga Urkiri: Yoseba Andoni Lete Andonegi: Zigor Ena Areitioaztena: Amagoia Basurko Urkiza: Asier Elezgarai Beitia: Oskar Rodriguez De Laño: Karlos Agustin Ramirez Fernandez: Roberto Soto Ulazia. Gure zorionik biozkorrenak kristau berrien guraso eta senideei.



MOTRIKU

### ARRANTZALEAK

Gure erritar arrantzaleak KRISTO KALBARIOKOaren jaiak beren sendi eta jai-giro artean pozez eta paketsu igaro ondoren, berriro itsas zabalera atereak dira arrantza aundiak egiteko asmoz. Itsas-giro on eta atun ugari ekartzea opa dizkiegu.

### ANTZERKIA

GOIZEKO IZARRAko antzezlari trebeak antzerki berri bat ikasten asiak dira. Begiristaintar Iñaki jaunaren iru ataleko antzerki ederra. «APAIZ LANGILLE TA GIZON». Gaur-giroko antzerki goren-gorenetakoa. Ikasbide oneko eta sakontasunez bete. Lan eder au Urriaren azken-aldean antzezteko asmotan dira. Gai onetaz, noiz ta nola izango dan, garaiz, zeatzago azalduko dugu.

### EZKONTZA

Urriaren 7an, erriko Eliz Nagusian, ezkonduko dira Alberdi Andonegitar Juan Luis eta Galparsoro Sustatatar Maria Karmen. Etengabeko zorionak bioi. Baita beren guraso ta batez ere gure adiskide ta euskal idazle dan Alberditar Andoniri ere.

### PARROKIAREN ALDE

Urtero bezela aurtan ere, il onen 17an, ospatu zan PARROKI EGUENA. Ez aaztu erritar maite, gure Parroki bikain zoragarri au, Motrikoar semeek auzo-lanean, nekearen-nekez, izerdiaren-izerdiz egin zutela. Guk, Mutrikoarrok, gure aurretikakoen jarraitzaile geranez, ezin genezake gure asabak egingako lan bikain ori bazterturik utz. Izan gaitzen biotz zabaleko, eskupekoa luzatuaz, alduenak-alduenarekin, gure Parrokiari maitasunez lagunduaz, Parrokiako orritxoek ditoten bezela.

Barne muiñetan berriz  
Biotz mamian degu  
gure sorteria,  
gure Parrokia.  
Agertu nai badegu  
au dala egia,  
Datorren igandean  
egun egokia.

Mutrikuarrak beti  
esku zabaleko,  
Premia non dagoen  
zerbait egiteko  
Beti eman dezute  
milla eskupeko,  
Aurtengo ontan izan  
biotz zabaleko.



MONDRAGOE

## bergara

Aurtengo Sanmartiñetako otsak ixildu dira. Aurtengo ontan ez det uste inor esnatuko zuenik, ez da joan dan urtekoak ere. Bergaran badakigu gauzak ondo egiten.

Aurtengo ontan beste motetako otsak izan ditugu, au da, aldizkarietakoak. Gasteiztik ere esan da zerbait; itxura dagoenez badu garrantzia.

Geuri, tanborrada otsak isiltzea alako naigabe bat sortu digu. Gogoan ar ditzagun au zala gure jai ontako ikuskizunik alaiena, baiñan benetan mingarriagoa da alako erri aberats bateko Udalak dirurik ez izatea bere kutxetan.

Irakurleak daki Euskalerrriak, egunero-egunero nolako aberastasun sortzen duan, ta bertako Udalek ez dute dirurik.

Onen erantzuna lagun batek eman digu: donde no mete no urten! JESUS MARIA TA SAN JOXEPE!

### BEKAK

On Inazio Murua-Balzola, Leniz Balladako Kondea, urte batzuk igaro dira mundu ontatik aldendu zala.

Egun artako aldizkariak, zerbait esaten zuten On Inazio asmoaren buruz, Bergara eta Elorrioko ikasleek izango zutela laguntza bere ikaskizunak egiteko.

On Inazio ez zuen utsean utzi ainbeste maite zituen erriak. Itxura dagoenez, gai au aurrera dijoakigu joan dan egun baten aldizkariak esaten zuenez.

Alaxe esaten zion On Jose Artetxeri, idazle ospetsuari eta onek bere liburu googangarri artan jarri zuan gazteleraz.

«LA PAZ DE MI LAMPARA».  
—¿Ya sabes lo que en vascuence significa «Lagundu»?

«Lagundu», esa es una palabra que solo nosotros entendemos en su significado exacto. «Lagundu».  
«Ayudar». Ahí hay mucho filosofía.

On Inazio. Ez dakit, or goi ortatik, ikusiko gaituzun, bear bada aaztuta egongo zera, mundu onek besterik ez duelako merezi, baiñan guk geure esker ona agertu naiz ots egiten degu umetan ots egiten genduan bezelaxe.

¡Viva Santa Ana Conde! On Inazio, Eskerrik asko.

### MENDIKOI

## elgoibar

### OPOR ALDIAK

Igaro ditugu urteko opor aldiak, hain gogoko izaten dugun egun zerranda. Uda garai honetan, bai atsegina eta beharrezko izaten ditugula egunok.

Gure bizi moldea aldatzean eta egunoroko ogia irabazi beharraz gainera, urtearen barrena izanen ditugun kezka eta ardurak utzita, egun hauek lasai igaro ahal izanik, gure organismoari ematen diogun atseden, onuragarria benetan.

Atseden hau, batzuek itsasertzeko edo mendietako kanping-etan, zenbaitek beste herri batzuk ezagutuaz eta ibilaldi ederrak eginaz. Bada ohean ordu pila bat eginaz, urteko lo-goseak aseaz gozaten duenik ere, bai hain ugari diren herrietako jaietan parranda eginaz atseden hartzen dutenak ere.

Egungo gizarte giroan, zerbait kezka duenak eta hauetan murgildurik bizi denak eta beharrezko zaigun bizibidearen gain, gure herriaren kultura bide eta kontzientziazio lanak aurrera eraman beharrik duen lan garrantza eta burruka hontan indartsu jarraitzeko behar dugun ahalmena izateko izan dedila igaro dugun opor aldia.

### «MOCEDADES»

Azken aldirian inguruko herrietan, herri-jaiak ospatzen zira-nez hor ibili gara batean eta besteetan. Dantza leku itxi batean «Mocedades» taldea zegoen bere jardun aldia emateko izentatua. Talde hau diskoaren bidez ezagutzen genuen, euskal abestiak txit entzun-

garriak dituzte bertan. Atsegina zizaidan talde honi entzutea eta han sartu ginen hogeita hamar duro sarrera ordainduaz.

Halako batean agertu ziren beren saioa eskeintzera, denok agurtuaz, dena erdaraz, jakina, tutik ere ez euskeraz. Han ginanok, gehienok, euskaldunak izan arren. Hamalau abesti eskeini zizkiguten, sei ingeles, bat griegoz, bost gaztelaniaz eta bi euskeraz. Euskal giro gehiago zegoela uste nuen talde honetan. «Zure begiek» abestia azaltzerakoan, «Vamos a cantar esta canción en nuestra querida lengua» eta bestea «O Pello Pello» agertzeko «de nuestro viejo folklore». Gure hizkuntza eta gure folklorea maite badituzte, repertorioa euskeratuaz eta euskal herriaren abesten dutenean, entzuleei euskeraz eta euskaldun agertuaz egin bezate. Talde iaio eta bikain honek euskal izena eta gutxienez folklorea jaso ditzake eta behin eta berri esan «Mocedades» taldearen bidez «Euskara, yalgi hadi kalera».

F. HARRI

## azpeitia

### ITURRITXIKI

Guk ez genuen ezagutu «Iturritxiki», ez da haren ur garbi freskoa probatu ere. Entzun bai beti ere: «Iturritxiki, hemen zen» (gaurko bonbero-etxe ondoan). Baina orain dela denbora gutxi, Udaletxeak berriro irekitzeko erabakia hartu zuen.

Beraz lehen ezagutu ez genuenok aurki ikusi ahal izango dugu.

Iturritxiki historia ilun bat omen du gure herrian. Sasoi batetan azpeitiarrak ez omen zen gelditzen hango ura edan gabe (batikbat astelehenetan pentsatzen dugu). Jendea txanda eginaz egoten omen zen, ur hura etxera emateko pozez. Bistan da, ixtimazio handia zuen iturria zela, ezpairik gabe.

Halako batez ordea, orain dela berrogeita bi urte inguru, «tifus» edo antzeko gaitzen bat zela eta gaueitik goizera itxi eta kito. Herria Iturritxiki gabe.

Zapi zikin inguingarrik ez dugu astindu nahi, alabaina, bai agertu herriko zenbait jauntxoren «konplot» bat eta interes pribatuaren nagusikeria izan zirela, azpeitiarrak hainbat maite zuten Iturritxiki, lurperatzeko.

Lehen esan dut zapi zikinik astitzen ez naizela hasiko; Iturritxikiaren ikaspedea besterik da. Kondairatxo honek nahiko garbi adierazten digu, bai lehen eta bai orain, kontzientzia erne ukan behar dugula herriaren ona eta erkidegoaren intertsak zaintzeko.

Orain herria gogotik poztu da Iturritxiki lurpetik ateratzeko lanean hasi direla ikusirik. Lehengo ostiralean, bereziki esan zidaten lagun batzuek: «Anatsan, oihukatu zak notizi hau Zeruko Argian. Esan zak beldurrik gabe Iturritxiki ura dela Europan onena».

Horra ba nik ere (pozez gainera) agindua bete.

### MADALENAKO ERMITA

Azpeitiarrak esaten dugun bezala «Maalena-ko», ermitatxoak era hartu du konpondu ederra. Azkenaldian honetan zutik ozta-ozta zegoen, istilak ia ondaturik.

Garai batetan Maalanan oso jaialdi politak egiten ziren: igerilariak (jakina egungo egunean baino hiba garbiagoak ziren; gaur ez da posible Maalena halakorik egiteko) lasterkariak, txirrindunlariak, erromeriak e.b. Aspaldion ez da deus egin.

Ermitatxo honek, histori-zama haundia du bere gain. Saninaziok ere hantxe egiten omen zituen bere sermoi eta predikuak. Bestetik elizkizunetarako nahi balitz ere lehenainean badago. Ez ahal dugu ba esaten barrietako komunidade txikiak eratu behar genituzkeela?

Inori kalterik ez dio egiten behintzat eta gu pozten gara ermita konpontzeaz.

### HERIOTZA

Hil honen bederatzian Jose Ipa-

rragirre (Itzia-txiki) hil zen, ezberharrez hogeita hemeretzi urterekin.

Emaztea eta bost seme-alaba txiki utzi ditu seigarrena bidean.

Jakin ahal izan dugunez, azidentea Joseren errua bide zela gertatu zen, eta seguroak ere ez omen dio ezer asko lagunduko. Beraz beste norbaitzuek lagundu beharko dute sendi honen zorigaitza konpontzen.

### IKAZKINTZA

Gaur egunean ez dira asko izango ikazkintzan iharduten dutenak. Antzina ordea ikazkintza zen askorentzat ogia irabazteko bidea. Guk sarri entzun ohi ditugu ikazkintzan gertatutako kontuak; baina inoiz ikusi ez.

Eta hara nola geuk batere uste ez genuela, Larreko basoan ikazkinak ikusteko egokiera non sortu zitzaigun.

Harriturik gelditu ginen ikusirik, zelako teknika zeukaten bi basamutil haik txondarra egiteko.

Ez pentsa ikatza egiteak ere lanik eta buruausterik ez duenik!

Batez ere antzinako Euskal Herrian, lan hedatueneraiko bat zer zen, eta nola egiten zuten ikusi nahi duenak, bijoa aguro Larreko basora, han ikusi ahal izango du ikazkintza zer den.

### ANATSAN



## irakurleak

### mintzo

Zorionez, euskeraz gero ta gehiago idazten da, nahiz aldizkari nahiz liburu. Ta Labaien Jaunak besterik baderizkio ere, inoiz baiño gehiago ta obekiago.

Baiña jakiña, guziak ez dira berdiñak onean. Aldiazkarietan lehena, nere ustez, zuen Zeruko Argia dugu Euskalerrrian.

Bai axalez eta bai mamiz, ori dator egokienik. Axalak ez du, noski, beste munduko garrantzirik, baiña orrek ere badu berea. Mamira bagatoz, berriz, zuen orrek dauka ederrena.


Beste zenbait aldizkari itxi xamarrek ageri zaizkit neri, Bida so az emendikoengatik diot au, jakiña. Egun gure erriak daukan egoeraren irudirik berdiñena, zuenak ematen duela esango nuke nik. Ortan dago nere gustorako zuen aldizkariaren lehen meritua. Eutsi orri. Norbaitek «azpiko integrismoa» ikusi badio ere, gaiñekorik ikusi ezinda, zuek zabaltasun eta irikitasun orri eutsi. «Azpiko» «kausa» illunen bila dabiltzanak berriz, doazela ahal badute «Brujologia» izeneko ikastaldi ortara beren esperientzi miregarriak kontatzen. Zuek, aldiz, AURRERA!

M. ERROTABURU

(Irun)




# ELIZAREN BERRI (I)



OREXA



UITZI



## EZKON AURREKO SEKSU-HARREMANAK

Parisko diozesiako arduradunek inkesta bat egina dute oraindik orain ezkontzarako gertutzen ari direnen artean, ezkin-aurreko, hobeto esan, ezkongaien seksu-harremanei buruzko iritziaz. Katoliko ezkongaietan, hirutatik batek, gauza "normaltzat" ematen ditu, inkesta horren arabera, ezkin-aurreko haragizko harremanak.

Lyongo artzapezpikuak Renard-ek, aldiz, bestela adierazi du intervintze berri batetan: "kristau bizibidean —zioen— ez diteke onar entseguzko ezkontzarik, ez-eta ezkon-aurreko haragi-harremanak. Ez bata, ez bestea —jarraitzen zuen—, ez dira ezkon-bizitza. Funtsean, bata eta bestea, bizitza ikuspegi indibidualistaz hartzea da... Bestalde, komunitatebidezko esperientziak ere egiten hasiak dira zenbait: gauza oro, pertsonak ere bai, denentzat irizten dute, dena denentzat. Senar-emazteak bata bestearekin aldatu egiten dira seksu-esperientziak ngaltzearen. Ezkontideak aldakoiak dira. Hori guztia, antolaturiko adulterio bat besterik ez da, ezkon-txurakeria bat besterik ez".

## OINARRIKO KRISTAU KOMUNISTATEAK ETA DEMOKRAZIA

Askotan mintzo gara Eliza barruko demokrazia faltaz. Ez da noski arrazoinik falta horretarako. Baina zein bide hartzen da horren zuzenketa lortzeko?

René Costek, Toulouseko Instituto Katolikoko irakasleak, horretarako bidea honetan ipintzen du: politika mailan ez daiteke demokraziarik lor, oinarriko komunitate-tarik hasi ezen; orobat Elizan ere, dio. Izan ere, demokrazia, elkarriketa bidez antolatzen den bizikera baldin bada, eta elkarriketa hori pertsonarteko harremanetan datzalarik, demokraziak oinarriko elkarrekin hasi beharko du.

Garbi dago, beraz, oinarriko kristau elkarteei muzin eginaz, kristau bizitza giza-talde anonimitoetan ipini nahi duena eta horretan jarraitu nahi duena, ez dabilela demokraziabidean.

## IRLANDAREN BATASUNA ETA ELIZA

Azaguna denez, Irlanda bi zatitan emana dago: bat, beregaineko Estatu da; bestea, Ingalaterraren zati (aspaldi honetan halako burruka odoltsuan ari dena).

Irlandako primaduak, Conway kardenalak, uharte guztia politikaz bateratzea komeni litzakeela azaldu du interview batetan. Noizpait ere, eliz-jerarkia "politikari" konprometitzen zaigun!!!

## ELIZAKO MINISTERIO EDO SERBITZUAK EBOLUZIOBIDEAN

Jakina da, orain arte, Elizako serbitzuzintza guztia esaterako, ape-

zeriaren esku zegoela. Eta orokartasun hori adierazi nahiaz-edo, apezgoa hartu aurretik, beste ordena edo serbitzuzintza guztietatik igaro behar zuen apezgoiak: apezariaren sarrera ematen zion tontsuratik hasi, lau ordena txikiak hartu (bakoitzak eginkizun bat adierazten zuen), ondoren subdiakono, diakono eta apez Hori zen prozesoa. Apeza zen dena, eta apeza dena zen: bera bakarrik zen, nolabait esan, serbitzari ofizial bakarra.

Esan beharrik ez, eskema ximple hori ez dagoela konforme, inolaz ere, Testamendu Berrikoarekin.

Esan behar da, gainera, kristau-eliza guztiak ez zetozeela bat, askoz gutxiago ere, eliza katolikoaren eskema soil horrekin. Hasteko, protestanteek ez dute onartzen ministeriozko apezgorik; haientzat, kristau guztiak apez gara, ez dago apezgo berezirik; beren artzainak ez dituzte apez berezitzat ezagutzen.

Eliza katolikoaren eta, baita, protestanteen eskema ezberdin horiek ere berrikusi beharra zegoen, eliza kristauen batasuna lortzekotan. Hain zuzen, 40en bat teologok (katoliki, luterotar eta erreformatu) batzar bat egina dute horri buruz. Badakigu, honelako batzar batetik, ageri bat aski interesgarria atera zela ihaz Eukaristiari buruz. Ea, oraingoan, beste pauso bat ematen den alderdi honetatik kristaunen batasunaren bidean; hau funtsean, denok (katoliko eta protestante eta bestelako) ebanjelio-bide garbiagoa hartzea besterik ez da izan.

Bestalde, ordea, Aita Sainduak ere pausotxo bat emana du ministerioaren berrikuste alderdi horretatik. Ez diteke esan, ikaragarriko urratsa izan denik. Baina, badakigu, Eliza hutesin delakoan finkaturik, jende askok gure Elizan gauza guztiak a priori ongi daudela uste duela: inoiz ita ezertan ez dela apartatu Test. Berrian berari emaniko agituratik uste duen asko dagoela; eta, batez ere, honelako Elizatzat Eliza katolikoa eta, askotan, Mendebaleko Eliza katolikoa ematen duela. Hori horrela delarik pauso txikiena, gauza positibo eta txalagarritzat eman behar.

Zein da, beraz, Aita Sainduak esan duen pauso hori? Hauxe. Irailaren 14ean emandako bi Motu Proprio-etan datorrena. Horien arabera, aurrerantzean, tontsurarik ez ez da izan apezgorako bidean; apezek ez dute hartuko ordena txikiak, ez subdiakonotzarik; bakarrik diakonotza eta apezgoa. Bi ordena txikiak —nahiz ordenatzat hartuak ez izan, instituzio-edo horrelakotzat bakarrik— laikoentzat geratuko dira: lektoradutza eta akolitadutza. Gorago esan bezala, oso gauza koxkor izanzen dira bi hauek; baina, gauza positiboa, laikoentzat instituzio ofizial bezala emanak izatea da. Denborarekin, legearen azpitik edo gainetik edo aldamenetik —hartu nahi duzuri bezala— han eta hemen kargu horiek beste eginkizunaz jartzen joanen dira: bidea urratzen dago hauzia. Orain legezatu dena ere, han eta hemen legetik kanpo zebilen gauza da. Aurrerantzean ere... hala beharko, noizpait legez-tatua izan dadin.

## ZIPRISTINAK

—LAZKAON kristau dotrina orain arte ez bezala (edo elizan ematen bait zen, edo taldeka katekista bakoitzat bere etxean), eskola nazionaletan ematekotan omen. Nonbait, horrela eskolome guztiak

harrapatu nahi dituzte kristau irakaspiderako.

Inolaz ere, hortik aurrera honelako jokabideari buruz, hots, kristau-ikaspeideak beste asignatura antzeko bihurtzeari buruz zabaldurik dagoen irizpideak, inongo garrantziarik ez du zenbaitentzat. Horrez gero, ez da harritzekoa izan, oso berandu gabe, beren kristautasuna bazterrerara uztea askok beste asignaturak utzi orduko.

Aldiz, bada bestelakorik: kristau ikaspeideak esperientzia berriak egitea eskatzne duela uste duenik ba-

da alegia, talde txikietan erlijio-sena esnatzen saiatuaz. Horretarako, pedagogian zorrotasunaren premia izan da, norbera fedearen zentzuaz ongi jabeturik egon premia; haurrek bizi duten sozial eta moral giroa ezagutzea, haurrekin batera hizkuntza "sagaratu" bat bila ahal izateko; Jainkoa topatzeko giza-barneraino joaten jakin; taldearen bizitzako hizkuntzat mintzat ea, bakoitzak duen dinamika berezia kontuan hartuaz.

AMUNSA

# ARRIZKO GURE ELIZAK

Gure Elizak. Arrizko Eliza bikaiñak. Erriko etxe guzien gainetik kukurruru egiten diguten Elizak. Sasoi bateko aalmen, indar eta Jauntxokeriaren adierazgarri zaizkigun Elizak. Dorreak. Gure Elizetako dorre luzeak. Ebanjelioaren apaltasuna aazteratzen dizkiguten Eliza-dorreak.

Gaurkoan ordea, arren, zokora ezazu zure makila. Zertarako beti dantzatu makila? Orrela egin bear zalakoan jokatu zuten gure arbasoek; garai artakoak izan bagina, gure jokoa ere berdin xamarra izango zitekean. Gaurko pentsaeraz ez ditzagun azter eta zigortu beste aldi bateko jokabideak.

Sentimentuz beterik dut une onetan nere biotza. Gizonaren bizitza ez da arrazoi otz utsa; biotzeko sentipenek ere osatzen dute. Askotan auek dute garrantzi geiago.

Gure aurrekoek jasotako Eliza bikaiñak begira askotan egon oi naiz. Gaur eguneko tristuraz begiratzen diet. Ustutzen ari dira. Gero eta toki geiago beren barnetan. Alferrikako bihurtuko ote zerate kristau bizitza? Malkoz bustitzen dizkit begiak kezka onek. Negar egingo ote dute gure ondorengoek, Eliza auen ormei begira, Judutarren antzera?

Negarra dario ene biotzari. Zenbat oroigarri guretzat Eliza auek. Eliza auetan Jainko seme eta Bere familiako egiñak gaituz. Gure leen Jaunartzeak. Guretar maiteen illetak. Erriaren kantika xarmantak. Meza bikain aiek. Elizkizun zora-garriak. Gure bizitza eta eriotza lotuta zegoan Eliza auei. Orain ez egin negar, esaten badidazu, ez dutela geiago balio gaur egunerako eta beren azkena lasterka datorrela? Nere amona zaartu zanean, ez zuan gauza aundirik balio. Mundurako oso guti balio zuen garaian il zan; nik negar egin nion.

Sentipen utsetan ez gaitzen gera ordea; ezagueraz mintza gaitzen: «Zergatik ari zaizkigu Elizak ustutzen?

Oituraren indarrez zioan Elizara talde aundi bat. Elizara joatea eskatzen zuan sasoi bateko giroak. Gaur besterik da. Elizara joan ala ez, Nori axola? Leen ez zekiten zergatik zioazen Elizara. Gaur ez dakite Elizara joateari zergatik utzi dioten.

Jakiñaren gainean taldetxo batetik Eliza utzi du. Auen ustetan, erakutsi bikaiñenakoa ditu Elizak gizartea salbatzeko, zuzenga-

bekeriak kentzeko, diruaren nau-sikeria uxatzeko; guzia teoria du ordea Elizak. Erakutsiak ez ditu eguneroko bizitzan kokatzen; gizartea salbatzeko ez da kompromisotan sartzen; ez da gai iraultza (rebuluzio) zuzen bat lurtean egiteko. Orlako auek, Eliza utzita, Sozialismo eta Komunismoan sartu dira.

Irugarren taldekoak, gaurko Eliza baitan sinesten duten kristauak dira. Eraberritze sakon-sakona egin nai diote Elizari. Diru, indar eta jauntxokeria eta Diplomaziko Elizari UTIKAN esaten diote. Beste molde batzuetako Eliz-egari dira; lurteko kompromisotara garamazkien Eliza amesten dute; lurteko arazoetan bete-betean sartutako Eliza opa dute; munduko gosea, zuzengabekeria, askatasun-eza gizarretik kentzen aaleginduko dan Eliza nai dute.

Auen ustez, gure Eliza aundietan egin oi diran Eukaristi-Batzarrak ez du aski indar kristauak lurteko kompromisotara eramateko. Erri osoari zuzentzen zaion Liturjiak, ez du indarrik bizitzako kompromisotatik kristaua sartzeko; talde kozkorrentzat egindako Liturjia nai dute; pentsaera berdin xamarrekoek osatu bear dituzte orlako biltzarrik. Talde oietan guztiak mintza ditezke; guztiak agertu bakoitzak bere arazoak; denek denei lagun bear diete. Taldetxo oien Liturji-Batzarretik, guztiak atera bear dute bakoitzak lurteko bere kompromisoko betetzera. Comunidades de base deritzate elkarte auei. Leen kristau taldeen usua dute. Aien antzera, etxetan dituzte biltzarrik. Kompromisozko kristau bizitzarako alferri kakoak direla gure Elizetako Eukaristi Batzarrik eta gure Elizetako auek egin diete.

Zer gertatu bear ote zaie gure Eliza auei? Museotarako geratuko ote? Noiz beinka, emen eta an, arkitzen diran kristau elkarrekin Batzar Nagusi batzuk egiteko? Ez nauzu Igarle eta ezin erantzunik eman.

Dena dela, gora biotzak. Ebanjelio eta Kristautasunari eusteko, ez dira bearrezko, nai ala ez gure Elizak. Giroan giroko erakundeak sortuko dira. Ez gaitu Kristok baztertuko; Bere Espiritua gurekin izango da beti. Nork esan dezake gaur puskatzen ari zaizkigun gure Eliz-moldeak baiño oieak ez ote dituzten sortuko geroko gure semeek?

Arostegitar Jokin



# ORIXE eta IDAZLE ZAHARRAK

Orixeren «Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra» bigarren aldiz irakurtzeko zoria izan dugu. Lan eder hori **Euskal Esnalea** errebistan publikatu zuen, 1927. urtean. Liburu gisa inoiz publikatu ez delako agian, inork gutxi ezagutzen bide du Orixek lehengo idazleez zuen iritzia. Errebista hori nekez eskuetara daitezkeenez gero, zenbait puska argitaratzea pentsatu dugu, puska tikiak puska osoaren berri eman dezalkeelakoan.

Euskal literaturaren historia hiru ataletan biltzen du, hots berak dioten bezala «iru idazle-mordotara birbiltzen dudalarik».

«Iru guraso orietan badugu bat, lenbizikoa, idazlerik bikainetsuna: Axular».

Bigarren gizona «euskeran ildorik edo atzerik barnena utzi zuena: Larremendi beinki».

Hirugarren idazlea Arana Goiri da. Axular bizitu zen garaiko idazleez hasten da, ikus zer iritzia zor zien.

## ETXEPARE

«idaztankera lasterra eta muinduna du, ebakia eta adi-arraza».

## LEIZARRAGA

«...euskal-aditza ugaria eman digu, itzulketak lardaska, izketa erraza, errazegia, ta idaztankera ez gisakoa».

## AXULAR

«...ta Laphurdiko euskeraz idatzi zuena duzu aurki euskal-idazlerik bikainena, oraintsudaino». «Axular bezelako idazle asko izan balitu euskerak, dagon baino landuago zegoen onozkero». Euskeraz burutatu dirudi Axularren liburuak. «Axularren idaztankera bizia da, arraia, garbia, ta zainduna».

## JOANNES ETXEBERRI

«Laphurdiko literaturan ezin-utzia da Etxeberri».

## HARANEDER

«Euskera ederra, ugaria, garbia du». «Atsegin aundiz irakur ditezke». Larregia eta Arbelbidez hitzegin ondoren **Yoannategiz** ari zaigu.

«Au dut euskal-idazleetan maitteena». «Idazkera biguina, ixurbera, argia du». «...baino bein eskuetara ezker, txoratzen du Yoannategik».

## INTXAUSPE

«Mariaren hilabertia duzu nere aburuz Xuberan ez ezen Euskalerriaren den liburririk aipagarrienetakoa idaztankeraz. Ez dut uste euskera zaintsuagorik, muindunagorik, gauzak labor eta indarrez esaiteko ta barne sarrazteko euskaldunagorik oraindino idatzi denik».

Oihenart, Elizaburu, Salaberri, Artxu, Goietxe, Otxobi, Adema Zaldubi eta beste asko idazleez bere iritzia ematen du.

Bigarren atalean Larremendiren inguruan eta honen eraginez sortutako idazleez mintzatzen zaigu.

## LARRAMENDI

«...gaur den egunerako ere ez du lotsarik **Garagorri** edo Larremendiren euskerak».

## MENDIBURU

«Axularren ondo-ondoa beintzat tokia merezi du, Euskera garbiagoa du Oyartzuarrak Urdazubiarrak baino, ez ordea ugariago».

## KARDABERAZ

«Euskera ez du garbia, erderakeri asko, ta idaztankera ez euskalduna geienaz».

## AÑIBARRO

«Esku-liburua du idaztankeraz baliotsuenik (1806); euskera ere garbia, landua, ugaria».

## AGIRRE (Astesakoa)

«Idaztankera argia, izkera erraza, garbia, irakurriago eta maitagarriago dena».

## PRAI BARTOLOME

«Idaztankera ez du Agirrek bezain jasoa ta txukuna, baino indartsuago ta etorritsuago. Euskera

baldanagoa du bai, baino gaur bertan ere onturrez irakurri ditezke».

## LARDIZABAL

«Bibliaren laburpen polita egin zigun euskera eder, garbi, ugari askian».

## ARRUE

«Asko eta ederki idatzi edo eskuratu zuen».

## MOGEL

«Izkera apaina, bizia, etorria, ugarria ta egokia du».

## IZTUETA

«**Gipuzkoako Kondaira** (1847), bere zartzaroan egina, idaztankeraz ixurberagoa da ta apain askia». «Itz eta esaera ugari bildu ditezke an emen».

Eta horiekin batera Iparragirre, Bilintx, Arzak, Iturriaga eta beste asko aipatzen du eta bere iritzia ematen horiei buruz.

Hirugarren atalean Arana-Goiriren txanda da.

## ARANA-GOIRI

«**S. Mateoren Pasioa** askok uste duten baino euskera samurragoan dadukazu».

## ARRIANDIAGA

«baino euskeran guziz utsegin du eritirik aldegitan. Urrutia ta Zabal-Arana ta beste batzuk aren atzetik ari dire».

Arana-Goiriren diszipulook aski gogor hartzen baldin baditu ere, Arana-Goiri berari goresmen haundiak egiten dizkio. Honen eraginez esker, euskera bide berriak urratzen ederkari omen zen.

Zeruko Argiak gorasarre egin nahi izan dio Orixeri. Onde da. Gz-tetan idatzi zuen liburuak aipatu dugu. Beraz aipatu ere. Orixezale asko ezagutzen dugu. Orixezale hoiaren artean denetarik badela uste izatekoa da, hots egiazko Orixezale, zinezko euskerazale, eta egitateetan baino hitz alferretan denbora pasa bizi diren euskaltzaleak. Etsenplu honek aski argi emango digu. Behin batean entzun baikenion Orixezale hoietako bati: liburu zaharrik hartu dudak bakoitzean eskuetatik lurrera erori zaizkit, dituzten erdakeriez asperasper eginik.

Maiz askotan entzun dugu euskera ederra eta bikaina ikasi nahiko lukeenak baserrira jo beharko lukeela. Orixek egin zuen bezala. Aldiz egia da eta aldiz... Hori dioenak egia alderdi bat bakarrik ikusi nahi du. Orixek ez baitzuen hori bakarrik egin. Orixek bazekien Uitzin eta Orixek egin zuten euskera, baino hori guztia eta beste asko ere bazekien: literatura zaharrik irakatsi zion guztia. Hori ere ez baita ahuntzaren gauerdiko ezutula. Geurok entzun genion behin batez, gaztetan, hamabost aldiz edo irakurri zuela Axularren **GERO**. Lapurdiko, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Xuberoko literatura zaharra ondo ezagutzen zuen eta probetxu ateratzen. Aitorkizunak eta honelako itzulpenak ez baitira oraingo baserriko euskera baliatuz bakarrik eginen.

Lehengo idazle zaharren eragina garbi nabari da Orixeren idazlanetan. Ez dugu hemen lekurik hortaz mintzatzeko eta bestalde gurek ezagutzen ditugun baino askoz ere sakonkiago ezagutu beharko lirake Orixeren idazlan guztiak. Noizpait norbaitek ukituko ahal du puntu hori ere. Bada hor **tesina** bat egiteko beste gai.

Gauza bat da hemen guztiz aipagarria: Orixek euskal literaturaren historia hori 1927 urtean argitaratu zuela. Euskaltzale gehien artean lehengo idazle zaharrei muzin egiten zitzaizkien garaiak, Orixek goitik altxatu zuen boza eta zegoen mailan ipini zituen. Hori dena, Orixeren alde, asko gora mintzo baita.

Aspaldixko oroitzapen zaharrei begira liluraturik geratzeko joera bizia sumatzen dut nere baitan... Ez dakit zergatik. Badirudi denboraren harien gertakizunen mataza gero eta bilduagoa dugula gizonok geure buruaren ingurumarian. Ukazina da, nonbait, gizonaren histori-beharra. Neretzat, Orixek, matzaren golkoan aurkitzen da.

Ez nuen Orixek aurrez-aurre ezagutu. Ez nuen halako egokierarik izan. Eta damu naiz; banuen, izan ere, gogorik, baina heriotzak aurrea hartu zuen. Pertsonalki elkar ezagutu ez bagenuen ere, «elkarrizketa metafisiko» baten bidez mintzatu ginen... 1959 urtea zen. Ez ziren haiek gaurko udaberriak. Ez zen gaurko argitaldari ugariagorik. «Kuliska sorta», herbesteko «Euzko Gogoa», Donostiako «Egan» eta gazteok eskuartearen generabiltzaren «Jakin» aipala. Oraindik inprimategira eramane gabeko aldizkariak; hirurehun bat harpideduntxo eta bizpahiru idazle jaioberri... Donostian, «Egan-en Koldo Mitxelena gazteak atak irekitzen; Ainorgan, Orixek guzian lehen ekinaldiak zaintzen. Gure Arantzazuko errebista hartan jende berrieza izan genuen, eta joera berriak ere agertu ziren... Orixek adi-adi izaten genuen, eta noizbehinka baita bere eskutitz bat bidali ere. Guziok genekien, euskal literaturaren lorealdi bateko izenik bikainenetakoa genuela. Orixek, euskerari eman zion zenbait gailur maite genuen gure ere, nahiz eta hizkuntzaren etorkizuna ez ikusi denok bide berdinetatik. Ez geunden gazte denok ados «Euzko Gogoa»-tik eskaini zitzaizkigun irtenbideekin; baina aldizkari haren asmaoa (euskal kulturgintza, alegia) maite genuen gure ere. Ez genituen ikus bide berdinak, kezka eta herri-min berak izanik ere. Eta berehala agertu zen etena. Gazte eta, agian, ausartegi ginenok gogor eraso genion gure aurreko belaunaldiaren lanbidetari. Gogoan dut oraindik perspektiba hertsiki batekin egindako artikuluxka bat; ez nuke gaur firmatuko, baina beharbada une hartan bete zuen bere eginkizuna. Orixek ez

# Orixe ere bear dugu

Aspaldixko oroitzapen zaharrei begira liluraturik geratzeko joera bizia sumatzen dut nere baitan... Ez dakit zergatik. Badirudi denboraren harien gertakizunen mataza gero eta bilduagoa dugula gizonok geure buruaren ingurumarian. Ukazina da, nonbait, gizonaren histori-beharra. Neretzat, Orixek, matzaren golkoan aurkitzen da.

Ez nuen Orixek aurrez-aurre ezagutu. Ez nuen halako egokierarik izan. Eta damu naiz; banuen, izan ere, gogorik, baina heriotzak aurrea hartu zuen. Pertsonalki elkar ezagutu ez bagenuen ere, «elkarrizketa metafisiko» baten bidez mintzatu ginen... 1959 urtea zen. Ez ziren haiek gaurko udaberriak. Ez zen gaurko argitaldari ugariagorik. «Kuliska sorta», herbesteko «Euzko Gogoa», Donostiako «Egan» eta gazteok eskuartearen generabiltzaren «Jakin» aipala. Oraindik inprimategira eramane gabeko aldizkariak; hirurehun bat harpideduntxo eta bizpahiru idazle jaioberri... Donostian, «Egan-en Koldo Mitxelena gazteak atak irekitzen; Ainorgan, Orixek guzian lehen ekinaldiak zaintzen. Gure Arantzazuko errebista hartan jende berrieza izan genuen, eta joera berriak ere agertu ziren... Orixek adi-adi izaten genuen, eta noizbehinka baita bere eskutitz bat bidali ere. Guziok genekien, euskal literaturaren lorealdi bateko izenik bikainenetakoa genuela. Orixek, euskerari eman zion zenbait gailur maite genuen gure ere, nahiz eta hizkuntzaren etorkizuna ez ikusi denok bide berdinetatik. Ez geunden gazte denok ados «Euzko Gogoa»-tik eskaini zitzaizkigun irtenbideekin; baina aldizkari haren asmaoa (euskal kulturgintza, alegia) maite genuen gure ere. Ez genituen ikus bide berdinak, kezka eta herri-min berak izanik ere. Eta berehala agertu zen etena. Gazte eta, agian, ausartegi ginenok gogor eraso genion gure aurreko belaunaldiaren lanbidetari. Gogoan dut oraindik perspektiba hertsiki batekin egindako artikuluxka bat; ez nuke gaur firmatuko, baina beharbada une hartan bete zuen bere eginkizuna. Orixek ez

zion zuzenean erantzun, nahiago izan zuen zeharka eta begirapen handienarekin, ohartxo baten bidez, aipatu. Ikusi zuen, nonbait, eta ongi ikusi ere, gaztetxo zela hain gogoriki erasoten zuena, eta ez zen batere minduta agertu. Honegatik gertatu zen posible ondorengo elkarrizketa luzea.

Eztabaida hura izan zen, ausaz, hainbat eztabaida izandako Orixeren azkenekoa. Eztabaidagaia ez zen egunerokoa izan. Geroztik egin dut barre puxka bat ere nere orduko ausardia eta seriotasunaz... Dena dela, biok egin genuen lan, eta «Jakin»-en eta «Egan»-en eman ziren lan haiek. Izatearen azterketan; Izatea aztertzan; Izatea eta bere zentzia; Izaki, izate, eza. Deabruaren adarretatik nahiz aingeru xuri baten hegada xotil urdinetik irakurri beharreko eztabaida zen hura, noski... Orixek ez omen zuen nererik ulertzen eta nik ez omen nion gehiegi konprenitzen, eta bion irakurtzean zera jota zuten Koldo: «Batak (...) ez omen ditu beti bestearen esanak ongi aditzen. Beste alde batetik, berriaz, gairen aldetik, esango nuke ez dudala ia tutik ere ulertzen horien hausia». Ez dakit, ateraldi hortaz zer pentsatuko zuten Orixek; nik, egia esan, ez nuen jakin Mitxelenairen tiroak nondik honetik zihokoan. Geroztik, Metafisikaren fede eta itxaropenak galdu edo ahantzi ditudanean, jabetu naiz esaldiaz.

Badira urteak Orixek gutartetik joan zitzaigula. Ez da hemen; eta, gaurko giroan elkarrizketa oso al-dapa gora gertatuko zen arren, hemen gurekin beharko genuen. Zenbait gauzatan asko zekien, beharbada modernutasunaren sena falta baldin bazitzaion ere. Sistematikoki lan egin behar dugun hontan, haren jakitea behar dugu berriaz ere. Igaro diren urteak eman ditugun ikus bide berriekin, gaur izan litezke —beren garaiak baino ere areago— benetan baliagarri Euzko Gogoa-ren eta Orixeren lanak. Nor hasiko zaigu aldizkari hura eta Orixek filosofoa puntariki punta irakurri eta fitxategi oso bat egiten?

Joseba Intxausti

# Orixe jainkotiar

Polloeko hilarrietan ikus dezakezu, Orixeren hilobia. Harri gainean bertso egoki hau dakar:

«Agur, fede, lurrean nuen itu-mu-til, zuri esker leizean ez nun egin amil».

Bai. Fedeko gizona zen gure Orixek. Eta fedea diodanean, ez dut gizonak izan dezeken edozein amets, asmo edo ioran esan nahi. Ez. Kristau katoliko fedea esan nahi dudala bistan da. Fede hori kantatu du behin eta berriaz bere olerkietan («Barne-Muinetan» baitipat, 1934). Ez alferrik, Beronetik atera bait zuen Orixek argi gidaria, indarra, sostengua eta bazka.

Eta fedeez zer ikusi estua duen otoitzetik ere bai. Otoitz-gizona genduen gure Orixek. Liturgiako otoitza berak euskeratu zigun («Meza-Bezperak», 1949). Eta besteari, bakarka egin ohi denari, liburu oso bat eskeini dio («Jainkoaren bila», 1971). Ez otoiz arunta bakarrik, baita mistika-otoitza ere (berak «otoitz bikaina» deitzen duena), li-

buru hortan aztertuak eta xe-hatuak utzi dizkigu. Ez ditut gai hauek jakintsu edo teoriko gisa bakarrik jenderatzen. Gai mesede hoien esperientzia ere bazuela dirudi.

Fedea, Otoitza. Euskal literaturak azken gizaldian ezagutu duen Patriarka nagusia bi ondasun hauen jabe zen.

Orixek ez zuen oraingo zorabio eta zurrumilo hauen berri jakin. (Azken urteotan azaldu den astindio eta haize izoztu hau esan nahi dut: sekularizazioa, ateismua, utzi-... Baina haren jainkotiar bizitzaren mardula ikusiz, eta dotrina aldetik zeukan formazio senda trinkoari ohartuz, hartuko zukean posturaz dudu guti egin daiteke.

Jainkoaren testigantza argia, laiku honek utzi diguna. Ez digu lezio makala eman hainbeste elizgizoni. Jainkoarekiko oro lotsaz, utzieraz edo fede eta otoitz faltaz, baztertu nahiz gabiltzanoli.

Aita L. Villasante

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA


Abando



OREXA



ANXIETA BAT OREXAN



LETARI



**ORIXE eta euskararen barne - indarra**



PESTABURU

«Adelante, depuradores! sin currir en excesivos purismos, pero arrancando chispas a nuestro idioma que atesora tantas posibilidades». («Orixe»).

—oOo—

Ez zaitez espantuka asi, irakurle maitea, «Orixe» maisuaz euskaraz zerbait esaterakoan haren erdarazko esakun bat aipatzen dudala ikusita. Gai horri buruz amaika orrialde idatziak ditu «Orixe»-k; baita amabi ere, ango eta emengo aldizkarietan sakabanaturik daudenak. Gehienak euskaraz, beste mordo bat erdaraz. Baina, «Zeruko Argia»-ren artezkariak seinatu didan epe laburra kausa dala, haiek billatu eta aztertze betarik ez dut izan; eta urbillen neukana eta huraxe aukeratu dut honetarako. Baina ez izutu, arren, ez natorkizu linguistikaz itzegiteko asmoz; ez dut parragarri gelditu nahi eta. Gogoeta arin batzuk egin eta zenbait kezka sakon agertu beste xederik ez daukat, «Orixe» beti gogoan dudarik.

Lehen esan dudanetik, «Orixe»-ren idazkiez ahaztuxea nagoela susma daiteke. Neurri batez behintzat ala da, ezin uka. Mende honen lehen-aldiko idazle, gure euskara hain ederkoratu duten maisu ereduak haiek erdi ahazturik dauzkagu. Aize-bolada bortitza baten erasotzen gaitu lau egaletatik gaur egunean; aize gogorra da, zakarra ere bai sarritan, batasunera —obe: nolabaitko batasun batera— bultzatu nai gaituen zurrunbilloa. Aize hau, irudi-ausele otsean gure arteratu ohi da. Guk aspaldidanik eta zintzo-zintzo maisuzat euki izan ditugun irudi maitagarriok gure bihotz-muinetatik erabat ezabatzea datorrela dirudi. Esango litzake ez dutela haiek ezer onik egin euskal kultura-arloan. Oraingo batuzale askoren iritzira, euskara batuaz kanpo (euskara batuan esan ohi dute halakoek) ez bide dago balio duen deusik. Zaharrak, «esfasatuak» omen daude.

Egia esan, batasun-asmoa begi onez ikusten dugunok, —igitura horren gidariekin zenbait puntutan bat etorri ez arren— badugu, aize-erantsia dala-ta, gure irudi bihotzeko haletatik alde egiteko irris-kua; ez arbuloz, ez erdeinuz; alegia ta deus ez baizik, guk ere ez dakigula. Ni neuk nabaitzen dut nere baitan griña makur horren ondorioa. Bai, maite dut Azkue, maite Txomin Agirre, Lizardi ta «Orixe», eta alaere or daukat erdi ahantzirik liburutegiko apaletan, haien dei ixillari —deika ari zaizkidala ziur nago— ez entzunarena egiñaz. Badut aitzaki, hori bai; liburu, aldizkari, mota guztiko agerkaiak txitean-pitean agertu eta eskuetatzen zaizkidala eta, ez dut gehiago irakurtzeko astirik... aitzaki merkea, baina; idaz-sorturikari hoiatarik gehienak deus gutxi dira, gure zahar haienen aldean ipintzeko; irakurtzeko baino, paper-ontziratzeko ohea ere, bai bat edo bestetxo. Izkeraz ari naiz, noski, ez gaiez; sekulan baino zabalkiago eta ausartago idazten baita gaur zernai gauzaz. Alde hortatik txalogarri derizkiet gure idazle gazteei.

Zernai dala, lehengo zaharrei buruz dugun epeltasuna eta mukertasuna ez dira bidezkoak. Ongi da izan, euskara batuz idaztea, hortxe omen bait du izkerak irauteko bide bakarra; bainan euskalkiak leihotik jaurti gabe. Norbere dialektuaz jabetu baino lehen bestetan jarduteak zorakeria dirudi. Etxea ondar gainean finkatu nahi izatea da. Eta hartaz jabeturik izkera batuari emango balitz ere, on izango litzaiok batuzaleari bere jatorrizko basetxera noizean behingo itzuli bat egitea.

«Orixe»-ri berari buruz nabaitzen dan epeltasunaz zerbait esatera ausartuko naiz, esplikabide gisa: haren «Meza-bezperak» gaurko liturjian erabili eziña da mezako liburutzat. «Euskaldunak» poema ederrak, menditarren bizi-moldea azaltzen digu, euskaldunen ohitura zaharrak; orregatik edo, ez du indarrak gure zaletasuna pizteko. Iñ-

urkin-usaia baino nahiago dugu, antza, hirietako asfalto-usaia eta egurats kutsatua. Baserri-euskara ere ez omen da gauza gaur eguneko beharrak eta buru-zorrozkeriak adierazteko. «Mireio» itzulpe-na irakurtzen berriz, nork galduko du bere denbora? «San Agustinen aitorkizunak» zaila da eta aspergarria. «Jainkoaren billa» aldiz, mistiku utsa; nor kilika lezake? Hau, gainera, gipuzkeraz gipuzkera ederrez idatzia dago. «Dialektokeria» horrek batuzaleen kopeta zimur-erazten du. Pekatu da. «Las-tima, euskara batuan (sic) ez egona...». Hau eta honen antzekoak irakurri ditut or nunbait. Mauka estutxoa dute norbaitzuek. Eta «esnobismoa», zabalgia.

Bada gehiago: «Orixe» argiak, euskal-jakintzako eremuetan zihar-duela, beste zenbait teorizaleren antzera, lege «lojiku» batzuen uz-tarpean ibillerazi nahi izan zuen euskara. Izkuntzalariek berriz, holako jokabideak ez dituzte onartzen, ongarrri baino kaltegarriago bait zaizkio izkuntzari. Irakurleak bere aldetik galtzen du honela idazlearengan zuen sinestearen er-dia.

Gramatika-sailletan, ata ta gut-tiz, bat landu zuen «Orixe»-k mai-sutasun paregabez: itz alkarbatu-ena. Ezagutzen dugu eginbidea: bi itz, bakoitza bere esanaiarekin ar-tu, alkarri josi eta itz berri bat sortzen da, beste esanai berezi ba-tekin: alkar-izketa, paper-ontzi, sa-si-idazle, toki-aidatu... edo-ta itz bati, izki edo sufijo baten esanahia erantsi: banaketa, pelotari, lankide, batuzale, aserreko... Gramatiketan arkitzen da gai honen gainean nai aña xehetasun.

Itz alkarketa hori, euskarak duen gaitasunik miregarrienetako bat da, eta hartaz baliatu da betidanik euskalduna. Euskararen «barne-in-dar» horren bidez gure iztegia ugal diteke eta zabal kasik mugarik ga-be. ein maixukiro baliatu dan «Ori-xe» ere barne-indar hontaz izperri eder sakonak antolatzen! Gisa hortan sortutako itzak ez zituen, berak, «izperri»-tzat. Tovar jaunak bestela pentsatzen du; baina ez zaigu ajiola gauzaren izena, gauza bera baizik.

Esaten zuen «Orixe»-k, itzen sor-ke-taz zentzuz eta buruz baliatu ez-keru, euskarak ez duela iñora jo beharrik itz berri billa; etxean ber-tan du labea, euskaldun bakoitzaren buruan. Baina labe hoietan opil-lak egosteko, sua behar; barne-in-darra da su hori. Eta su hori, indar hori, gero eta ahulagotuz doakigu; opillak egin beharrean, ogitegian ogi arrotza erosi nahiago du euskaldunak, erbesteko iriñez egindako ogia.

Gure gerra ondoan ez zan giro izperrirentzat; lehen bai, eta haietaz okituak ginalako edo, beste mutu-rreraino itzuli bat egin genduen. Euskaltzale talde bat, Krutwig bu-ru zuela asi zan euskararen kul-tur-iztegia itz arrotzez betetzen. Erdal itzei argi berdea piztu zi-tzaien orduantxe eta geroztik ez zaie diskoa berriro itxi.

«Orixe»-ren iritziz, etxeko gaiez egindako itz berri hoiakin euska-raren korapijilloak aska zitezkeala. Izkuntza landuek jakintzetarako as-matu dituzten itz gehienak, arro-keriak sorreraziak dirala esatu zuen; arropuz eta zakartzat zeuz-kan berak. Euskarak ez duela bide basati hoietatik jarraitu beharrik. uZzen zegoen, dudarik gabe; baina gure erri-izkuntza haietaz inguratu eta menperatuta arkitzen dalako, nahitaezkoa zaigu haiei amor ema-tea, neurri batean behintzat. Bai-nan kontuz, zentzuz eta iñola ere neurri horri gaintu gabe, gure arteko anitz ari diran bezala. Ala-bainan gure euskal jakintsuetarik zenbaitak, egoak ematen dizkiete idazle erdal-goseei, errazago egaz egin dezaten. Obe lukete ibiltzen irakatsiko baliote lehenik... Esae-rak diona: «umeari behatza emai-ozu, besoa artuko dizu». Ongi da irakurle arruntari bidea arintzea, erraztasunak ematea; baina gauza bat da erraztasuna, beste bat erraz-keria, zabarkeria. Gaurko idazleak —ez denek, zorionez— ez dute as-

ki erderazko itzak eta abar, kul-tur-arloan erabiltzeaz; literatura gaietan ere sartzen dituzte parras-taka, ez buru eta ez oin, batere beharrik gabe, sarritan beren bu-rukizunak adierazteko euskarak itz jatorrik ba ote duen galdetu gabe eta griñatu ere gabe. Orain gutxi duela, frantses idazle baten ipui bat euskaraz (?) eman digu nor-baitek. Esan dezaket argi eta gar-bi, marka guziak erretzen dituela bertan itzulgilleak. Morfolojiari, jos-kerari eta bereziki iztegiari ema-ten dizkien makillazoak ez dira le-rru gutxitan adieraztekoak. Eta ematen dizkie —alaxe dio berak— «autoreari zor dion errespetuaga-tik». Bapo zio! Eta, diot nik, eus-kaldun irakurleari zor zaion erres-petuaz, zer? eta zer, euskarari be-riari zor zaionaz?

Gauza hauetaz mintzatzeko toki gehiago behar litzake; baita ere, nerea baino luma trebeago bat. Zilegi izan bekit alaere nere kez-ka larria emen agertzea bederen.

«Orixe» ainbeste ederresten zuen «barne-indar» dalakoa arriskuan ikusten dut. Arriskuan dagoen eus-keria bera salbatu nahiez dihardu-tenek artu behar lukete kontuan harako indar hura, euskal-sumoa erabat itzal ez dadin. Susper de-zagun euskal-sumoa barnetik, piz dezagun haren barneko labea, be-rotu haren gogoa. Egikizun da, egin-errezza ez bada ere. Nola egin? Izkuntzalariek asma ta idaroki de-zazketen sendabidez gainera, hau-xe galde egingo nuke nik: «Orixe»-ren denboretan ez genduen ba-dugu gaur: ikastola. Ez nahi be-zenbat noski, baina bada zerbait; asko ere bai, aukeran. Haietan egi-ten ari dan lana ederra da, eta txit onurakorra beren irakasketa.

Irakats ditzatela ikastoletan barne-indarraren asi-masiak ere. Eman dazaietela ohorezko leku bat, itza alkarbatuen oinarri eta sortzaila di-ran konposizio eta sufijazioari. Asi-masiak diot berriro, besterik ezpailiteke eskatu lehen mailetan. Aurren adimenaren araberakoa izan dadila, orra. Maisuen eta andere-ñoen arazoa da hau; antola deza-tela berek, gisarik egokienean, ereintza emankorra izan dadin.


Egin bezate orobat Alfabetatze-taldeko irakasleek ere.

Baliteke nere eskabide honen beharrik ez izatea, alegia, eskatzen dudana eta horixe egiten dalako jadanik. (Ikastoletako irakaskintza-ren berri zehatzik ez dut-eta). Ala balitz; milla bider obeto eta nere poza ere aundiago.

«Orixe»-ren gogakizun bat ekarri nahi izan dut lerro hauetara. Gu-ziek ezagutuak izan arren, ez dut uste emen berriz aipatzeak iñori ere kalterik egingo dijonik. Alde-rantziz, bati baino gehiagori on egin dezaioke. Batez ere, zabark-erik edo jakiñez euskera ustel-tzen ari zaizkigun erdaltzale hoi-ek. Ez dezatela ate atzera bota «Ori-xe»-ren burukizun bikain hau.

Honen alde nere boza emen go-ratuaz, errebeska ta moldegaitz ari izan naizela badakust. Ez dut ober-rik egiten ahal izan eta barkatu. Horregatik eta nere esanak biri-biltzeko, «Orixe»-ri berari eskatuko diot azken itza; ta izan bedi hau, nere lantxo honen buruan ezarri dudana hura bera: «Aurrera, txukun-zaleok! Txukunkeriarik egin gabe, bainan ainbeste ahalmen dituen gure izkuntzari txinpartak ateraziz».

Bozas Urrutia



OREXA



**Baserriaren alde**  
EUSKAL ETA ERDAL

**Caja de Ahorros**  
Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan  
etorriak

**ZURE EZTAIETAKO ARGAZKIAK**  
KOLORETAN  
**BERSAN** argazkitegian

★★★★★★

**ZURE LANTEGIKO ARGAZKIAK**  
KOLORETAN  
**BERSAN** argazkitegian

★★★★★★

**GORRERIA DUZULA ETA**  
**BERSAN** ikertegia

★★★★★★

**BEGIETAKO EZIN IKUSI-ARENTZAT**  
**BERSAN** ikertegia


San Martin, 31 - urrutizkiak 421594 - 411803 - 428733 - DONOSTIA



## ORIXE KIN ZORRETAN



«ORIXE»



GAURKO BASERRITARRA OREXAN



Dionisio Amundarain

Euskal-sua itzalia zegoen garaian oinez ikasiak eta su hori berriro piztu baino lehen haziak gaituztu. Ez ikastolarik, ez alfabetatzerik, ez euskal kulturari eta ez euskal-idazleei buruzko itzaldirik zen gure haurtzaroan eta gaztaroan.

Ez euskerazko hitzaldirik, ez ikastaldirik, ez otoitzik, ez ezer izan genduen Apaizgaitegian hamabi urte luzez. Ez zitzaigun irakatsi ez euskal kondairarik, ez literaturarik, ez arterik, ez ezer. Euskaltzetasuna bera ere itzali beharrezko grina txar bat beste-rik ez zen.

Euskera lantzeko arrazoi bakarra, erderaz ez zekien jendea iriztegin beharra bakarrik izan zitekeen. Arrazoi horregatik, nahi zue-nak, bere kontura ikasi zezakeen zertxobait; baina grinarik gabe, arimen onerako zen neurrian bakarrik. Ez bait ziren asko erderaz ezer ulertzen ez zuten arimak eta euskerak berak ere ez bait zuten berrogei urteko bizirik. Alferrikako nekea zen euskera lantzea eta arriskukoa gainera, politika grina piztu bait zezakeen oso erraz.

Giro hortan eta egoera hortan haziak gaituztu. Baina piztu zen batzuen barruan euskal-grina eta aurkitu genuen bidean hori onartzen zigan apaizen bat edo beste. Izan nuen, etsera zergatik ez nuen euskeraz idazten galdetu zidan apaiz-maixua ere.

Egoera hartan Orixek zenaz topo egin nuen. Orixeren «Meza Bezperak» liburua hain zuzen ere. Otoitz-liburua zen. Gai hori ausnartzea bidezko zen gero gure esku edukiko genituen euskal-arimak behar bezala janzaritzeko. Nor auzartu euskerazko liburu hori debekatzen? Ezta euskeraren etsairik haundiena ere.

Liburu horixe genduen egunerororderdi batez. Latinez ulertzen ez genduen hamaika gauza ulertu genduen. Eta euskeraz jasotzen ez genduen latinari zeharbegiratzentzen genion.

Orduantxe jabetu ginan beste hizkuntzetakoa baino euskerazko otoitza barrurago sartzen zitzaigula. Beste ikutu bat eta beste igortzi bat eta beste heldu bat egiten ziola gure barruari. Beste zirrara bat.

Orduantxe jabetu euskeraz ere gauzak esan zitezkeela. Gauza sakonak, teologiazko gauza sakonak, eta ez ipuinak bakarrik. Orduantxe jabetu ginan etxean eta herrian ikasitako euskera hitz-jate askoz erabiltzen genduela. Landu beharra zegoela gurasoengandik ikasitako euskera.

Orduan ekin genion euskera ikasteari. Argitaratzen ziren euskal liburuak erosteari eta irakurtzeari: Barne-muinetan, Euskaldunak Poema, San Agustinen Aitorkezunak... Ekin genion taldean biltzeari. Orduan hasi ziren idazten: Aranalde, Gaztañaga, Lukas Dorronsoro, F. Setien, Joxe Alkiza...

Astean behin bildu ohi ginan irakurritakoaren berri ematera eta idatzitakoak elkarren artean zuzentzera. Baina dudarik ez da, Orixek «Meza Bezperak» liburuak jabetu arazi gintuan euskal-joskeraz eta hango hitz zahar eta berriz aberastarazi gure etxeko euskerazko hiztegia. Liburu hortan ikasi genduen bazirela etxean ikasi ez genituen euskerazko era desberdinak.

Orixek izan zen ia maixu bakaberterik edukitzerik ez ahal izatea. Tristeia beste idazle gehiago bazirela ia ez jakitea. Literatura zaharrik bazenik ere inork ez esata iturri joria. Baina tristeia da rra, ia iturri bakarra. Maixu ona tea.

Baina tristeagoa izango zen inor ez ezagutzea. Eta zail izango zen garai ilun haieran, Orixek ez izatera, beste inorekin topo egitea. Horregatik esan dut hasieran «Orixekin Zorretan» gandela. Ez zizkigun gauza denak emango. Ezta emandako guztiak onak emango ere. Orixegandik jaso dugu, ordea, dugu on apurtzua ia gehienik.

Beharrezkoa izan da guretzat Orixek. Ez dugu maixu hau edukitako penarik. Ezta iturri hontatik edandako damurik ere. Zorretan gaude. Egiogun omen eta gorasarre zor hori aitortuz.

M. ATXAGA

## Orixek, ingurumari batetako idazle

Esan beharrik bai ote? Euskaldunok asko eta asko zor diogu Orixek zenari. Beraren idazlana, zabal bezain joria izan da: erlijioaz ugari idatzi du, eta alderdi askotatik, prosan nahiz bertsoan, berez nahiz itzulpenez (Barne Muinetan, Urte guziko Meza Bezperak, Agustín Gurena'ren Aitorkezunak, Jainkoaren Billa, beste mila artikulu han eta hemen); hizkuntzaz ere orobat (hamaika artikulutxo utzi du euskal aldizkarietan barreiaturik); literaturazko lanik ere bai, bere baitakorik nahiz itzulpenik (Euskaldunak poema, Tormesko Itsu-Mutila, Mireio) e.a. «Gai guztiak ikutu dituala dirudi» esanen digu Aita Goiriak (ORIXE, OME-NALDIA, Donostia 1965, 66 or.).

Orixeren idazlana zabal eta joritsu izan arren, ez dut zentzuga-bekeariarik esan uste, egungo giza-belaunaldiari aski heretua zaiokela esanaz.

Ez dut jo nahi Orixeren euskararen balioa neurtzera edo irizte-za. Bada ni baino trebeagorik horretarako. Ez noa ere, euskara-batasunaz Orixek ukan zuen jokabideaz jardutera; gai horretaz, Z.A.-ren zerbaki honetan bertan beste norbait aritzeko omen. Zenbaitean, gure neurketa guztia-edo bi puntu horietara mugatzen dela ematen badu ere, idazle batetaz iriztean —eta beste edozein kasutan—, beste puntu hau jotzen dut nagusien: idazleak dakarren mamilia, pentsamendua, mezua. (Ez dut esan nahi, idazkerak eta euskara batuan ala bestela idazteak mezurik ez dutenik). Horretaz izanen da nere lantxo hau.

Orixek, heretuegia nion. Halaxe da. Horregatik, goian aipaturiko Aita Goiriaren esanari eta beste zenbaitenari, egundoko ahoberokeria deritzat: borondate onetik darriona, baina, funtsean, ahoberokeria. Inolaz ere, jokuan, hemen pentsabidea ez-ezik (jakintza guztia zenbaitentzat nekazaritza, artzantza, arrantzobizitza, dario), pentsagaia bera dago. Honela Ibarrek, «Reseña literaria del Poema Euskaldunak» idazkian: «Tema objetivo: la vida vasca, reproducida del natural, y abarcada en su plenitud interna y externa (nik azpimarkatua). Tanto, que apenas abrá un lance en ella, ni situación en la escena donde se desenvuelve, que no halle en los versos del Poema un reflejo vivaz... Toda realidad sin excepción. El aforismo de Víctor Hugo: "tout ce qui est dans la nature est dans l'art", pocas veces habrá tenido más riguroso cumplimiento» (ikus, Euskaldunak Poema eta Olerki guztiak, Añamendi 1972, 694 or.). Inolaz ere, autore horrentzat, erreallitate bakarra naturalez da, eta naturalez, berez datorren belarra, berez sortzen diren zuhaitzak, berez ugaltzen diren arrainak dira, eta gure lantegietan egiten diren tramankuluak, gure hirietako bizitza, ez dira ezer.

Zertan luzatu, ordea? Orixek berak apaltzeago dihardu, nahiz ez aski garbi. Kritikariak Orixeren idazlan nagusienetaz jo duten Euskaldunak poeman hona zer dioen: «Ez-ikasía balin ba zera, utzi ezazu aurre-berriketa hau, irakurle ta sar zaite bete bete bertsuetan; zuk eginak bezela baitira, ta zuretako eginak batez ere. Ikasia balin ba zera, zurekin dut izketa hau. Ez ditut egin bertso ok, ain zuzen, zuretako; bai ordea zuk ere irakurriko dituzulakoan» («Euskaldunak...», Añamendi 1972, XXXIX or.). Eta aurreraxeago, honela: «Ez dut lan ontan deusik as-

matu. Erria dan bezela azaltzen saiatu naiz; ired ipsa loquatur»; gauza bera mintzo bedi» (ib. XLI or.).

Batetik, Poema ez da jende ikasiarentzat; honek beste mundu bat bizi du: hala ezagutzen du Orixek berariz ez bada ere. Bestetik, «erria dan bezela azaltzen saiatu naiz» dio; esan ditek, jende ikasia ez duela herritaz hartzen. Nonbait, ikasien kultura ez da jakin-garri, ez da euskaldun. Zein herri-erri dihardu, beraz? Hogeigarren mendeko Euskal Herriaz ez, bederen; gehienera, 1889-1905 bitarteko Uitz herriaz.

Alderdi honetatik nion, Orixek aski heretua agertzen zaigula. Euskal erreallitate murriztu, soildu egiten duela. Ez dut Orixek guztia irakurri, asko bai, haatik. Topatzen nago oraino Orixerengan, XX mendean lehen erdian Euskal Herriak bizi izan duen gizarte —politika—, ekonomia-giroaz zerbait sakonik. Hona nola adierazten dizkigu Orixek berak bere garaian euskal letretan erabili izan diren gaiak, JAKIN-i erantzunaz, bere burua eta garaia zuri nahiaz-edo: «...Gutxi edo asko saiatu gera Metafisikan, Estetikan, Gramatikan, Aritmetikan, Geometrian, Fisikan eta Kimikan...» (JAKIN 11'gna. 1960, 84 or.). Itsuenak badakus, hutsarte handia dagoela gai pilo horretan; zer, esate betetarako, giza-jakintzaz, ekonomiaz, politikaz?

Inolaz ere, norberak daki zertarako den gauza eta zein bide dituen bere lanbidean. Horregatik, ez nioke Orixeri, ez beste inori, aurpegian emanen bere lanaren eskasiaz. Baina, gauza bat uste dut: Orixeren izena «desmitifikatu» beharrean dagoela. Egia berea zor zaiolako, batetik; bestetik, gaurko bide-urratzaileen aurrean eta kontra, dena egin dagoelako aitzekia dela bide egonean goxo legokeen jende askotxo dagoelako.

Orixek batek, euskal-arima definitzeko, aski izan zuen, ia, bere haurtzaroan xurgaturiko nekazaritza-artzain giroaz. Gaurko Euskal Herriak, zorionez, nekazaritza eta arrantzobizitza bertatik, Orixek marraztu duenaren aldean, giro arras desberdina bizi du: giro dinamikoagoa. Dinamikoagoa, ez, lan gehiago egiten delako, nekazaritza eta arrantzobizitza eta beste, mentalitate berriaz hartzen dituelako; Orixerengan inolaz ere ikusten ez den bezela. Industria eta hiri giroan, zer esanik ez.

Hain ugari erabili dituen erlijio-gaieran ere, berak adierazi duen bidearen aldean, gaurko giroa arras bestelakoa da.

Orixek —nor ez?— bere garaiko gizona da (bere garaiko eta jaioterriko, hots, Orixek-Uitziko girokoa hein handian bederen, esan beharko nuke). Bere pentsabidea ere, orobat. Hainbat moldatzen du haurtzaroak eta gaztezarok gizona eta beraren lana!

Gaur egungo arazo, prolema, pentsabide eta gauzak, orain 38 urte (Euskaldunak poema idatzi zeneko urtea) Euskal Herriak bizi zutenak bezela emanaz sasi-arrazoi-

ketan ari naizela? Ez da hori. Hauze soilki: Orixek idazle arras estatikua, dagoenean dagoeneko dela esan nahi dut; eta nago, gainera, idazle batek igerletza apurren bat ukan behar duela.

Ene kritika, beraz, ez doa, nekazaritza, artzantza, arrantzoa... abestu dituelakoari. Hori guztia estatiku moduan abestu duelakoari baizik, eta euskal erreallitate guztia, estatiku-moduko biziera-zati horretan ipini nahi izateari.

Halaz guztiz —esan dezadan laster—, Orixek betirako izanen dugu euskaldunok. Ezagutzen dut bat baino gehiago, eta gaur gaurko euskal munduan murgildutakorik, Orixek zorutzen irakurtzen duenik: Euskaldunak poema, Jainkoaren Billa... Bada, izan ere, gizakiak bere giza-barne-egiturari halako buru-muin zokoren bat naturalezaz xertaturik: gaurko zibilizaioan zelako garrantzia ez zaito ematen naturalez edo izadiari? Zergatik hori, barruak eskatzen diolako ez bada? Literatura mailan, Orixek izanen dugu euskaldunok, hein batean bederen, berde-inguru hori. Bada naturalezak, bere aldaberatunaren ondoan, betikotasun bat, betikor den zerbait. Hauze abestu digu Orixek nolabait. Eta, Jainkoaren Billa liburua? Bada, gaurko teologia giroa ez dela-eta, liburu hori baztertu duenik. Bada, halabaina, bestelakorik ere gaurko teologia begi betegarri zaienetan. Teologia murrizturik aurkeztu badigu ere —noren a ez da murriztua?—, Jainko haragitu behar hainbatean marrazten ez badigu ere, egiako alderdi bat agertzen digu bere liburuan: Jainkoaren transzendentzia.

Dudarik gabe, giro batetako idazle delarik ere, betirako geratuko zaigu Orixek euskaldunok.

Orobat, Euskaldunak poemak dakarren lelo hura ere:

«Geroak esan beza: "Erri bat izan zan" edo-ta ats emaiogun ontan irau dezan»

(Aipaturikoan, 3 or.); baina, mende bakoitzak, «edo-ta ats emaiogun ontan irau dezan» delakoa, bere gisara hartuko du. Hala behar ere. Eta gaurko belaualdiak, historia bere eskutan hartu duenak, biziago eta eginkorrago hartu nahi du.



MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)  
Avda. de Francia, 1  
— IRUN —



YOGUR  
**GURELESA**  
GOGOZKOENA




«gizon askara zirez ta edozein gaitzen oso jakintza...»



# Orixe, bai eta ez


# ZE KALETAKO HAIZEA DA HORI!



OREXA ELURRETAN



LIZARDI ETA «ORIXE»



Berriki arte ez naiz «Orixe» zinez ezagutzen hasia. Orain badaikit ez dudala utziko. Zilegi zaida, ordea, «Orixe»-z izkribatzea, gero hobeki ezagutuko dudalakoan?

Gizon eztabaidagarri hartaz edozein ustetakoak garetzke; gauza bat ezin uka, alegia «Orixe»-ren nortasun berezia. Garbizalekeria hain hedaturik zegoen denboran, hura garbizaleen kontrako ageri zen, nahiz eta batzutan garbizaleek eraginik burua makurtu. Ikus, esate baterako, «Urte guziko meza bezperak» liburuiko aintzin-solasean, «birjiña» bestela nola esan zitekeen latinetik ez letorkeen hitz batez... (Behinik behin ez zuen «neskuts» on hartu!).

Zerk aldentzen zuen «Orixe» sabinar eskolatik? Ene ustetan, eta ezer baino areago, euskara gutik bezala ezagutzen zuela. Eta bigarrenik, euskararen arazoan asmatu ez, baina kontserbatu eta atxiki behar zela konturatzen zen.

Euskara hain ongi zekiela, txit trebe zen hitz berriak sortzen, sortzeko beharra ikusten zuelarik (ez eskola harek hainbestetan, jakina!). Arrazoienez zion Mitxelena (1), «Orixe»-k eman zigula euskararen gaitasunari buruz behar genuen esperantza. Eta zein euskara eder eta zuzena!

Hori bai, «Orixe» zaharzaile zen, intelektista edo integrista-itxurakoa. «Euskaldunak» poema irakur eza: nork sinetsiko mende honetan izkribatua dela? Areago: 1936 an bukatutik zegoela? Batzuek esan dute liburu horren giroa gezurrezkoa dela. Ez naiz ni hori esaten ausartzen. Baina hau bai, segurki: liburu hori ez da 20 mendearen lekuko, edo xuxenago esanda: lekuko egia. Ez zaitezte joan industria-giroaren bila liburu hortan barrena, lantegi-istiluen bila edo langilearen egungo egoera mixerablearen bila. (Burura dator kit urte haietako Euskal Kondaira bat: egilearen ustez, euskaldun GUZIOK BETIKO bizi behar genuke baserritan). Horrez gain, poema horrek, iduriz, «euskaldun» jatorrak zein eta nolako diren adierazi nahi digu, horrela euskaldun jende asko «eskomikatzen» bada ere, hala nola Detxepare apaiz emakumezalea, Leizarraga protestantea, Etxahun gaxoa, Jean Etxepare midikua eta asko eta asko, mezatara joaten ez

direnak edo Euskal Herriko aurpegi horrekin bat ez datozenak. Zer esanik ez, hauk «sasi-euskaldunak» omen dira, eta beste guziak «benetakoak». Bidebatez, ez da harrigarri Barojak aurpegi hori arbuiztzen zuela (eta ez naiz ni Barojazale debot hoiteakoa, gero!).

Gogora ditzagun Europako literaturari buruz «Orixe»-ren usteak: «Azkenik, literatura (h)orrek o(h)iturak andeatzen ditu. Ele-eder dalako (h)ori e(h)unetatik larogei ta (h)emeretzi, gordinkeri, likiskeri, lizunkeri, urdekeri, ustelkeri besterik ez da...». Geroxe: «Ez dago (h)onen be(h)arrik; landuago dago askoz ere ikasien prantsesa baiño. Arauz aztertzea besterik ez daukagu bataren ederra ta bestearen itxusia ikusteko» (2). Begira zer moduz Balzac, Flaubert, Hugo, Goethe, Schiller eta beste, kolpe batez pikutara!! Hoiien errua hau-xe bakarrik izan zen: gizonen ispilua izatea.

Urte batzuren buruan, Txilardegiren kontrako gauza bertsuak esan zituen: «Ez dugu (h)emen (h)olakorik be(h)ar» —hau da, Peru Leartzako bezalakorik— (3). Eta «Orixe» bera hile gero haren artikulua batetan irakur daiteke:z (H)ortaz beste, (h)iru izen berriri diet nik gorroto bereizia: humanismo, civilización, cultura» (4).

Erraz da esatea, noski, «Orixe»-k apaizteko heintsutan atzera egin zuela eta apaiza balitz bezala bizi. Beste eratako euskaldun apaizak ez ote dakuskiugu? Zergatiak aztertu behar dira, egun ere pentsakera hori edo antzeka nahiko zabaldurik bait dago, dudarik ez.

Ez naiz luzatuko. Baina behin «Orixe»-z oroitzen hasiz gero, Euskal Herri zabal bat sinesten dugunok elkargana gaitezen, harek utzitako ondasuna hartu eta, bai, segi aurrera.

Daniel Ibargoiti  
Gasteiz

(1) «Egan», 1961 (4-6).

(2) I. Sarasola-k aipatu, «Euskal Literaturaren Historia», Donostia 1971, 67orr. «Euzko-Gogoa», 1954.

(3) Sarasola, 68 orr.

(4) «Omenaldi» liburuan, Donostia 1965.

## AITA MUXIKA'REN IZTEGI BERRIA

(Bigarren argitaraldi onek 25 x 16 zentimetroko MILLA orrialde izango ditu gutxi gorabera)

1973'garrengo Urteberria baño len, AURRETIK EZER ORDAINDU GABE, arpidea eskatzen ba'duzu: Aita MUXIKA'ren DICCIONARIO CASTELLANO-VASCO laburtua % 30 merkeago jasoko duzu. Bial ordea zure seña OSOAK argi eta garbi zuzenbide ontara: P. Plácido Múgica, S.I. (Santuario de Loyola. AZPEITIA. Guipúzcoa).

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

## JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA  
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK  
Hernani, 4 DONOSTIA



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

Ez noa bila:  
Badakit ezinezkoa dudala  
Zu bilatzen jardutea.

Bainan,  
eta orduan  
nerekin oheratuko zara.  
argiz jantzita.  
harrigarritz, berehalez jantzita.

PEDRO SALINAS

Ez gara «Opera Omnia» delakoen irakurle eta gure garai harrigarri, puskatzaile honek legatzaren arantzak bakarrik ekartzen dizkigu. Ezin bestean. Kalean, biblioteketan baino argi gehiago aurkituko dugula esaten digutelako edo. Piktara! Behingoz ezagutu dugu Orixe ahal dugun neurriko batasunean eta Labayen-en «Compendio Euskaldunak» aitzakitzat harturik, errezezi baztertu dugula Orixe iruditzen zait. Eta ez, noski, Labayen-en erruz.

Andre Breton-ek gure munduko kultura zein den agertu nahiz «filosofaren hainbat gizaldien ondoren, lehen gizonen ideia poetikotatik bizi gara» esaten digunean, eta ez zaiola arrazoirik falta ikustean, konturatzen gara, garenean behinik behin, zein zaila den gure egunetan ideia berriak sortzea nahiz eta gure euskal mugimendu kulturaleroko zenbait eguneroko ogia dela iduritu.

Esan beharrean nago ez naizela Orixeren literatur-moldeen aldeko baina baitare bere tokian jartzen ahalegindu naizenean bakarrik aurkitu naizela Orixe haundiarekin. Jigantearekin.

Eta bere deia nereganaturik, ni ere bere hitzetara jarri nintzen:

Zatozkida Goi Arnas  
Egizu nerekin lan  
Erri baten arnasa  
Mamitu dezadan.

Gazteon pekatu da etxekoa ahazturik, ez-ezezagunetan murgiltztea. Bestela, ez kintezke gazte. Jatorrietan, aho betez esandako hitz borobiletan —historizidatea, herriaren aurrerabidea, Literatura iraultzailea— justifikatzen gara zeinbaitetan bainan gure garaiko euskal kulturak kanpora begiratu duenean, etxekoa ahaztu du. Eta kanpokoa ez dugu bere benetako neurrian gureganatu, ze, ezinezkoa da, gure kulturaren habeak ahaztu ditugunean, sortzen ari garan lokatzezko irudi berria gurea denik esatea.

Gure kultura elbarri dela, baina bi aldiz elbarri, ez bai ditugu lehen zituen oinak ezagutzen. Hau, noski, oin haiek indartu ziren edo ez ez arazo zailetik at.

Orixe eta Lauaxetak gure olerkiari alderdi berri batzuk sortu zizkioten. Eta gaurko literatura berria Lauaxeta eta Lizardiren bultzadaren pean sortu denik ezin ahaztu. Joera-estrategia eta influentzia-pentsamendua-ezberdinak dira oso. Gerra aurretik dator influentzia. Gerra ondoren joera. Eta hau ahaztu dutenei gogoratu behar zaie bereziki Lauaxetak idatzi duela lehen euskal olerki soziala. Garaiarekin batera. Eta Orixe bi mundu lotu dituela.


Jigante bat izan dela.

Anjel Lertxundi



# “orixe”ri gorasarre

# O R I X E



EZTAIONDO



UITZI



Euskal Herriko giroa erruz ari da aldatzen; eta gaur Nikolas Ormaetxeari buruz iritzi bat emateak ez dirudi harrokeria. Orain dala urte batzuk —hamabost bat, eman dezagun— Orixeren alde hitzegin zitekean; baina ez Orixeri buruz. Ez, areago, Orixeren kontra. Orixeren balioa zalantzan jartze hutsa aski zan euskaltzale askoren eskomiku guziak biltzeko. Literaturan ere (eta ez politikan bakarrik) ba omen genuen betirako Maisu bat: Nikolas Ormaetxea «Orix».

Irakurgarria da, honi buruz, Aita Mokoroak «Genio y Lengua» dalakoan diona. Nekez egin ditek goratzapen haundiagorik liburu bati buruz. Hogeita hamasei orrialdetan barrena, behar genuen Ebanjelioa eman berri zaigula sinistartzatzen saiatzen zaigu «Ibar»: «El pueblo vasco puede aún salvarse» (230). Eta, beti ere «Euskaldunak» poemari buruz, beste laudorio askoren artean hau dio: «Por disposición providencial de Dios, ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales, el cual, de la abundancia de su propia vida, plétoricamente vasca, acaba de plasmar la figura viva de nuestro genio» (193); «en el poema Euskaldunak de Orixe tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su regeneración» (194); «una vez dueño el renacimiento vasco de este resort, tiene ya en su mano la clave de nuestra civilización y, con ella, la suerte futuro de la nacionalidad» (195); «es la representación de nuestro pueblo» (198); eta abar. (1) Xehekiago aztertu nahi duen irakurleak, «Genio y Lengua» irakur beza: 193-230 orrialdeak).

Gerra ondoren are Zaitegi bere adiskide minaren iritzia ez da hoztagoa: «Euzkadi-k dagoeneko ba du bere poema nagusia... non-naiko eta noiz-naiko poema bikaienak bezin bikaia». (2) Ikus Euzko Gogoa, 1950 - 7/8 - 8 gn. h.). Eta hau dio: «Gure herri osoa poema ortan dugu».

K. Mitxelenak berak giro horren eragina erakusten du «Historia de la Literatura Vasca» dalakoan, ondoko hau idatzi duela: «El es en varios aspectos el autor más importante de toda la literatura vasca» (148); eta «su conocimiento de la lengua y la destreza con que ha sabido manejarla no necesitan ponderaciones» (149).

Ni neu ere giro hori oraindik nagusi zalarik hasi nintzan euskal literaturaz arduratzen; eta Bilbaon ikasle nengoelarik, «Kito'n errebarekin» artikulu-saila aztertutakoan, nahiz gaia —mistika gorabeherak eskuarki— ez oso gure gogokoan izan. Baina euskeraz ikasi nahi genuen eta, hoberik ez zegoelakoan, Orixeren izkribuetara jotzen genuen: «Kito'n arrebarekin», «Barne Muñetan» eta «Euskaldunak».

Ezari-azarian, halere, Orixeren maisutasuna epeldu egin zan guran; eta hiruzpalau urtetan deuseztatu ere bai. 1955 orduko, eta Zaitegi eta Orixe Euskal Herrira bihurtu orduko beraz, aurkako joera nabarmen bat agertua zan euskaltzale berri ginar batzuen artean. Nola horrela?

Belaun berriaren ukaera hori aztertzeko eta ulertarazteko asmoa dut nere artikulu hontan.

## ORIXE GIZONAZ BI HITZ

Orixeren lanak ezagutzen ginen, ez Nikolas Ormaetxea bera. Hau Guatemalatik 66 urtetan etortzean, beraz, euskaltzaleen gidari famatua buruz-buru ezagutzeko aukera izan genuen. Eta ni neu bederen, areago finkatu nintzan lehenagoko nere susmoetan: Orixe ez zan, nere uestez, euskal intelektualentzako buruzagi egoki bat, eta ez gutxiagorik ere.

Barka bizait irakurleak xehetasun pare bat ematea; ueste baitut oso argitsu izan dakizkiokeala.

Operatu berria zan Orixe Donostian, Ategorrietako klinika batean; eta ikustamen bat egitera joan gintzazkion nere emaztea eta biok. Sartu gera, agurtu dugu; eta... nos-

ki, guk euskeraz. Orixe behin eta berriz erderaz erantzun! Ezin sinistuzkoa! Lotsaturik eta amorraturik (adin-diferentzia, klinika-giroa eta erriaren maisutasuna gogoan hartu besterik ez ditu irakurleak behar) halako batez, eta odola zirakidala, hau esan nion: «Adi zazu, Orixe: euskeraz ere badakigu». Orixe ez zuen nere ziria ulertu ere egin; eta ez zuen ezer funtsezkorik erantzun. Eta ikustaldia bukatu arte emazteak eta nik biok euskeraz, eta Orixe ekin eta ekin erdera hutsuz! Gela hartatik zer umoretan eta iritzitan irten ginar azaldu beharrik ez dago, nik ueste.

Oso gertaera xumea izanagatik ere, susmo berberak idaroki zizkidan Leitzeko pasadizu txiki batek. 1957ko Abendua zan, eta Leitzera bilduak ginan euskaltzaleok: euskaltzain egiten zuten Orixe egun hartan. Honen euskal hitzaldia hasi da. Aretoa gainezka, eta zarata han eta hemen. Atzekaldek ezin entzun, itxuraz. «¿Qué? ¿No se oye ahí atrás?», Orixe goratik galde... Entzule guziok, esan beharrik ez, euskaldunak, euskaltzaleak (gure artean ipartar euskaldun talde bat, Labeguérie-rekin etorria, esate baterako); eta Orixe Euskaltzaindira sarrerakoan, Leitzen, ez Tudelan. Holakorik? Txundituta ni, zurtuta; eta ni bezela beste anitz, danak agian.

Geroztik Euskaltzaindiko bileretara etorri ohi zan (ez danetara). Asko eta askotan, biltzar aurreran eta ondoan, Orixe barra-barra entzun izan dut erderaz; eta euskeraz oso bakanka. Euskeraz ederki zekien, ordea. Zertan zetzan, beraz, funtsezko erdaltzaleasun bitxi hura? Azalpen bat ematen saiatuko naiz.

Nik ezagutu nuen Orixe gizonaz, bukatzeko, beste oroitzaipen nagusi bat: berritasunari gorroto. Oraindik ere ongi gogoratzen naiz Ategorrietako gure ikustamenaz: ni etsistentzialistotik bertan sumaturik, nунbait, filosofia horren kontra mintzatu zitzaidan gogor, eta erderaz, esan dudán bezela.

Egiazko Ormaetxea eta izkribuetako Orixe bi pertsona zirala ikusi ueste nuen. Ondoko azterketak ondorio beretara eramango ditu irakurleak, nere uestez.

(3) Alderantziz gauza bera gertatu bide zan: Orixe ez ninduen batere gogoko. Eta orain dala hamar bat urte, gutun agiri eta luze bat idatzi zuen Orixe, eta euskaltzaleen artean zabaldu, Villasanten eta nere kontra hitzeginez, eta euskerari buruzko gure joera kondenatuz.

## ORIXE ETA GAURKOTASUNA

Mitxelenak egoki dio: «poco amigo de lo moderno» (148), «de la misma renuncia de Orixe a ser un hombre moderno, murado por las modas y preocupaciones del momento» (150). (4) Ikus «Historia de la Literatura Vasca», 148-150 orrialdeak.

Orixek bizi-maila guzietan uko egin zien munduari eta gaurkotasunari. Orixe mistiko bat zan, bai; askotan esana da. Baina Orixe daretan zan mistiko: bere Euskadi ez da mundutarrago bere Jainkoa baino; eta bere Espuru mendia «Tabor» bihurtzen bazan, Aralar, Euskal Herri eta mundua osoki beste zerbait bihurtzen zitzaion bezela bihurtzen zan. Orixe ez bide zan gure munduan bizi. Bere Euskal Herria ez zan gurea, bere mistikari eusteko izpirituarentzako bazter urrun bat baizik. Mundutik at zegoen Orixe bere idazlanetan; munduari eta munduko Euskal Herriari egiten zien ezespene guztizkoa zan. Mistikotasun hau beti aurrera izan gabe, ez dago Orixe ulertzetik, nere uestez. Jesuita zapir urtez egon bazan Orixe, kar-tujo izatekotan ez dakit nik inoiz komentutik irtingo ote zan.

Himalaya-ko eremuetako bontzoak bezelatsu, Orixe munduaren kontra eta at zegoen errotik. Sentidu hontan egiazko Euskal Herriaren kontra ere bazegoen. Alderdiarekin Orixe izan zituen hartu-emanak, gonbarazio baterako, ez izan beti ueste dugun bezin legunak izan, Orixe ez baitzuen «politika»n sartu nahi: «Ni ez naiz

Alderdiko, ez Euzko Gaztedi-ko, ez inongo politikako; baiñan bai euskaltzale, bai abertzale ere... Zertako ez duzu, beraz, esango didazu, «Euskadi» erabiltzen? Matxinada aurrera ez nun erabili, politika zelako». (5) Ikus E.G. - 1951 - 3,4 - 35 gn. h.).

Ukaera hortan Euskal Herriari berari uko egiten ziola ikusi ueste dut nik; Orixe eskuindarrago baitzan Alderdi bañu, eta euskaltzaleago ere bai. Orixe, benetan, ez zuen «politikarik» egin nahi; eta, hori dala bide, agintariena onartzen zuen. Nola proposa dakiguke intelektual erudizat gure herriaren politikan bere burua nahastu edo zikindu nahi ez duen intelektual bat? Garai hartako ideiei buruz orain deusik esan ez arren, zer pentsa zezateken Orixeri buruz Estatuarene alde buru-belarri saiatzen ziran abertzaleak? Nondik nora izan ditek eredu, herriaren kezke eta beharrez berariaz beretzen dan idazlea? Nondik nora izan dakiguke onuragarri hizkuntza eta askatasuna alkargandik urrutze, edo-ta etsaitze? Gauza bat da herriaren joera hau edo hura zorrozki aztertea, are kondenatzea ere; eta beste gauza bat, euskaltzaleasunezko sasi-mistikagintzan, herriaren burrukari jaramonik ez, eta ametsetako lilura belasketara biltzea.

Bestetaik ere alegiazko mundu hortan bizitzeko bere joera hori roga ditek. (Eta, bidenabar desadán, bi gauza dira, nere uestez, poesia eta munduari uko egitea). Europako ideia-korronte guzietatik at zegoen Orixe.

Orixek aski zituen Platon, Aristoteles eta San Tomas; eta hau ez du diximulatu ere egiten. Marxismoa, psikoanalisi, etsistentzialismoa, deus ez dira bere uestez. Gauza bera olerkiaz: «Ez Machado-tarrik, ez Juan Ramón Jiménez, ez García Lorca, ez nitun nik ordu artan ezagutzen. Orain izenez, ez irakurruz... Ez gendun liburutegirik, literaturazkorik beintzat... Irakurtzeko betarik eta amorratorik ere ez». (6) Lizardi-Saria Tolosan jasotzerakoan esana, 1961-eko Maiatzaren 28-ko hitzaldian. Xehetasun interesgarriak ematen ditu. Ikus Olerti, 1963 - 1/2 - 109.

Croce, Hegel, Zubiri, Heidegger, aipatzen ditu batzutan. Baina «klasiko» egoten da Orixe.

Nahiz euskaltzale porrokatua izan —eta hizkuntza-arazoaz arduraturik— Orixe ez du erakusten hizkuntza-jakinduriari buruzko kezka bizirik, ez ezagutzarik ere: estructuresmoaren mugimendutik at dago arras. (7) Ibar-ek halere bazekien Sausurre-ren berri. Fetxa batzuk ematea on izango da. Sausurre 1913an hil zan; 1938an Trubetzkoi; Hjemesev-ek 1935ean ezagutarazi zuen bere Glosematika; Sapir-en «Language» 1921ean agertu zan; eta Bloomfield-ena 1933an; ideia-mugimendua hasia zan. Croce ezagutu arren, bestalde, Orixe ez zuen erreparatu italiar filosofoaren balioa hizkuntzari dagokionez.

Gauza bera erlijioari buruz; gure mendeko arazo larriek ez bide zuten ikutu ere egin. Bere erlijioa haragi-gabe egon zan, lur-gabe, gi-zadi-gabe, eta mistikazko iruditzapen huts. Ez hezur-mamitan oratua.

Sartre-ri buruzko bere irizkeria oso tipikoa iruditzen zait. (8) Ikus E.G., 1954 - 3/4 - 66. Sartre «dohakade bat» iruditzen zaio; honen «azken liburua... ezur zulubita, nik ueste, barnean muñik gabe... liburu kaxkarra nik irakurri ori». Sartre «bere buruaren iainkotxo izan ditek ta bere lege... Nolabaiteko pilosopu orrek ele-ederrera io omen du —ele-itsusira esan— inon diran ustelkeriak gortekurako idatiz...» Eta kito. Hori da dana.

Gogoangarri zait ere Orixe seko-kontuei zien gorroto osoa. «Euskaldunak» poema irakurri duenak badaki Mikel eta Garaziren artean dagoen sendimendua gizatarra ez dala, haizezko baizik. Hau eginez, gainera, alde batetik gure base-ritarren egiazko girotik urrundu zan Orixe. (9) Aldera bitza irakurleak, esate baterako, Orixeren «Artazuriketa», 61-95 hurr.; eta Mogel-Arrueren «Artazuritze» ko an, «Baserritar Nekazarietzako Eskola»

dalakoan, 84-85 orrialdeak. Bi munduz ari bide dira gure bi idazlek: batakingerak ikusten dituen egokieran, besteak haragikeria eta ifernuko etsaia besterik ez du ikusten. Bestetik Orixe faltsutu egin zuen euskaldunen maitakera, osotara abstrakto eta gezurrezko egirik. Halere, eta jakina denez, Lizardik bultzatu zuen amodio pittin hori bera poeman sartzea; eta, jakina denez ere, Andoni Labaierenek ere bultzatu zuen hildo bereetik, bi maitaleen izenak proposatuz. Halaz ere Orixeri damutu egin zitzaion gero hortan amor-emana: «Obe nuen nere gisa egin banu... zañaik aldu besterik ez nion egin oiekin... euskera galtzen ari da, euskera galtzen ari da, Bizi dedilla liburutetan bederen, antzulan bikañetan; ez, ordea, ipui-berri nabarmenetan, ez satsukeritan». (10) E.G., 1954 - 5/8 - 102. Euskaldun izan nahi omen du hortan; baña Etxepare, gure lehenengo idazlea, euskalduna zan ere, eta apaiza batera; eta ez zuen herabetesunik batera erakutsi gai hortaz argi eta garbi idazteko. Europako literatura guziaz maitasun arazoetan bazaltzen ari zan adiuntzan (beharrik!), Orixe areago hestutu nahi zuen gurea. Beriz ere munduari uko.

## ORIXEREN EUSKAL HERRIA

Gauza agria da Orixeren Euskal Herria eta guk ezagutzen duguna bi gauza desberdin dirala. Zaitegik berak sumatu bide zuen hau; eta «Euskaldunak» poemaren kritika egitean, Orixe «atzoko» Euskal Herriaz diharduela dio.

Egiatik hurbil xamar dago Zaitegi. Baina egia hauxe izan ditek, nik ueste: Orixeren Euskal Herria mistikoa dala, ALEGIAZKOA, eta EZ EGIAZKOA. Nafarroako herriska txiki-txikietan aurkitu ueste du Orixe. Kalea gorroto du. Industria aipatu ere ez du egiten bere izkribuetan. Gaurkotatzen ez da inon agiri. «Atzokoa» ez, beraz: Erromatarren garaikoa gutxienez.

Ezta hori ere, ordea. Aski da gure baserritarrei buruz soziologia piska bat egitea, edo Ameriketarako joaira aztertea, edo Campionen «Euskarianas» irakurtzea, Orixe begietaraten dugina baserrigiroa inondik ere ez dala jakin dezagun.

Orixeren «Euskal Herri» hori, hitz batez, ez da inoiz izan. Eta hori ez da poesia-bide, nere uestez, alienazioa baizik. Egiazko poesiaz egia barruragoraino agerrarazten du hain zuzen, eta ez izkutatzen.

«Euskaldunak» poema «apoteosis del jebismo» bataiatu zuen behin Kruttwig-ek. Esakun zorrotza. Ez dakit nik hau beraz egia osoa ote dan. «Euskaldunak» giharririk gabeko eta gizatasunik gabeko sasi-baserritarren ipuina da. Eta ipuina esanez, zentzurik txarrenean hartzen dut hitza. Jende hori jostaketan ari bide da liburuan zehar, haunditasunik gabe, grinarik gabe, zainik gabe. «Euskaldunak» odol-gabetuen diorama izan ditek; euskaldun anemikuen pasadizu-sorta gexa. «Euskaldunak» euskaldun irenduen poema da.

Gure herriak Zumalakarregi eman du, eta Espoz-Mina, eta Harispe, eta Lope-Agirre, eta Salazar, eta Bolibar, eta Dolores Ibarruri, eta Lola eta Xabier, eta Elkano, eta Santakruz, eta Garat, eta Moniko Azpilikueta, eta Gaiarre, eta Unamuno, eta Arana Goiri, eta Saseta, eta Arrizabalaga. Ez dakit nik nondik nora izan ditek «Euskaldunak» «gure» poema. Nazio-jarraigari zertan izan dakigukean ere ez.



Orixek hau dio, ordea: «Euskalerri osoa dut kanta-gai... Euskalerria nire agoz mintzatu izatea nai nuke». (12) Euskaldunak, 8-9. Nola uler hau? Nere uestez ez dago azalpen bat baizik: Orixeren «Euskalerria» eta gure Euskal Herria, ametsa eta egia duden alkar-hein berean daude. «Euskalerri» hori mistika-bide zan Orixeren kaskoan.

## ORIXE EUSKALTZALE

Orixe euskaltzalea zala ukatzea zentzugabekeria litzake: Orixe bere bizi osoa eman zuen euskeraren alde lanetan, orain arte gutxi egin duena. Itzultzaile gisa

salmutegia





BELAR GOXO TARTEAN, EPER-KABI



AKELARRE BELTZ

liburu-mordo bat euskeratu zuen: «Tormes'ko Itsu-mutilla» (bizkaiera, bere itzulpenik onena behar-bada). «Urte Guziko Meza-bezperak», San Agustin'en «Aitorkezunak», Mistral-en «Mireio», «Salmutegia», eta abar.

Horrez gainera, anitz olerki eta artikulu argitara zituen euskal al-dizkari guzietan (euskeraz gehienak). 1950etik aurrera, Zaitegirekin batera, «Euzko Gogoa» aldizkaria ateratu aurrera, hortarako Guatemala ardatz. Dana dala, bertsoetan «Barne Muñetan» eta «Euskaldunak» dira bere bi lan nagusiak; eta «Kito'n arrebarekin» saila hitz-lauz. Beste gai batzuk ikutu zituen ere, euskal gramatika barne.

Batez beste, zein da lan gaitz horren joera nagusia? Euskaltzale haundi baten aurrean gaudela aitortu ondoren, nolako euskaltzalea zan Orixe?

Dagoeneko zerbait esanik dago. Goazen aurrerago.

Gaur Orixeren iritzi batzuk gauza ageria iruditzen bazaizkigu ere, bere garaian aurrerako urrats haundia ziran, eta harrigarri gertatzen. 1920-1930eko girora aldatzen saiatu behar dugu. Euskaltzaindiko biltzarrek erderaz egiten omen ziran 1936-arte, Olabide, Urkixo, Campion bera, eta beste euskaltzain batzuk, gauza ez baitziran euskeraz mintzatzeak (!). Euskaltzainen arteko gutunak gehienetan erderazkoak ziran. (12) Euskaltzaindiaren «Euskera»-sorta hausnartzea dauka irakurleak. Alderdiko euskaldun puntuzko askoren seme-alabek euskeraz ez dakite, beren etxeetan erdera baitzan hizkuntza bakarria. Hori zan, bai, orain guztiz erdaldun eta onartu-ezina iruditzen zaigun giro kiratsa. Euskal Herriko arrotea azken hondorajino joana baitzan.

Mami guzia espainiaraz, xinplekeriak euskeraz, gauza inportanteak erderaz: horra hor orduko legea. Pizkunde-hasiera hartako abertzaletasuna Alderdi barruan erdaldun hutsa izan zala neuk berriz salatzea, nere lelo ezagun bati ekitea lekioke askori. Mintza bekigu Orixe. «El Día» eta «Euzkadi» egunkariak erderazkoak ziran %-eko 99-tan. (14) Orixe berak ematen ditu honi buruz oso berri interesanteak. Ikus E.G., 1950 - 7/8 - «Lizardi Amerikan» artikulua, 6-7-8 horrialdeak. Euzko Gogoako Zuzendaritza'k —eta Orixe barne, beraz— erdal joera hori salatzen du: «Gurean Jel-Alderdi izan da abertzaletasunaren arrotza, baita euskeraren illobia ere. Ez, noski, asmoz eta jakitez... (baiña) etzuen euskera artu alderdiko ele bakarizat... eta erdera izan du ele nagusi». (15) Ikus E.G., 1954 - 5/8 - 74. Orixe berak horri zer zertan argi azaldu zuen: «Euskaldun ez dan euskotarrak ez du aski euskotar dala esatea, ezta abertzale dala esatea ere, gure izkuntza ikasten aiegina egite, ez ba ditu» (16) E.G., 1951 - 1/2 - 12).

Eguneroko mintzabideari dagokionez, beraz, bere garaiko seme izanik ere (= beti erderaz eguneroko bizian), Orixe bat egiten zituen teorian bederen abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna; eta hontan gugandik bertago dago «euzko» guziak baino. Eta «euzko» horiek, noski, ez zioten hori sekula barkatu.

Hala ere, Orixe idazterakoan euskalduna zan, baina Ormaetxea erdalduna. Idazterakoan, eta literatura egiterakoan, euskeraz mintzo; hiztegi-terakoan erderaz. Axala ez besterik euskalduna bailuan! «Euskalerra» han dago, urruti, Tabor mendia bezin urrun, denetatik at eta lekorean, Euskal Herri-beretik berex, Ormaetxea gizonagandik beragandik anitz kilometrotara. Orixe Aralarko etnografialaria bide da, Frazer-en anaia. Exotismoaren iturria, ordea, Uitzin bertan aurkitu bide zuen. Orixe Euskal Herriaren ikusle bat da; eta ikusle gisa, KANPOTIK ikusi zuen. Aralarko indioen espezialista zan. Indioekin eta indioei buruz BEREN hizkuntzaz. Indioekin ez bestekin hori. Hau bide da xedea.

Horrela jotatuz Euskal Herriko alienatu-ilaran sartu zuen bere burua; eta indio ikasiaren jokoa bes-

terik ez zuen berritu euskalduneri buruz: itzultzailearena. BESTEEN mundua ezagutarazi. Hortara Orixe, Truebak, Olorizek, eta beste milak bezela, ez zuen BERE BIZIAN NORTU, munduari buruzko ihespide bihurtu baizik. Orixe kondentzean, beraz, gure aurrekoen «indioeria» kondentatu nahi dugu: gu ez gera Ahuñemendiko azken indio bitxi, basati eta dantzariak. Euskal Herria geu gera, danok, baserritarrak eta kaletarrok, burgesak eta langileok, traidoreak eta abertzaleok, Aralarko mendikoak eta Nervion-hegletakoak, Donapaleukoak eta Amurriokoak. Euskera ez da Espuru ondoko hizkera, geure eguneroko mintzabidea baizik. Esan beharrik ote dago oraindik?

Gure irizkera huntatik bertago zegoen, halera, Orixe, bere garaikoak baino. Ez zuen, halaz ere, pausu erdi bat baizik eman.

## ORIXE HITZ-BILTZAILE

Orixe, nere ustez, folklore-biltzaile gisa saiatu zan hiztegiari dagokionez. Hiztegi-kontuan, beraz, Orixe lan eskeraga egin zuen, eta fidatzekoa iruditzen zait bere ekarria. Orixe —ez dugu ahaztu behar— euskaldun hutsa zan hizkuntzaz. Hautzaroa eta gaztaroa, 20 urte izan arte, Orexako eta Uitziko baserri-lanetan eta baserritarren artean pasa zituen. Euskaldun sena bazuen dudarik gabe. Hori dala-ta, jesuita ikastekotan Xabierko komentura sartu zanean, «doi-doi mintzatzuten zeren erderaz», Andoni Labaienek dionez. (17) Ikus Euskera, 1961, 346. Horrez gainera, eta mundu modernoari zion gorrotoak ere eraginik, hil arte saiatu zan Orixe baserritarrengandik gure hizkuntza ikasten. Hil aurretik hau zion Tolosan, Lizardi-Saria hartzerakoan: «oraindik ikasten ari naiz». (17) Olerti, 1963, 111 gn. h. Ikasi-nahi bizi hortan euskaldun herri xehea izan zuen Orixe irakasle: «baserritarrik izan ditut irakasle, nerau ere ala naila». (18) E.G., 1951 - 3/4 - 36 gn. h. Baserritarren ikaspidu hau, kontutan har dezagun, askoz eman korragoa zan, jakina, 1900ean eta 1920an, 1969an baino.

Hitz kontuetan, beraz, ikastekorik asko dago Orixeren lanetan. Puntu huntan, eta bere ideiak eskuindarrak zirala bide, bildur naiz ni Orixe gazteriak behar baino areago zokora dezan. HITZ-kontuan, berriz diot, ikastekorik asko dugu danok Orixerengan. Gauza bera joskeraz eta beste zenbait puntutan.

Orixe, bestalde, folklore-biltzaile zalako, errespetua erakusten zuen biltzen zituen mintzaira-dokumentuekiko. Hontan Barandiaranen ezpalekoa zan; eta Alderdiko euskaltzaleengandik oso oso urruti zegoen. Garbizale izanik ere (nor ez urte haieten?) Alderdikoekin arabera Orixe mordoiloazale dirudi, Sebero Altubek bezela. Martxoan, Apirilla, mundua, eliza, kanta, saiatu, aldare, dijiritu, inpernu, zeru, eta jeldideek gaitzesten zituzten beste mila holako, Orixe lotsarik gabe erabiltzen zituen. Ikus «Euskaldunak» bera, esate baterako.

Bere garaiko joeraren kontra, eta Sabin Arana-Goirearen kontra ere, Euskadi eta euskera proposatu zituen behin eta berriz Euzkadi eta euzkeraren kontra, gazteria gaztedi-aren kontra, eta abar. (19) Ikus honi buruz, E.G., 1951 - 3/4 - 36.

## ORIXE HIZKUNTZA-MAISU?

Hiztegi-kontuan, hitzen egokitasunean, adjetiboaren xulentasunean, joskeran, esaldietan, Orixeren izkribuetan errez ikas ditekian bezela, gainerakoan Orixe erduetatuz ezin har ditekiala esan beharra dago nere ustez. Tomismoak Orixerengan erein zuen logikakeriak hondatu egin zuen bere hizkera. Hau nabarmena da aditza edo berboari buruz; baina baita beste puntu askotan ere. Orixe gramatikalaria aldaketatan abiatu ezke-ro, eta Orixe euskaldunari nagusi bezin laister, akabo! Euskal gramatikari buruz, eta funtsezko gramatikara eta estrukturei buruz, Orixe berezi egin zan gure herriaren hizkuntzatik eta literatura zaharretik, eta egiazko ebakidura galgarri bat egin zuen.

Huts hori larria da oso. Hona hemen Mitxelenaren iritzia etendurora horiei buruz: «Todavía resulta más grave su tendencia —Arana-Goireni buruz ari da— acentuada en algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la “lógica” parecía exigirlo». (20) Historia de la Literatura Vasca. (144) Hots, akats horixe hain zuzen —gramatika beharrik batera gabe aldatzea— bete-betean aurkitzen da Orixerengan.

Aipa ditzagun puntu bakar batzuk:

1) «-TU» eta «-I» sufijoak (partizipioenak, alegia) latinieratik datozelakoan omen, bihozkatad ematen zion arabera kentzen zituen Orixe: ez beti, ez behar bezela, ez euskal gunari atxikiz, erregerarik batera gabe. Bere jarraitzaileek berdin egin dute. Har dezagun «Euskaldunak», esate baterako. Hauek irakur ditzakegu berealatik: ken zioten neska (62), ager du muturra (64), sar diot (65), senda nai dunari (68), lardaska dituzte (81), zulorik ez da ager (80), asma ziran danak (87), agin zion (87), arki dute senargai (89), eska ditio (291), itzul diote (441), ekar dit (554), eta abar, eta abar. Karkoa aditzaren ekintza GERTATUA ALA GERTAKIZUN izatean datzalarik ere, Orixe ez bide daki. Ez du halere beti hortara jotatzen: bialdu digu (291), lertu zaio galza (83), etorri da amatxi (83), eta abar.

Ez da xuxena bertsozintza dala horren giltzarria: izkribu guzietan gauza bera da. Bere «gerta oi da» eta «gerta oi dira» zorixarreko horiek sartu ere egin dira ezjakinen artean; eta ekar du, eror ziran, eta abar, edozein izkributan irakur ditekera. Baina, itzuletara, euskeraren bidetik berezi zan ekintza eginkizun dan formaten: mindu ez dezaten (83), egurastu lezake (83), ez dezake josi (83), artu dezan (93), ez bekik mututu (Lizardi-Sari-koan), eta beste hamaikatan, partizipioaren orde bezela erabili behar danean -TU eta -I eraten ditu. Nekez proposa ditekera nahasketara hori euskal erduetatuz: gure berba zahar hondatzea eta erdalduntea litzake.

2) -A artikulua buruz gauza bertsua. Orixeren deklinabidea eskuarki zuzena izanik ere (eta hontan ere bere garaiko gehienak baino euskaldunago agertzen, Otsobi eta beste ipartarrak kendu ezker) artikulua zion gorrotoak ez du euskal funtsik. Era berean -A itsatsia, artikuluztat harturik, kendu egiten zuen: arnas, neskatx, txorakeri, ego, eta abar. (Hontan bere eskualdeko akats bat hartu zuen erduetatuz).

3) «Zu» gaur singular dala-ta (=usted, espainiaraz; baiña vous, frantsesez ez da singularra... berriz ere Orixe Gaztela neurri!) berbo osoa aldatu zuen, gaztelan plural-kin ez dituen modura jarri. Segidan gauza bera egin zuen «gu»rekin. Bere «logika» gidari berba zahar hondatu zuen liburu guzietan («Tormes» ez ikar ez banago); eta gaki, zakio, gintzaon, zintzaidan, gaki, eta sekula erabili ez diran beste anitz asmatu eta erabili zuen, genuen nahasketara larriago eginez. Hots, puntu hortan hitz berririk ez genuen behar, gatzakio, zatzakio, gintzazkion, eta abar (edo beren kideak) aditz-joko zaharrak baitira, eta Euskal Herri guzian hedatuak. Arlo hortan Orixe osoki kaltegarritzat jotzen dut.

4) Literatura guzian barrena, eta erderaren kontra, indeterminazioak singularra behar izan du berboan: zenbaitek ekarri du, askori esan diot, eta abar. Bertsolariak aztertea besterik ez dago hori arkaismo bat ez dala egiaztatzeko. Hots Orixe, ERDERAREN GRAMATIKA eta estrukturek LOGIKATZAT harturik (eta euskal taikera ukaturik) erderaren arabera erabili dituen hauek: «zenbait oitura ar itzazu» (554), zenbaitek esan didate (E.G., 1950-2), zenbait lerro irakurri nituen (d°), deabru asko aterarazi zituela (E.G., 1951 - 3/4), eta abar.

5) Orixe batasunaren kezka zuen: «Ez da guzieren euskera, guzieren euskerarik ez baita. Izan ba-

litza, ua emanen nizun». (21) Euskaldunak, Hitzaurrean, 10. Batasunerako bidean, Azkuek eta beste askok bezela, gipuzkera hartu zuen oinarritzat. Aurrerago ere jo bide zuen bolada batez; eta Guatemala joatean H-batzukin idatzi zituen hiru olerki. (22) Ikus E.G., 150 - 2 - 3 eta 4 gn. h. Hauek irakur ditezke: huntan, hurrun, hegatsetan, haren, ilhun, hau, hondarra, hasi, hain, behar, eta beste anitz; baina baita, bertso horietan beretan, aragi, iru, len, emen, otz, il, ark, aiz, an, ego, eta abar. Ez bide zuen, beraz, batasunerako jokabide garbi bat hautatu. H-ak oso-ta utzi zituen azken lanetan (bata-suna «español» modura bilatuz), ipartarrak euskaldunak ez balira bezela. Aspaldiko joera zuen hau: «Euskaldunak» poemaren nota asko erderaz (espainiaraz, hobe) argituak ditu, euskaldunak euskera baino ere lehenago espainiar ongi ezagutu behar balute bezela, hegatar izan ala ipartar...

6) «Errege» hitza deklinatzean erderara jotzen du Orixe'k, beste edozein bezela hartuz: «erregeri» esan beharrean «erregeari» dio (Tormes, 91), «erregek» esan beharrean «eregeak», eta abar.

«Dula», «ditula», «dun» eta abar hautatuz (eta ez duela, dituela, duen...) Euskal Herriko joera nagusitik berezi zan.

Berrieria horiek guziak, eta hau ez areago lutzetako aipatuko ez ditudan beste batzuk, aski dira nere ustez hizkuntzari dagokionez Orixe erduetatuz ez hartzeko.

Denek akatsak izenagatik ere, askoz maisuago ikusten ditut nik Gregorio Arue Duvoisin, Harander, Mendiburu, Mogel, eta Atsular bategar ere.

## ZERTAN EREDU ORIXE?

Erruz ikas ditekera Orixeren biltzaile- lanetan, berriz diot, hiztegi-kontuan, egokitasunean, adjetiboaren funtzean, joskeraren jatortasunean, esaldietan, baserrietako ohitura zaharretan, euskal jokoetan. Komeni izango litzake, nere ustez, alderdi hortatik euskaltzale gazteek Orixe aintzakotzat hartzea.

Orixeren akatsak haizatu ondoren, gaurko idazleak baino askoz gorago dagoela esan behar da: batzuen luman ez dago euskal gin- aztarnarik ere! Erdal lotsagabekeria horiek erazi egin behar dira gugandik. Orixe, baserritarra izan are, eta euskeraz ongi egiten dan eskualde batekoa, bizi GUZIA pasa zuen euskera ikasten; eta barruan zeraman gramatikari murriza baserriko semeari nagusitu ez bazitzaion, Orixeren hizkera Atsularenaren parekoa izan zitekan. Orixeren landu-nahia eta euskerari buruz eskolatu-nahia guttiz da txalotu-beharrekoa eta jarraitu-beharrekoa. Gazte batzuen ezjakintasun harroputz eta ausarta guttiz ere gaitzetsi behar da. Ikas aurrenik, eta gero mintza.

Urteak aurrera joan dira, bestalde, Orixeren garaitetik; eta geure ikuspuntutik kupidarik gabe epaitzea, eragabekeria litzake. Danok gera zordun Orixeren belan-narekiko.

Beti ikasketan egon ondoren, hau zion Orixe Guatemala 61 urte zituelarik: «gazteok gu baiño bizkorrago datoz, eta atzean utziko gaituzte». Apaltasun ederra hor ere, bizi guzia euskera osatzen pasa zuen batangan!

«Eta euskerarekiko amodioan erdu ere zalantzarik gabe. Langile porrokata, bere bizi eskaini zuen gure hizkuntzaren jasokuntzan; eta hontan errespetu guzia merezi du. Orixe berak aipatzen zituen maiz «250 irakurleen muga»... Zaila zan giroa gerra-ondo ilun hartan. Zuzen izan gaitezen: Orixeren aroa gurea baino zailagoa zan.

Hunkigarriak dira bere hitz hauek: «Nik etzekifiat oraingo ontan ilgo ote zaigun euskera gal- xoa; urbil zegon; baiña ni bizi naiz irauongo dula uste yunat» (23) E.G., 1954 - 3/4 - 61).

Agintza ederra! Eta bihotz osoaz azken minutura arte bete.

Baldinba geuk ere horrenbeste egingo!

TXILLARDEGI